

# L

# Luma berrien eleak

2004ko Ekaina

1. zb. • 3 €



**Elkarrizketa:**

Ruper  
Ordorika



**Gotzon Garate:**

"Ondo idazteko  
zer egin"

Idazle Berrien  
sorlanak,  
ipuinak, poesiak,  
liburu-iruzkinak,  
komikia...



Argazkia: Patricio Reig

IDAZLE ESKOLA



[www.asmoz.org/ieskola](http://www.asmoz.org/ieskola)



## **UNED-Bergara** Ikastetxe Elkartua

### **2004/05 IKASTURTEA**

#### **Ikasle berrientzat aurreinskripzio epea: ekainaren 16tik uztailaren 30arte**

(espedientearen lekualdaketa egin behar dutenentzat bakarrik,  
besteek matrikula zuzenean egingo dute)

#### **MATRIKULA EPEA: irailaren 15etik urriaren 15era (ikasle berriak),**

-----o0o-----

**Lizentziaturak:** Zuzenbidea, Historia, Hispaniar Filologia, Ingeles Filologia, Ekonomia, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Zientzia Fisikoak, Zientzia Matematikoak, Zientzia Kimikoak, Zientzia Politikoak, Soziologia, Psikologia, Pedagogia, Psikopedagogia (2. ziklokoa), Filosofia eta Gizarte eta Kultur Antropologia (2. ziklokoa).

**Diplomaturak:** Gizarte Heziketa, Turismo eta Gizarte Laguntzailea.

**Injinerutza Teknikoak:** Sistemen Informatikan Injinerutza Teknikoa, Gestio Informatikan Injinerutza Teknikoa, Mekanikan Injinerutza Tekniko Industriala, eta Elektronikan Injinerutza Tekniko Industriala.

**Goi Injinerutzak:** Injinerutza Industriala eta Injinerutza Informatikoa (2. ziklokoa).

Era berean, Doktoretza Ikastaroak egin daitezke titulazio guztietan.

#### **INFORMAZIOA**

UNED. Martin Agirre Deunaren Enparantza, 4. 20570 BERGARA

Tfnoa. 943 76 90 33

e-maila: [info@bergara.uned.es](mailto:info@bergara.uned.es)

web: <http://www.uned.es/ca-bergara>

#### **JENDAURRE ORDUTEGIAK**

astartetik-ostiralera: 10'30-13'00 / 17'00-20'00

uztailan: astartetik ostiralera 10'00-13'30

## • IRITZIAK

|                      |                                     |    |
|----------------------|-------------------------------------|----|
| Igor ARROYO          | <i>Eleak</i>                        | 4  |
| Anttoni LOPETEGI     | <i>Andrazkoak erlijioetan</i>       | 5  |
| Nagore REMENTERIA    | <i>Zientzialariak jainkoen pare</i> | 6  |
| Maria Jesus ARANBURU | <i>Nolatan zu irratian?</i>         | 7  |
| Alfredo RODRIGUEZ    | <i>Idazle gaztearen pagotxa</i>     | 8  |
| Juan Luis MUGERTZA   | <i>Ondo idazteko zer egin?</i>      | 9  |
| Iasmina GORROÑO      | <i>Ezkerra eskuinaren aurretik</i>  | 10 |

## • NARRAZIOAK

|                                      |  |    |
|--------------------------------------|--|----|
| Karlos AIZPURUA                      | <i>Azken saioa</i>                           | 12 |
| Josune ARANGUREN                     | <i>Patu gazia</i>                            | 13 |
| Maribel AIERZA                       | <i>Labarreko sekretuetua</i>                 | 14 |
| Josune ARANGUREN                     | <i>Hotz da lurraren ertzetan</i>             | 16 |
| Matxalen ANTUXUSTEGI                 | <i>Txori-hegodun tximeleta erraldoiak</i>    | 18 |
| Isabel ETXEBERRIA                    | <i>Sandiak</i>                               | 20 |
| Itxaso Azpeitia                      | <i>Marea biziak</i>                          | 21 |
| Arantza AURREKOETXEA                 | <i>Bakailaoa pil-pilean</i>                  | 22 |
| Katixa GARATE                        | <i>Gora eta behera</i>                       | 24 |
| Ainara BELAUSTEGI                    | <i>Autokardiografia</i>                      | 25 |
| Maidar ZIAURRIZ                      | <i>Arratsalde luzeetan, txokoloate onena</i> | 26 |
| Naroa GOIKOETXEA                     | <i>Laundry-an</i>                            | 28 |
| Asier Iriondo eta Joseba ZUBIZARRETA | <i>“Gutxitan ateratzen zen arren”</i>        | 30 |

## • ELKARRIZKETA

|                |                                       |    |
|----------------|---------------------------------------|----|
| Markos UNZUETA | <i>Ruper Ordorika: Kantu artisaua</i> | 32 |
|----------------|---------------------------------------|----|

## • HAUR LITERATURA

|        |                                   |    |
|--------|-----------------------------------|----|
| Itziar | <i>Txirritx kilkerrari gutuna</i> | 41 |
|--------|-----------------------------------|----|

## • KOMIKIA

|                  |                        |    |
|------------------|------------------------|----|
| Laida AZKARGORTA | <i>Argi, geltokian</i> | 42 |
|------------------|------------------------|----|

## • NARRAZIOAK

|                      |  |    |
|----------------------|--|----|
| Isabel ETXEBERRIA    | <i>Patua, zein gauza bitxia den</i>          | 44 |
| Oihaneder GOIKOETXEA | <i>Zerabidean</i>                            | 45 |
| Joseba ZUBIZARRETA   | <i>11-M</i>                                  | 47 |
| Garbiñe ETXANIZ      | <i>Zazpigarren hilabetean</i>                | 50 |
| Maidar SUKUNTZA      | <i>Begirada galduak</i>                      | 51 |
| Izaskun JAUREGI      | <i>Zoriontsu Izaten Laguntzeko Erakundea</i> | 52 |

## • HITZ-KUTXA

|              |                   |    |
|--------------|-------------------|----|
| J. Zunzunegi | <i>Hitz-kutxa</i> | 55 |
|--------------|-------------------|----|

## • POESIA

|                      |                               |    |
|----------------------|-------------------------------|----|
| Aritz GALARRAGA      | <i>Haizea haserre</i>         | 58 |
| Anttoni LOPETEGI     | <i>Iratzar hadi</i>           | 59 |
| Patxi LPEZ DE TEJADA | <i>Etxeek</i>                 | 60 |
| Imanol EPELDE        | <i>Pelayo da</i>              | 62 |
| Matxalen ANTUXUSTEGI | <i>Ilargiarekin dantzan</i>   | 65 |
| Maribel AIERTZA      | <i>Gurutzedrama</i>           | 65 |
| Arantxa AURREKOETXEA | <i>Lilith zein Eba berdin</i> | 65 |

## • IRAKURKETAK

|                   |  |    |
|-------------------|--|----|
| Maidar ZIAURRIZ   | <i>Bultzi leihotik luma berrien eleetara</i> | 66 |
| Itxaso AZPEITIA   | <i>Kutxidazu bidea Ixabel</i>                | 66 |
| Maribel AIERTZA   | <i>SPrako tranbia</i>                        | 67 |
| Alfredo RODRIGUEZ | <i>Arbelaren gainean</i>                     | 68 |
| Mikel AYERBE      | <i>Gure Gauzak S.A.</i>                      | 69 |
| Unai ZIARSOLO     | <i>Orhoit gutaz</i>                          | 70 |
| Ainara Belaustegi | <i>Kolosala izango da</i>                    | 71 |
| Mikel AYERBE      | <i>Desastreren errepublika</i>               | 72 |

© IDAZLE ESKOLA

Zuzendaria: *Tere Irastortza* • Idazkuntza Kontseilua: *Tere Irastortza, Jon Alonso, Jesus Eizagirre.*

Diseinua eta Inprimaketa: **K3 Inprimategia. Amillaga 1 - 6. Pab. - 20570 Bergara.**

L.G.: SS-803/04

## • Eleak •

**Elea oso letra erabilgarria da. Besteak beste, gure bizitzan erabakiorrak diren hitzei hasiera emateko balio du. L batez hasten da *Lurra*, gure ama; *Loa*, bizitzaren herena hartzen duen ariketa; *Legea*, epaileena nahiz bestea, giza-legea; *Labea*, ogia egiteko ezinbestekoa; *Lana*, ogia izateko ezinbestekoa. Eta L batez hasten da, nola ez, *Literatura* ere, orriotara ekarri gaituen zera.**

Hau gutxi balitz, bizitza modernoak funtzio erantsi bat eman dio gure alfabetoaren hamaikagarren letrari: auto gidari berriak identifikatzea, alegia. Autoeskolako praktiketan ari garenean autoaren gainaldean eta karneta atera berritan atzealdeko kristalean, L-ak gure esperientzia eza salatzen die inguruko gidariei. Hala da, besteak beste, Ingalaterran, Galesen, Portugalen eta espainiar estatuan. Frantses estatuan A-ri dagokio eginkizun hori. Ipar Irlandan eta Zelanda Berrian, berriz, R-ari. Zein letrarengan erori beharko litza-teke funtsezko erantzukizun hori Euskal Herriaren kasuan? Hor zintzilik utziko dut galdera, noizbait erantzuna bilatu beharra izango dugun itxaropenaz, eta L-aren auziari helduko diot berriz.

L-a ingelesezko *learner driver* kontzeptutik omen dator, alegia, ikasten ari den gidaria. Zentzu honetan, oso letra aproposa da Idazle Eskolan ari garenok ere identifikatzeko, gu autoak ez, baina hitzak gidatzen ikasten ari baikara. Eta ez da batere lan erraza hitzak edo eleak gobernatzea.

Batetik, zinez harrapagaitzak dira. Eleek hegan egiten dute gure gainetik, beleen edo tximeleten moduan. Gu saiatu egiten gara eurak nola edo hala harrapatzen, beren dir-diraren jabe egiten. Eta batzuetan lortzen dugu, eta orduan zoriontsu gara, ideia on bat pentsatu, poema eder bat sortu, iruzkin zorrotz bat egin dugulako.

Bestetik, nik esango nuke eleak tratagaitzak direla. Hasieran, ausart plantak egiten dituzte eta tropelka

pilatzen zaizkizu buruan, paperera lehenengo zein aterako. Baina gero, idazteko orduan, kikildu eta hor nonbait -burmuinaren eta lumaren puntaren arteko bide luze eta bihur-gunetsuan- ezkututzen dira. Gainera, asko kostata mordoska bat ele orriaren zurian lerratzea lortutakotan, beren arteko ika-miketean hasiko zaizkizu berehala. Adjektibo batek uko egingen dio dagokion izenarekin ezkontzeari, paragrafo bateko eleak

«L-a ingelesezko  
learner driver kontzeptutik  
omen dator, alegia,  
ikasten ari den gidaria.  
Zentzu honetan,  
oso letra aproposa da  
Idazle Eskolan ari garenok  
ere identifikatzeko,  
gu autoak ez,  
baina hitzak gidatzen  
ikasten ari baikara.  
Eta ez da batere  
lan erraza hitzak edo  
eleak gobernatzea»

protestaka hasiko dira aditz baten gehiegizko protagonismoa dela kausa. Eta buelta bat baino gehiago eman beharko diezu perpausari gutxieneke bakea lortzearren.

Azkenik, oso minbera dira eleak. Erabiliaren erabiliaz gastatu egiten dira, dir-dira galdu egiten dute. Adi-

tzak dira honetan bereziki ahulak: *bermatu, ekidin, eraiki, aldarrikatu, mahai gaineratu, garatu*. Egun ez dago herri honetan aldarrikapen bat mahai gaineratzerik hitz horietako bat behintzat erabili ezean. Bestalde, eleak hustu egin daitezke, barraskiloak mamiz husten diren bezalaxe. Gaur egun, barraskilo oskolak dira Demokrazia, Bakea eta Giza Eskubideak.

Eleak harrapatu, orriratu eta zentzuz betetzea, horra hor idazlearen eginkizun zail bezain funtsezkoa. Izan ere, Sarrik idatzi bezala, “*zeozer diogunean zer diogun gogoan hartu eta ber pentsatuz bakarrik gaindi dezakegu hitzen, mintzairen eta lengoaiaren higadura eta akidura, eta lengoia hobetuz bakarrik itxaron dezakegu, komunikazio onuragarriaren bidez, gizarte erlazioen hobekuntza*”.

Idazketa, komunikazioa eta gizarte harremanak lotzen dituen ideia hori bereziki interesgarria iruditzen zait, literaturaren gaineko ikuspegi herri-tar baterako aukera irekitzen duen aldetik. Ikuspegi honen arabera, ez legoke idazleen -idazten dutenen- eta gainerako herritarren -idazten ez dutenen- arteko mugarik. Hausnarketa hau ilustratzeko, literaturaren munduan izan dudana esperientzia bakarra kontatuko dizuet.

Iruñeko Udaletxeak urtero-urtero antolatzen duen literatur lehiaketan narrazio labur bat aurkeztu nuen iaz; esan daiteke nire lehenengo idazlan serioa zela hura. Bigarren saria eman zidaten eta pentsa dezakezuen bezala pozarren hartu nuen berria. Handik aste batzuetara Euskal Herria Irratikoek bertaratzeko gonbita luzatu ziguten saritutako guttiori, “idazle berrien inguruko saioa” egiteko asmoz. Hara! Egun batetik bestera idazle berria nintzen! Nik betidanik desio izan dut idazle izatea, Urliak astronauta edota Berendiak

futbol izarra izatea desiratu duten bezala baina, aizue, ez nuen abagune egokirik aurkitzen idazle bilakatze-ko. Eta halako batean idazle berrien saio batean nengoen!

Irrati esatariak hainbat galdera egin zizkigun, besteak beste idazteko arrazoen inguruan. Eta nik horrelako zerbait erantzun nion: idaztea, hitz egitea legez, pertsona guztiok gure burua adierazteko dugun bidea da. Eta beraz, bakoitzak gehiago edo gutxiago idatziko du, hobeto edo okerrago, baina ez dago esaterik norbait *idazlea* denik, norbait *hizlaria*

«Idaztea ez da dozenka batzuren monopolioa, literatura ez da jakintsu batzuren kultu pribatua»

dela esateak zentzurik ez duen legez. Noski, badira idazle onak nahiz hizlari onak. Baita sukaldari, militante, entzule edota lagun onak ere.

Iritzi hori berretsi egin nahi dut.

Idaztea ez da dozenaka batzuen monopolioa, literatura ez da jakintsu batzuren kultu pribatua. Literatura dira paretetan egindako pintadak eta pisukideei utzitako ohar zirikatzaileak, maiteari oparitutako poema eta lagun presoari bidalitako eskutitza, mugikorretik bidalitako mezutxoak eta barrua hustearren idatzitako egunerokoak. Literatura eleen zientzia da eta eleak guztionak dira. Har dezagun, beraz, hitza. Har dezagun elea.

*Igor Arroyo Leatxe*

## • Andrazkoak erlijioetan •

“Nire aberria mundua da eta nire erlijioa on egitea”, zioen Thomas Peinek, XVIII. mendeko kazetari eta politikariak. Abiapuntu gisa esaldi interesgarria iruditu zait, hain zuzen ere, giltzarri diren hiru hitz jasotzen dituelako: mundua, erlijioa eta ongia. Giltzarri diot, banaka hartuz gero, gizaldiz gizaldi iritsi zaizkigun zenbait sineskera, mito eta pertsonaia ezagunen arteko lotura ezartzen lagunduko digutelako.

Mundua, oraindik orain, gizakiontzat guztiz argitu gabeko misterioa da. Asko eta asko izan da zientzia ezberdinen garapenari esker lortu den informazioa, baina, egun ere misterioak badaude. Erlijioa, hiztegiaren arabera “jainkotasuna eta gizakiaren arteko erlazioa definitzen dituzten sineste edo dogmen multzoa da”. Baina mundua hain handia eta hain anitza izanik, logikoa da pentsatzea hainbat sineskera desberdin egongo dela Jainko eta gizakien arteko harreman hori definitu nahian. Beraz, harremanez hasten bagara, berehala aurkituko dugu *ongia* eta ezinbestean *gaiztakeria*, zuzenean, bikoteen munduan murgilduz.

Har dezagun *mundua*, har dezagun *ongia* eta har ditzagun *erlijio* eta *sineskera* desberdinak. Antzinatek gizakia ulergaitzak zitzaizkigun gertakizunak ulertzen saiatu da. Bide antzatzak erabiliz, erantzunen bilaketan zenbait erlijio eta korronte filosofiko aritu da. Horiek askotan kondairetara jo dute eta bertan ezagutu eta ikasi ditugu hainbat istorio zoragarri. Besteak beste, hor daukagu Istar izeneko mesopotamiar jainkosarena, andre itxurako indar jainkotiarra, ezaugarriengatik egipziarren Isis edo kristauen Maria Birjinaren parekoa. Guztiak indar positiboen ordezkari ditugu, baina, egon badaude jainkoak ez diren andrazko pertsonaia ere, eta denak aipatzea ezinezkoa denez, bi aukeratu ditut elkarren ar-

tean duten antzekotasunagatik: Lilith bata, juduen arabera Adamen lehen emaztea, dirudienez, haserraldi baten ondorioz senarra utzi eta alde egin zuena. Jaunak Adamekin batera buztinaz egin zuen bera; juduek gizakiarekin elkartzen dute, nahiz egun, botere eta bizitasunaren ordezkari hartzen duenik ere badagoen; bestea Pandora da, greziar mitologiako andrazko pertsonaia, Zeusen aginduz, Ateneak eta Hefesto jainkoek egin zutena gizakien babesle zen Prometeo galbidera eramateko. Pandorak, ordea, ez zuen Prometeo konkistatu, bere anaia Epimeteo baizik, eta ondoren, ospea emango zion bihurrikeria burutu zuen: Prometeok,

«Ez dago zalantzarik, zibilizazio desberdinetako sineskera eta erlijioetan andrazkoen papera funtsezkoa da»

gizakiak babestearren kaxa batean gordeta zituen txarkeria guztiak askatu zituen, munduko zoritxar guztien errudun bihurtuz.

Beraz, ez dago zalantzarik, zibilizazio desberdinetako sineskera eta erlijioetan andrazkoen papera funtsezkoa da. Oso bestelako arazoa da gero nork interpretatuko dituen istorio horiek guztiak eta noren alde jartzea otuko zaion interpretatzaileari. Bitartean, urteak joan urteak etorri, gizarte batzuetan eta besteetan euts diezaiozun, gizonen mundu hau eraldatzeko ahaleginari.

*Anttoni Lopetegi*

## • Zientzialariak jainkoen pare •

Zenbat aldiz entzun dugun zientzialariak jainkoak izatera jolasten dutela. Sasijainkoak omen, Frankenstein doktoreak hasitako bideari jarraituz, bizidun berriak sortu nahian, jainko kristau, katoliko, apostoliko, erromatarraren legeak urratuz, eta baita beste hainbat jainkorenak ere.

Hala ere, gizarteak jainko gisa hartzen ditu zientzialariak. Azken finean, ez al dira bada gaur egungo erlijioaren gurasoak? Zientzia da zalantzarako leku gutxien uzten duen sinesmena, egia absolutuaren jabe bakarra; zalantzarik gabe. Metodo zientifikoaren arabera zehazten da benetako egia.

Erljio berriek aurreko sineskerien aurka egin behar izan dute beti, eta zientziari ere hala suertatu zaio, gainerako erlijioek belaunaldiz belaunaldi memoria kolektiboan utzi duten arrastoa ezabatzen saiatu ondoren.

Dena dela, itxuraz zientziak badu abantailarik aurreko erlijioekin alderatuz: ulergarria dela. Baina nork ulertzen du? Herritarrok beste edozein dotrina bezala ikasten ditugu zientziaren premisak: Lurra biribila da eta Eguzkiaren inguruan ari da biraka, hegazkinek azelerazioari esker egiten dute hegana, bonbilla ariko korrante elektrikoak pizten du, irratia uhinei esker jasotzen da, eta abar.

Eta? Premisa horiek jakinda ere ezer? Beste edozein dogma buruz ikastea bezalakoxea da, ez baita ulertzeko ahaleginik egiten. Ahalegin hori egiteko, gainera, oinarritzko kontzeptu batzuk jakin behar dira, eta horrek ere interesa, gogoia eta ahalegina behar ditu. Eta, onar dezagun, gizarteari orokorrean ez zaio zientzia interesatzen, bitxia ez bada ez behintzat. Nori axola zaio Marteko gainazalak zer konposaketa duen? Martetarrik baden jakin nahi dugu!



«Herritarrok beste edozein dotrina bezala ikasten ditugu zientziaren premisak: Lurra biribila da eta Eguzkiaren inguruan ari da biraka, hegazkinek azelerazioari esker egiten dute hegana, bonbilla ariko korrante elektrikoak pizten du, irratia uhinei esker jasotzen da, eta abar.»

Eta zientzialari batzuk haserretu egiten dira halakoak entzuten ditzutenean; *“serioak izan gaitezen pentsatzen dute”*. Baina badira beste batzuk, malizia apur batekin, herriaren ikuspegiari etekina ateratzen diotenak; hala, espedizio garestiak justifikatzeko aukera dute: Marteko bizitza ikertuko dutela erabil dezakete aitzakia gisa. Ala NASA-koek benetan uste dute planeta gorrian bizitza aurkituko dutela?

Zientzialariak burua zeruan daukatala pentsa daiteke, sineskeriaz jositako herri xumetik urrun. Beraien ja-

kinduria konpartitu nahi ez balute bezala, beraien altxorra.

Nola konpartitu jakintza, ordea? Ezinezkoa da. Eta horrek beste erlijioen parean jartzea eragin du. Kontuz ibili beharko du zientziak beste erlijio batek haren lekua hartzea nahi ez badu, izan ere, edozein dogma har dezake herriak, itxuraz behinik behin. Ateo itxura dauka, baina lehenengo gizakiek izan zuten sinismenetik ez bide dago oso urrun.

*Nagore Rementeria*

## • *Nolatan zu irratian?* •

- Zu al zara irratian...?

- Bai, ni naiz,bai.

- Ah! Entzuten zaitut eta pentsatzen nuen, bera ote da?

- Bai, ni naiz,bai.

Sarritan izaten zuen horrelako galdera eta irribarrez beti erantzun berdina ematen zuen.

Pauso batzuk eman orduko ordea, beti galdera berdina egiten zion bere buruari: eta zer? Gustukoa al duzu entzuten duzun tertulia?

Galdera egiten ausartzen ez zenez, erantzunik gabe aurrera egiten zuen.

Egun batean ordea galdera aldatu egin zen eta beste hauek egin zizkioten:

A.- Nolatan zu irratian? Zer behar da irratiko tertulia batetan partaide izateko? Eta zertarako balio dute horrelako elkarrizketek?

Nor zen horrela hitz egiten ziona?

Hamazortzi bat urteko neska gazte bat zen.Lagun batzuekin zegoen eta herriko aldizkarian, bere lehen pausok ematen hasia zen; biharko egunean periodista izan nahi zuela zioen.

Erantzuna nahiko prestatua zuen tertulia kideak, bere buruari antzeko galderak egiten baitzizkion noizbehinka.

T.- Begira, betidanik izan naiz nahiko "xalxera" eta herriko zenbait talde eta ekintzetan mugitu izan naiz.

Giza harremanak gustukoak izan ditut eta betidanik kezkatu izan naute munduan eta batez ere gure inguruan gertatzen diren egoerak aztertzea, eztabaidatzea eta nire ikuspuntua besteei ere adieraztea. Beti ere hitz eginez zerbait konpontzeko, edo elkar hobeto ulertzeko baliagarria izango delakoan.

A.- Baina, prestakuntza berezirik behar al da horretarako?

T.- Prestakuntza berezia izatea, ikasketa mailan edo?. Dударik gabe ona da. Nire kasuan horrek baino pisu gehiago gertakizunaren jarraipena egiteak izan du eta nola ez, irakurtzeak, asko irakurtzeak.

A.- Egunkariak irakurtzeak?

T.- Ezinbestekoa da gaur egungo gertakizunen berri izatea, horretarako denok dugu aukera, egunkariak eta



beste hedabideak jarraituz, ez ahaztu internetek ematen dizkigun aukerekin, baina gero berri horiek aztertu egin behar dira eta batez ere zeure buruari galderak egin, erantzunak aurkitzen saiatu eta pentsatu zure iritziak, akaso, beste norbaitentzako lagungarriak izan daitezkeela.

A.- Mikrofono batek besteen etxeetara sartzeko aukera ematen du eta besteen aurrean azaltzeak beraien oniritzia edo kritikak jasotzeko bidea, ez al zaitu horrek beldurtzen?

T.- Behin baino gehiagotan pentsatu izan dut egoera horrekin.

Zertarako sartzen zara horrelako lapikotan? Ez dakit zergatik, sekulan ez naiz izan eremuak mugatzekoaren aldekoa. Baliteke atrebentzia handiegia izatea pentsatzen dudana esateko, besteekin eztabaidatzeko...

Nire iritziak, ondo dagoena goraiatzeko edo gaizki dagoena salatzeke ez dut lotsarik eta aukera ematen didatenean aprobetxatu egiten dut.

Zenbait kritika jaso izan ditut, gutxiagotan bada ere, zorianak ere bai...

A.- Nola bukatu nahi duzu elkarrizketa hau?

T.- Hitza baloratuz, eta batez ere zuei gazteoi, iritzi kritikoa lantzeko aholkatuz. Kasu egingo al duzue?

Elkarren arteko begiradak gurutzatuz, hurrengo batetan berriro ere egotekotan eta irribarre bat ezpainetan zutela agurtu ziren.



• **Idazle gaztearen pagotxa** •

Iban irteten ikusi nuenean nire kafes-  
nea hartu eta gazteari hurbildu nin-  
tzaion. Ezaguna egiten zitzaidan bere  
aurpegia, baina ez nuen izen-abizenez  
ezagutzen. Campariari so egiten zion  
albora begiratu gabe. Desfondatuta  
ematen zuen, marathoia amaitu berria  
balu bezala. Edalontzia hartu, oina-  
rriarekin zirkulu pare bat marraztu  
zuen barraren gainean eta, izotzen  
mugimenduak sortutako zaratak es-  
natuta-edo, barra atzeko ispiluaren bi-  
dez begiratu ninduen. Bigarren trago-  
arekin hasi zitzaizkion nire hitzak adi-  
tzeko moduan heltzen.

“Herrian Sollube deitzen didate ante-  
na gertu daramadalako beti. Ez da ho-  
rrenbesterako baina deformazio profesio-  
nalaren puntu bat badago. Hasiara nahi  
gabe eta jarraipena nahita, kontua da Iba-  
ni kontatu diozun guztia entzun dudala.  
Irakaslea naiz eta ohituta nago gazteokin  
berbetan orduak ematen. Gazteon puteo  
sistematikoaz tesi doktorala idazteko mo-  
duan naiz. Zuen kalterako mota askotako  
proxenetei egin behar diezue aurre. Urtee-  
tan eraman beharko duzue gainean sen-  
sazio hori: kristo guztiak txuleatzen nau.  
Ez pentsa, beraz, hori idazleei soilik ger-  
tatzen zaizuenik. Begira, lehengo egune-  
an ikasle ohi bat topatu nuen lanean su-  
permerkatuko arraindegian. Aspaldiko,  
zertan ari zara hemen? Itsuenak ere erraz  
asmatuko luke; benetan erantzuna behar  
duzu? Onartu behar dut; galdera ez zen  
oso azkarra izan. Esan nahi dut nolatan  
hemen? Gabonetan irlandarrean ikusi  
zintudan guinnessak zerbitzatzen. Harrez  
gero, hamaika lan egin dut hortik zehar:  
pizzak banatu, entziklopediak saldu, in-  
kestak egin eta ez dakit zer gehiago; denak  
kontraturik gabe eta hau lortzeko autono-  
mo egin behar izan dut.

Gure Institututik praktikak egitera bi-  
daltzen ditugunek miseria bat irabazten  
dute. Gainerako langileek egiten duten  
adina lan egin behar dute eta kasu gehie-  
netan erdia baino gutxiago irabazten du-

te. Zure kalbarioa entzun dut eta topiko  
guzti hauek etorri zaizkit burura. Holako  
kasuetan esaldi batek laburbiltzen du  
unibertso osoa: ze gogorra den txirrin-  
dularitza! Benetan. Zergatik ez da jais-  
ten bizikletatik txirindulari bat pott  
eginda dagoenean eta aurretik, oraindik,  
lehenengo mailako hiru mendate ditue-  
nean helmugarako? Erantzuna ez dago  
haizean Bob Dylanek sinestarazi nahi  
izan zigun bezala; norberaren hautuan  
baizik. Zerorrek erabaki duzu idazle iz-  
atea. Inork ez zaitu behartu. Gainera, ez  
duzu INEM-etik hi-  
labetero zigilu baten  
eskean ibili behar.  
Zure gustuko hau-  
tuak koherentzia  
gehiago eskatzen  
du; ez duzu us-  
te? Bidetik



jarritako zepoetako gazta guztiak jan ba-  
dituzu ez etorri orain lantu joka gaztaz  
gogaiturik zaudelako.

Jaitsi zaitze, nahi baduzu, bizikletatik.  
Ordenagailua ere leihotik bota, edo  
Emausekoei oparitu. Nahi duzuna egin;  
baina zure egoerak ez du hobera egingo.  
Badakizu zergatik? Gaztea zarelako; eta  
ez idazlea zarelako, zuk pentsatzen du-  
zun bezala. Sintometan bete-betean jo  
duzu; ez kale egin orain diagnostikoan,  
bestela tratamenduak ez du ezertarako  
balio. Medikuek diote katarrua sendatze-  
ko antibiotikoak hartuta zazpi egunez  
izorratuta pasa behar dugula eta hartu  
gabe, astebetetz. Lehengo egunean idazle  
batek esaten zuen minbizi batek jota da-  
goela literatura eta, guk, petrikilo gizajo-

ok, aspirinaz, kataplasma, limoi-uraz  
eta sendabelarrez sendatu nahi dugula.  
Gaineratzen zuen idazle asko hortik  
zehar dabiltzala, noraezean, ibilbide ez  
oso loriatsuaren marka garbiarekin. Lite-  
raturaren enbalsamatzaileak deitzen  
zien idazle hauei. Arrazoi osoa zuen.

Tratamendura itzuliz, aukera bi dituzu.  
Bat, antibiotikoak hartuta; idatzi, mun-  
dua ahamen bitan jateko gai bazina beza-  
la; idatzi, abangoardiaren estandartea be-  
zeneraman bezala; idatzi, Euskal Herriak  
emango duen lehen literatur nobel-saria  
izan nahi bazenu bezala; idatzi, hori lor-  
tzeko, edonola, edonoren gainetik pasa-  
tzeko gai bazina bezala. Bi, antibio-  
tikorik gabe; idatzi, azken  
folioa balitz bezala goizko-  
rrian urkatuko zaituztelako;  
idatzi, zure balizko azken hi-  
tzak gogoz eta malkoz irakur-  
tzeko irrikitan dagoenarentzat;  
idatzi, zure barrenak hustu ar-  
te, goizaldetik aurrera ez baitu-  
zu gehiago idazterik izan-  
go; idatzi hori guztia, ur-  
katuko ez zaituztelako es-  
perantzarekin.

Mandamentuen antzera idazle gaztea-  
ren dekalogoia bitan laburbil daiteke:  
idatzi eta idatzi. Zerorrek aukeratu nola  
eta zertarako. Hori bai, camparia amaitu  
ondoren lantu-jorran ibili beharrean  
idazteari ekin, hori baita pagotxa, eta ez  
meatzariena!”

Orduan konturatu nintzen bela-  
rrietan aurikular bana zuela sartuta  
eta ezker belauneko dardarizoa ez  
zela tik nerbiosoa. Idazleaz gain mu-  
sika konpositorea ez ote zen izango,  
bada, Markos bezala?. Gazte hauek  
perrexilaren moduan saltsa guztie-  
tan sartuta baitabiltza. “Agur, mai-  
su”, esatearekin batera alde egin zuen  
sorbaldak mugituz balantzaren plate-  
rak bailiran.

**Alfredo Rodriguez Landa**



## • Ondo idazteko, zer egin? •

Gauza asko, baina lasai, ez estutu, jorratu beharreko ibilbide luzean norezkan ibil ez gaitezen Gotzon Garatek aholku batzuk emango dizkigu-eta.

• **Lehenengo puntua.** *Zaletasuna.* Gogoz kontra ezin da ezer egin. Idazlea izan nahi duenak idazteko beharra izango du. Sabeleko mamorro gosetia ate joka arituko zaio etengabe, eta behin eta berriro idazteko ate zabaldu behar izango dio asetuko badu.

• **Bigarren puntua.** *Irakurri eta idatzi.* Bikotekide bereiztezin horren ondoan bizi izaten ohituko gara, baldin eta txukun idatzi nahi badugu.

Hasiera batean liburu errazak, gustukoak irakurri, eta ahal dela, poliki. Zerbait ondo esanda baldin badago, interesgarria iruditzen bazaizu, azpimarratu edota kuaderno batean idatzi, horrela berriro irakurtzen baduzu altxor baten antzera gordetako pasarteak baino ez dituzu irakurriko.

Behin liburu errazak irakurri ostean, literatura balio handia duten liburuak bakarrik irakurri. Ez irakurri literatura merkea. Hasi, esaterako, idazle klasikoekin: Cervantes, Gabriel Garcia Marquez, Faulkner, Flaubert... Egungo egunean ospe handia duten idazleen liburuak irakurri. Horrelakoen liburuak irakurri gero, beti ikasiko duzu zerbait. Gauzak nola esaten dituzten; zer nolako ikuspuntua duten; kont-



Gotzon Garate.

laria nor den... Eta honekin batera, idatzi, idatzi, eta idatzi. Kirolariak euren sasoi puntuari eusteko, zer egiten dute, bada? Jardun. Aritu. Orduak sartu. Bada, idazle ona izan nahi duenak egunero-egunero idatzi behar izango du, eta horrekin batera, egunero irakurri.

• **Hirugarren puntua.** *Teoria.* Iparamerikan oso zabalduta dago elaberri buruzko teoria irakurtzea. William Faulkner-ek idatzitako lanen gainean kritika asko egin dira. Horrelako idazleen kritika irakurri ta ikasten da nola idatzi, esaldiak nola osatu, elaberriak nola eraiki, kontalariak nola erabili: orojakilea, hirugarren pertsona subjektiboa, lehengo pertsona... Punta-puntako idazleek nola idatzi dituzten liburuak jakiteak guri mesede handia egingo digu.

• **Laugarren puntua.** *Zertaz idatzi.* Idazteko zentzu guztiak ipini behar izango ditugu dantzan, eta ahal badugu munduan barna ibiliko gara hemendik eta handik ikusten duguna xurgatzeko bai etxean, bai kanpoan gauza interesgarri asko gertatzen baitira. Beraz, bizitza berak emango digu aukera idazteko eta hori dena elaberrietan txertatuko dugu.

• **Bosgarren puntua.** *Euskera aberastu.* Euskeraz txukun idazteko iturriko ur gozoa edan behar da. Inolako kalterik sortuko ez duen ur gardena dastatu. Baserritarrekin mintzatu, gaztelezaz gaizki mintzatzen diren zazpi lurraldeetako euskaldunekin hitz egin, eta idazle klasikoak irakurri: Axular, Leizarraga, Etxepare... Horrelakoen liburuak irakurri, egun, galduta dauden esamoldeak, aditzak... ikasteko aukera izango duzu. Eta AUSPOA argitaletxeok argitaratutako liburuak irakurri, bertan idazten dutenak euskaldun peto-petoak baitira.

• **Bukatze.** *Ekin lanari.* Berrikerak alde batera utzi eta ekin lanari. Esandako guztia gogoan baduzu idazle ona izan zaitezke. Inoiz txapelketaren batean parte hartzen baduzu eta saririk ez baduzu irabazten, ez etsi, Dostoievski, Flaubert saririk izan gabe oso idazle onak izan dira-eta.

Juan Luis Mugertza

**Euskal literaturaren erreferentzia nagusia**

**www.idazleak.org**



**Euskal Idazleen Elkarte**

Zurriola Hiribidea, 14-1. ezk • 20002 DONOSTIA • Tel.: 943 27.69.99 • Faxa: 943 27.72.88

## • Ezkerra eskuinaren aurretik •

**Eguzkiak gogor berotzen du Laku Handien lurraldean, eta berez, Murchinson urjauzietan hasten da Nilo ibaia-  
ren igerialdia. Baina zein da ibaiaren jaiotze puntu zeha-  
tza? Misterioa.**

Nilo ibaia, zibilizazio garrantzitsuen sehaska da, Afrika beltzaren eta musulmanaren arteko zubia (muga?, gerra pizgarria?), eta, aretzari bizia ematen diona. Uganda, Kenia, Etiopia eta Sudan bustitzen ditu, baita Misr ere, Egipto.

Faraioen (gizonezko zein emakumezkoak) aztarnak Niloren bi ertzetan banatzen dira. Sortaldekoan, tenpluak eta jauregiak daude, eta eguzkia sartzten den aldean, hillobiak eta heriotzarekin zerikusia duten monumentuak.

Herrialdea bisitatzeko orduan dudak sor daitezke, bai, jarraitu beharreko norabidearen gainean, zein erabili beharreko bitartekoei buruzkoak. Goitik hasi eta hegoaldean bukatu, ala behetik hasi eta gorantz joan? Kotxea alokatu, bidaia autobusez egin, edota itsasontzi bat hartu?

Historiaren logika alde batera utziz (fokoak ez dira berdinak izan garai guztietan), guri, ibaiaren isuria jarraitzea egokitu zitzaigun, hots, Goi Egiptotik Behe Egiptora joatea.

“Astra” itsasontzia Asuan-en utzi (nubioen lurraldearen ertza da) eta goizaldeko 03:00etan Abu Simbel-erantz irten ginen. Bertan, Ramses II eta bere emazteetako baten, Nefertari-ren (eta ez Nefertiti), tenplu biak ikusi genituen. Hauen barnekaldean zerbait kurioa somatu nuen. Jakina da Egiptoko irudien estatismoa, “frontalismoaren legea” pinturan... baina zergatik zeukaten hango figura guztiek ezkerreko hanka aurrerantz botata? Misterioa.

Hurrengo egunean ez genuen goiz jaiki behar izan; bostak laurden gutxiagotan. Kom Omboko tenplua eta bertako baxu-erliebeetako tresneria kirurgikoa ikusi, eta Edfura (Horus jainkoa gurtzen da bertako tenpluan eta hemen ere irudiek ezkerreko hanka aurreratuagoa zeukaten). Esnan, *esklusa* bat pasatzeko txanda hartu behar delako, 28 ordu itsasontzi barruan geldi eta irten gabe egon ostean (gastroenteritisa zutenentzako ondo, besteontzat ez hainbeste), ondorengo geldiuena Luxor. Erregeen bailarara joan ginen. Mikroondasa! 40 gradu inguru zeuden, eta hilobi barruetan 47 (tripalak zeukatenak orain deshidrataturik). Hatsepsut-en tenplura joan, Karnak-era... eta gauean, hegazkina hartu eta Kairora. Islamiko da, afrikarra, otomandarra, kristaua, judutarra, mediterranearra... 17.000.000 biztanle (kontabilizatuak)

dauzka, handia da, interesgarria, kontraste-duna, zaila bertan bizitzeko eta errepideak kaos bat. Semaforo batzuk badaude baina alferrik: argi berdearekin aurrera, laranjaekin ere pasa, eta gorriarekin pasa, baina arreta gehiago jarri. Eta kontuz trabesean datozen frutaz beteriko asto-gurdiekin!

Zoramen guzti horretatik aldentzeko, espiluz beteriko “Fishawi” kafetegi ezagunera joan ginen te bat hartzera. Kafetegi honetan, Naguib Mahfuz “garaiko literatura arabiarraren aitak” nobelak idatziak omen dauzka. (Nobelez gain, antzerkia, zinemarako gidioak eta beste hainbat genero landu izan ditu.) 1972. urtean, *Letra Egipziarren Sari Nazionala* irabazi eta Errepublikako lepokoa eman zioten. 1988an aldiz, *Nobel Saria* jaso zuen. Dena den, Kairoko auzo zahar-zahar batean jaiotako idazleak bere herrian ez du erabateko onarpenik izan. Esaterako, *Gure auzoko seme-alabak* (1959) lana, guztiz ofiziala ez zen egunkari batean agertu zen zatika. Liburu oso eta bakar bat bezala Beirut-en argitaratu zen lehengoz 1969. urtean. Liburu honek debekatuta jarraitzen du Egipton. Bestetik, 1994an, *Yarna Islamiya* talde integristako fanatikoren batek eraso egin zion. Ordu-tik, bista eta entzumena erdi galduak dauzka, eta beso bat ezin dezake mugitu.

Edalontzian menta orritxoak besterik gelditzen ez zirenean, Mohamed Aliren mezkitarantz abiatu ginen. Zapatak kendu, gorputza estali eta hain erabilia zegoen alfombra gorrixkan eseri ginen. Gorantz begiratu eta nire pentsamenduetan galdu nintzen. A zer nolako nahastea neukan. Leku, monumentu, jainko eta izen sobredosia! Mene, Zoser, Keops, Kefren, Mikerinos, Amenofis IV, Ramses II, Osiris, Isis, Horus... Eta aste betez loa kendu zidan galdera berriro: zer demontre zeukan ezkerreko hankak eskuinekoak ez zeukana? Misterioa. Zergatik zegoen errepresentazio guzti-guztietan justu ezkerreko oina eskuinekoa baino aurrerago?

Harek zerbait serioa izan behar zuen, gauza bera milaka urtetan zehar behin eta berriz errepikatu izan delako. Misterioa?

Eta zu, zein hankarekin hasten zara oinez?



5  
Normalkuntza  
Katalana, euskara  
eta Europako  
Konstituzioa.

6  
Idazkiak  
Instrukzioak idaz-  
teko gomendioak.

25  
Ba al zenekien?  
Lazarraga:  
Arabako poeta  
zahar gaztea.

## Jon Sistiaga, gerra-kazetaria:

“Iraken jazotakoak sistema osoa hankaz gora utzi du, eta hori guztia gertatu da jaun batek eta haren adiskideek, Nazio Batuen aholkuak aintzat hartu gabe, gerra piztea erabaki zutelako”



Urteak eman ditu gerra batetik bestera Jon Sistiagak. Irakekoa ere gertu-gertutik bizi izan du; zoritxarrez, hantxe utzi behar izan du José Couso, bere lankide eta lagun mina. *Ninguna guerra se parece a otra* liburuan bere esperientzietan oinarritutako hausnarketak jaso nahi izan ditu, eta agerian utzi zer nolako zailtasunak dituen kazetari batek lana ondo egin ahal izateko, besteak beste, zentsurak dakartzanak. Kazetari gipuzkoarrak ondo erakutsi digu kazetari aparta dela, eta, ageri-agerikoa denez, arteza ere badela.

10. or.

## Euskal abizenen inguruko kontu batzuk

Berrogei mila abizen inguru sortu ditugu euskaldunok; hogei mila, besterik ez, txinatarrak. Alde bikaina, dudarik gabe, denok baitakigu zenbat milioi lagun bizi diren Txinan. Hala ere, horietako asko abizen beraren aldaerak besterik ez dira, adibidez: Etxeberria, Etxeberri, Etxaberri, Etxabarria, Etxebarri, Etxebarria, Echeverría, Echeverri, Echeberria, Echavarría, Echávarri, Chávarri, Etcheverry, Etcheberri, Jaberrri, Javier... Bistan gelditzen da, beste behin ere, euskararen herriak izan duen –eta duen– zatiketa administratiboa: hizkuntzari dagokionez, behinik behin, herri antolatu gabearena. Abizenak, ugari, eta abizen-jatorri-ikertzaileak ere, ugari. Lanbide horretan, bada, adi ibili beharra dago, hiztegi asko txarrak direlako, eta zaila delako, askotan, jatorriak jatorriak diren zehaztea.

13. or.

## Eztabaida! Non dago eskola- porrotaren giltza?

Hezkuntza-sistemak hobekuntza handiak egin ditu. Gero eta baliabide gehiago dituzte ikasleek ikasketak egiteko, baina batzuek ez dituzte eskolan jarritako aurreikuspenak betetzen: ez dituzte ikasgaiak gainditzen, arreta gutxi jartzen dute eskolan, eta sarritan ikasteari ere utzi egiten diote. Porrota zerk eragiten duen jakin nahi izan dugu oraingoan, eta, horretarako, eskolako gaietan aditu direngana jo dugu.

20. or.



## AZKEN SAIOA

**T**elefonoa joka ari da. Dagoeneko ezin dezake entzun bi metrotara duen Siemens-aren requiema. Erantzungailua aktibatu da. Ezezagun baten osabaren lagunaren eskelarako bertso bat jartzeko enkargua da.

Bada hogeit hamar urte hasi zela bertsolari izaten. Bertsolari edo auskalo zer. Izan ere, azkenaldian zerbait izan nahi eta norbait izatea ahantzi zaiola iruditzen zaio. Une eta toki bakoitzari dagokiona izan beharrak edozein unetan kameleoi jokatzera biziatu du. Kameleoi garden bat da. Eta ez dago batere gustura. Gehiegitan egin du bere buruaz beste, dela oholza gainean, dela oholzatik jaitzitakoan. Bolada luzea aritu da bere buruaz bera egin nahian; baina ezin. Horren karietara sortu zaio serieko harrokeria irentsi dion depresio sakona.

Bertsoaren unibertsoan zenbat eta dirdiratsua go, gero eta bazterrago utzi ditu betiko lagunak. Eta bera zena ere bai. Argazki zaharrei begiratu bat eman dien arte ez da horretaz ohartu, ordea. Ohartzeak ere lan du, egunero belarriak lausenguz estaltzen dizkizuten bost adiskide-gai berri ezagutzen dituzularik. Euliak hildakoen begi zabalduetara nola, hala hurbildu ohi zaizkio bertsozaleak, morbo gose. Saio batean bai eta hurrengoan ere bai, bertsozale ezezagun horiek auto estima gainezkatu diote. Gainezkatzea da, ordea, bere dosi minimoa. Bertsozaleek, komunikabideek... mila ispiluk bihurtu zuten ez zena: Txapelduna. Etxeko mirailean, aldiz, urteak dira inor ez dela ageri. Benetako adiskideen faltan, egun bateko lagun horiek bera ez zena badela sinisteko beharrezkoak bihurtu zaizkio. Baina duela hilabete jokaturako finalean sartu ez zenetik, euli asko airatu zaizkio, begiak itxi balitu bezala. Barruari so aritu da azken egunetan. Ezin dio eutsi izan zenari, ezta izan ez zenari ere.

Gaurko saioaren aurretik emakume bat hurreratu

zaio, duela bi urteko oroitzapena ezpainetan zuena. Berak ez du ezagutu. Famaren ohean mila maitasun istorio bizitu ditu. Historiaren bat ere bai. Baina putetxeak zituen gogokoen. Prostituta profesionalak berekin aritzen baitziren larrutan; bertso-afarien epilogo-etakoak, ordea, txapeldunarekin. Erosoago zitzaion jotzea ezen ez joa izatea.

Azkenaldian, kazetari bat parean duen bakoitzean mintzatu da bere haurretaz. Bere haurrekin, ordea, badira hamahiru egun mintzo ez dela; emazteak haurrak hartu eta etxetik hanka egin zuenetik, hain juxtu. Hamahiru (zazpi gehi sei) egun dira galdu zuela sekula ukan ez zuen guztia.

Bukaerako agur baten modukoa izan da gaurko bere saioa. Bi eskuak atzealdean ditu korapilaturik, begirada ortzi-mugan eta ahoa bete bertso, zabal-zabalik. Kantuz ari da oraindik, garrasi mutu betean. Txaloka



*Bertsozaleek, komunikabideek... mila ispiluk bihurtu zuten ez zena: Txapelduna.*

hasi zaizkio euliak. Eta segidan, putreak balira bezala pausatu zaizkio gerrikoak lepoan eragin dion urratu odoltsuan. Ez daude txapelak bakarrik zintzilik.

**Karlos Aizpurua**

## PATU GAZIA

**O**gi zati bat jaten dudanean, zotina etortzen zait, hip, barkatu. Bakailaoa eskatzen dut beti afaltzeko, pil-pilean, usainagatik. Atzera begira bizi den itsasgizon ohia nauzu. Duen oro gainean daraman horietakoa: amaren aurpegiaren tatuai bere hileta egunean egin nuen. Beste besoko bihotzaren erdian Carmen jartzen duela uste dut. Ez dut noizkoa den gogoratzen.

Ez zait hitz egitea gehiegi gustatzen. Bakartia naizen arren, isiltasuna ez dut gogoko. Behin izan nuen emaztearekiko errespetuz, ez naiz berriro ezkondu. Lehen bai, txortan egin, haragi eta larruarenak Ingalaterran egitea atsegin nuen. Han ingelesez egiten baitute gehienek, hori gustuko dut.

Loak ez nau derrepentean harrapatzen. Afrikan bizi dela uste dut: han arinago hartzen ninduen. Hemen ron tragoskagatik izango ez balitz... Baina ez dut gehiegi edaten, ez pentsa: neurrian hartzen ditut nik ardoa eta rona. Erre..., hori bai, gehiegi erretzen dut. Begira nola ditudan hartzak. Horixkak, bi esketan gainera! Hip, barkatu, berriz ere, zotina. Txanponik ba al duzu solte? Makinarako.

Bakailaoa pil-pilean eskatu zuen afaltzeko. Bakailaoa bakardadearekin. Arrain artean emandako bizi-tza gazi-gozo baten ondorioz, usain umel eta sentsuala iruditzen zitzaion, hari zeriona. Nik berdina hartuko dut, esan nuen zigarrokina berpiztu nahi eta ezinean nola zebilen erreparatzen ari nintzen bitartean.

Islandian ibilia naiz gaztetan, jarraitu zuen. Ontzi handi horietako batean, kontatzen zidan. Ez omen zen barkuan ezertarako lekurik egoten. Lauenakako kabinetan egiten zuten lo, elkarrekin korapilatuta, hotzak hezurak herdoildu ez ziezazkien, aldamenekoen odolaren borborra eta tau-pada traketsen erritmoan arnastuz. Eztul artean. Itsasoak gazitu zidan azala



Itziar Muñoz

Argi izpirik gabeko kaiola batean giltzapetu naute gaur.

eta lehortu bihotza, oroitzen zuen malakorik gabeko itsasgizon zahartuak, begiak Errioxako ardotan bustitzen zituen artean.

Portu bakoitzean amorante bat izan ohi duten horietakoa ez, kontrara, portu bakarreko marinela zen, izanez, barkartia, maitalerik gabea. Orduka ordaintzen zituen haragiaren plazerak, akaso, ez dut oraindano halakorik ziurtatzerik izan. Itxura guztien arabera, ez zuen gustuko intimitateari kuxtatik irteten uztea. Mila portutako ehunka tabernatako barretan erdipurdika eserita imajina dezaket.

Gogoan dut eztarria alkoioletan bustia zuen arrats hartan afaltzen ari ginela, kontatu nahi izan zidana. Istorioren zati batzuk zotin artean narratu zizkidanez, ulertu ez niona nik neuk gaineratu dut.

Istorio bitxiak kontatzen zizkidan igande euritsuetan. Euritsuak ei ziren Islandiako oroimenak. Begi txikiekin narratzen zituen bertan jazotakoak. Gauza haiek guztiek logura ematen ziotela uste izaten nuen batzuetan. Izan ere, begi handiak zituen berez. Gizon mardula zen oso, azala zimurtua zuen, urteek atximurka egin izan

baliote bezala. Itsasoaren haserrealdi bakoitzak orban bat utzi izan balio, ez luke aurpegia zulatuagoa izango.

Emakume batekin izandako esperientzia kontatu nahian hasi zen. Neska bat ezagutu zuen. Hitz egitea besterik ez dut nahi, esan omen zion hasiera-hasieratik. Ordaindu beharko didazu hala ere pixpi. Noski, noski ulertzekoa da. Zigarroa piztu zuen, hatzazal gorrien artean. Beraz, pirata deabru itxura horrekin, eta hitz egitea bakarrik duzu gustuko? Kea emeki-emeki botatzen zuen artean, hankak zabaldu eta galdetu zion. Tira ba, zertaz mintzo gintezke? Berrogei urte inguruko andrearen izterretan begi niniak dantzan izango zituen arrantzaleak orduan: Ez dakit ba, bakarrik sentitzen naiz itsasontzitik kanpo.

Hizketaldi arineko neska otu ziztzaion ilegorri hura. Biak ere bakardadeak sortzen zien beltzune mingarriaren inguruan mintzatu ziren. Hogeitamar minutuak bete zirenean, joan beharra zeukala eta, ezin zuela luzaroan gelditu eta..., baina, emakumeak eskutik heldu zion eta indarrez oherantz eraman zuen itsasgizona.

Islandiatik iritsi berri zen arrantza-

leak, prakak erantzi aurretik, etxe hartatik alde egin zuen. Diru-zorro zahar-  
kitutik aurretik adostutakoa atera eta  
egongelako besaulkian utzi zituen bi  
bilete eta hanka arteko berotasuna.  
Portuko karriketan behera, aspaldiko  
gau hartan zebilen haizeak buru ur-  
dindua betirako hoztu ziola esan zi-  
dan ahopeka, jatetxeko mahaian erdi  
etzanda, edalontzi hutsa eskuartean  
zuela, loak hartu baino lehen.

Batera eman genuen azken gaua  
izan zen atzokoa. Madrila autoz eka-  
rri ninduen. Gaur epaitegira etorri da,  
abokatuarekin berriketan aritu da,

baina, ni isiltasunean besarkatu nau.  
Adiorik gabe, gero arte gezurti eta es-  
perantzagarri gabe. Arrainei ezkatat  
urtu arazteko moduko besarkada latz  
eta gogor bakar batez agurtu nau.  
*Hemen ez dago arnasterik.* Itsasontzi  
handiko kabinetan hiru egunez gil-  
tzapeturik egotea bezala omen zen,  
aire lodi eta astuna arnastezina egiten  
zitzaion.

Marmarrean ari zela iruditu zitzai-  
dan hasieran. Isildu egin zen bat-ba-  
tean. Bankuan eseri ginen. *Aspaldi  
Madrila etorri nintzen. Itsasoa utzi eta  
trena hartzen nuen lehen aldia zen. Gel-*

*tokira iristean, hanka lurtean jarri eta  
zerraldo erori nintzen, zorabiatuta buelta-  
ko biletea atera eta kostaldera egin nuen  
berriro ere. Ez nuen zerua ikusterik izan.  
Patu txarraren traza hartu nion orduan  
hiri honi eta hara non...*

Ni ez naiz trenez etorri, ez naiz  
zorabiatu, baina, argi izpirik gabeko  
kaiola batean giltzapetu naute gaur.  
Zerura begiratu nahi izan dut, aito-  
nak egin ez zuena lortu ahal izateko,  
baina ziega honen sabai zikinak ez dit  
ezer ikusten uzten.

*Josune Aranguren*

## LABARREKO SEKRETUA

**E**gunak berriz pertsiana altxatzerako *Goizeko Argi*  
arrantza-ontzia Ondartzabalko kaitik milia batzuk  
urrunduta egongo zen. Mila tonako zama astuna  
gainetik kendu duenaren arintasuna eta lasaitasuna sentitu  
zituen Jonek, lur mutur guztiak itsasoak irentsita irudikatze-  
rakoan. Giharrak erlaxatu, eta gasolio eta olio usainekin adis-  
kidezteko prestatu zen hurrengo portu arterainoko bidaide  
izango zituen eta.

Baporeak jabal nabigatzen zuen Numaren esku beltzara-  
nen eta begi zurien kontrolpean, patroia eta beste lau marinela  
lotan zeuden artean. Neurri guztietako puntu zuriak ageri  
ziren zeru sabaian, eta haien argira dantzan zirudien urak  
harat-honat akonpasatuan.

Jonek bere burua zoriondu zuen azken unean belarrietara-  
ko tapoiak hartzeaz gogoratu izanagatik. Motorearen durun-  
da erogarri litzaioke haiek gabe. Zarata hargatik ez balitz,  
amonak sehaskan kulunkatzen zueneko eztitasuna berbizi  
zezakeen. Begiak itxita, makina arteko zola umelean uzkurtu  
zen amonaren altzo epela sentitzeko. Atzera itzuli nahiko  
zukeen: ume bihurtu eta hutsetik hasi berriz hazten. Baina  
hori ezinezkoa izaki, inork ezagutuko ez zukeen lekura joan  
eta bizitza berri bat hastea zuen amets.

Egunak ez zuen inoiz bezalako argirik biztu orduko hartan.  
Laino zuriak taldeka bilduta presaz zihoazen norabait. Haiek  
joanda zerua gris eta triste geratu zen, negar egitetik hurbil.  
Haren aldarteek, baina, ez zeukaten sekreturik ontziaren biz-  
karrean zebiltzanentzako; hauek, haserretzeko keinua igarri  
ziotenean, sarea zabaldu zuten patroia esanetara. Ipar-

mendebalak ez zien asko lagundu eta egundoko esfortzua  
egin behar izan zuten bost gizonen. Izango al zuen ordainik  
egindakoak? Ez jakin! Itsasontziak arrain detektagailu eta  
tresneria hobereenez hornituta zeuden garaletan, arraina arras  
urri zebilen itsasoan. Arau asko lehorrean eta arrain gutxi  
itsasoan. Arrantzaleen azken baladak ziruditen, sardinaren  
egiazko ehorzketa bizitzeko atarian.

Mozkorraldi batetik bezala esnatu zen Jon. Denbora joan  
zen bere burua aurkitu zuenerako. Itsasontzia gelditako zegoela-  
ko irudikapena izan zuen orduan. Lur hartuta ote zeuden?  
Hezurak zuzentze aldera alboko leihatilara hurbiltzekotan  
zela, oin-hotsak entzun zituen burdinezko eskaileran behera.  
Giharretako minari eustea nahiko ez eta, arnasari eutsi behar  
izan zion.

Urak harro zebiltzan itsasontzira jauzika. Haizea eta euria  
nor baino nor festa animatzaileago. Bost txano - hori sarekada  
altxatzeko ahaleginetan madarikazioka. Zenbatzeko adina  
arrain txiki dardarti eta egurrezko lau kaxa, ez preseski arrai-  
netarako erabili ohi direnak, ekarri zizkien sareak. Arraina ez  
beste dena zegoela orain itsasoan pentsatu zuen marineletan  
zimurtuenak. Patroiak, aldiz, dena ontziratzeko eta galerna  
etorri baino lehen berriz sarea uretaratzeko agindu zien.

Marinelak elkarri begiratu zioten, baina inor ez zen ausartu  
desobeditzera. Felix jubilatuta, patroia berriarekin itsasoratzen  
ziren lehen aldia zen. Hala ere, marmar bat baino gehiago ito  
zen haien ahoetan. Hogeita hamar urtez arrantzuan zebilen  
Peliri, ez besteei, ez zitzaien sekula halakorik egokitu. Biga-  
ren sarekadan beste hiru kaxa etorri ziren eta hirugarrenean

bi. Lau eta hiru zazpi eta bi bederatzi. Patroiak laugarren aldiz bota arazi zien sarea baina ezer ez. Bosgarren aldi batez ere bai, berrehun bat metro ekialderago, baina alferrik.

Hamargarrenik gabe etsi behar izan zuen Julian Galparsorok ardiak ihes egin dion otsoak baino zaputzago. Esana zioten J. Galvez ezagutzen zutenek, haren hamarrekoa bederatzi izaten zela ematerakoan eta hamaika hartzerakoan, eta argi ibiltzeko harekin tratutan hasterakoan. Itsasoan aurki zatekeen bale sabel handienarekin eta marrazo hortz zorrotzekin irudikatu zuen mafiosoaren erretratua Julianek. Geroxeago, tenplea bereganatuta agindu zehatzak eta zorrotzak luzatu zizkien jokoz kanpo eta konplizitatearen arrak barrenjanean zituzten marinelei. Itsasotik bizi nahi bazuten hark emandakoa hartu beharko zutelako zioen galdera baino baieztapena gehiago zenaz akuilatu zituen.

Hauts zuridun plastikozko poltsak lekua hartzen joan ziren arrain eta gela artean. Numaren beso sendoek aise tolestatu zituen hozkailuan. Jonek makina tartetik kaxak zenbatzen entretenitu zuen tripa-zorria. Baporea abantean jarri izanaren abisua pasatu zion heste lodi hustuen goragaleak. Zenbat falta ote zen lur hartzeko? Luze zihoakion bidaia, aspergarri eta deseroso, abiadura handiko treneko makina gelako billetea ez hartzeaz damutzerainoko lain. Loak denbora bizkortu ohi duela eta amonaren altzoko epelera itzultzea erabaki zuen.

Altoa baina, umel zegoen oraingoan. Txikiagoa ere ba zela esango zukeen. Sakonera gutxiagokoa eta ez horren mami-tua. Zorrotada epel itsaskor bat sentitu zuen masailean behe-ra; Klararen magalean zegoeneko etorri zitzaion gogora. Hura isil-isilik zegoen; panpina bezain mutu. Jonek, hala ere, haren ahots urratua entzuten jarraitzen zuen:

- *Lagunak izatekotan geratu ginen*-. Baina Jonek ez zuen agendako laguna izan nahi; Jonek, Toni delako harroputza bistaratu aurretik bezain lagun izaten jarraitu nahi zuen. Horregatik egin zuen egin zuena Pirinioetan alokatutako bungalow hartan. Horregatik gero, besoetan hartu eta zumitzezko besaulki loratuan jesarri zuen erregina bat bailitzan. Bere erregina. Berea eta ez besterena. Txakur leiala etxe-jaunaren oinetan bezain ferekatzaile jarri zitzaion eta magalaren epelean baretu zuen burua.

Gozo eta ezti jarraituko zukeen likido hotz likin hark eragindako hotzikarak kontzientziaren begiak ireki izan ez balizkio. Itsaso Gorriaren erdian naufragatuta bezalako zirrararen sentitu zuen orduan. Ezabatu ezina ezabatzen saiatu zen ondorengo orduetan, eta egunak lehen argiak piztu ordu-rako herrirako bidean jarri zuen autoa. Horretarako, gauean, egonaldia ordaindu eta goizean goiz partituko zirela esanda utzi zuen kanpineko nagusia. Ez zegoen, beraz, susmorik eragiterik. Itsasertza lehenbailehen harrapatzeko grinak gidatzen zuen ford gorria. Bihurgunez bihurgune Klarak oso maite zuen labarrera jo zuen. Nudistak ez ziren beste bi hilabetetan



*Hauts zuridun plastikozko poltsak lekua hartzen joan ziren arrain eta gela artean.*

handik azalduko; beraz, bakarrik egongo ziren, hara joan ohi ziren gehienetan bezalaxe. Besoetan hartu eta urertzean etzan zuen. Gero, mimo handiz garbitu eta lehortu ondoren mitxoleta gorritz estanpatutako soinekoa jantzi zion. Eder zegoen Klara; beti bezain eder, edo are ederrago orduan, amets zerutiarren batean galduta zirudiela. Hain gogoko zuen paradisu-uan utzi zuen bainua hartzen.

Merveilleuxeko portuan inoiz ez lako jendetza ageri zen. Bandera ingelesa aireratzen zuen beste itsasontzi hark aurrea hartu eta deskargan ari zela pentsatu zuten *Goiz-Argikoek*. Halako jendetzarik; ez eta balea harrapatu balute ere! Julian Galparsoro, ordea, jendarme usaia hartzen hasita zegoen. Uniformatuak ugari ziren nasa aldean, baina ez zegoen atzera egiterik. Gainera, zerbaitek arreata guztia bereganatuta zeuzkan guztiak eta inoiz baino samurragoa izan zitekeen begiralerik gabe kargamentua hustea. Sakelako telefonoa erabili zuen bertan beharko zukeen kami-dunari deitzeko. Bitartean, ehun emakume inguruk labankada haien egilea larrutu nahi zuten. Hogei bat poliziak euren armak zorrotik atera eta tiroak jaurti behar izan zituzten aire-ra mendeku uholdea geldiarazteko. Tripulazio ingelesa aurkitutakoaren zehaztasunak ematen ari zitzaion itsas komandanteari. Eszenaren erdian, gorpu bat toldo urdinaren gainean altxatzeko agindua eman behar zuen epailearen zain. Festatukoaren zantzurik ez zuen buila hark ezkutalekutik irten arazi zuen Jon, eta itsasontzia hutsik zegoelakoan kabinako leihotik begiratu zuen tentu handiz, inork ikusi ez zezan. Mitxoleta gorri busti batzuk besterik ez zituen ikusi. Besterik ez zuen ikusi izan nahi. Kaiko ur oliotsuan kolpeko pulunpatze bat entzun zen itsasontziaren popa aldean. -*Uretara! Jauzi egin du uretara!*- Deiadar hura arimaren ahotik aterra zitzaidan. Sekretu batzuk ezin direla sekretu izan, eta ezin direla gorde konturatu nintzen. Ez betirako behintzat.

## HOTZ DA LURRAREN ERTZETAN



*Paradisutik irten eta ifernuetara igotzeko tiketa erosi zuen, bueltarik gabea.*

**F**ur izango nintzela erabaki zuten arra edo emea suertatuko nintzen jakin baino lehenago. Fur edo F.U.R., Finisterre, Ushuaia eta Rovaniemi batzen zituen izen laburrena delako jarri zidatela imajinatzea gustoko dut.

### Finisterre

Hamabost urterekin bakarrik bidaiatu nuen lehen aldiz. Santiagok, aita zenak, bere azken borondatea zirriborratu zuen pleguan, oso argi adierazi zuen han IZAN nahi zuela betiko.

Haren errautsak munduaren amaieran sakabanatu beharra zela eta, bidaiara luze bati ekin nion. Nire senari aurrea hartu izan banio, hegazkinez joan izango nintzatekeen, baina ez. Setatia izaki, barneko ahotsari kasu egin eta hamabost egunetako abentura hasi nuen nire jaioterrian.

### Rovaniemi

*Minä olen suomalainen.* Finlandiarra naizela alajaina. Ia-ia laponiarra. Ia-ia

mapa-mundiaren goiko muturretik kanpokoak. Bizitzaren extrarradiokoa. Planeta honetatik atekoa. Munduan atzerritarra, ni.

Etxean hotz egiten zuen. Amama Lauraren sukaldean bai goxo. Epela zen, janari usaiez hornitutako paretak zituelako agian. Gurean ordea ez zen giro. Lana, jana eta loa; loa, jana eta lana. Jana beti lana eta loaren artean. Ordena. Logika. Kronologia. Paretako erloju alemaniar zaharraren hotsak eta kexuak. Hotz egiten zuen etxeko gela guztietan.

Bertan, Rovaniemin, amak eta Santiagok, kasualitatez edo, Ipar Polo batera koroatu zuten. Ospatzeko, ni munduratu ninduten ia hamar hilabeteren buruan, elkar ezagutu zuten puntu berean: Zirkulu Polar Artikoan.

Argentinarra Santiago, euskalduna Ane, finlandiarra ni, zirkuluan gu.

### Ushuaia

Lurraren amaiera azpi hiru.

Ezagutzen ez nituen aiton-amonek

ostatua zuten han. Santiago han jaio zen. Jende eta hizkuntza arrotzen artean murgilduta, portuan korrika, oso bakarrik.

Santiagok kontatzen zizkidan ipuinegatik irudi distortsionatu bat besterik ez nuen bihotzean lurralde hari buruz.

Dragoi, munstro eta lami ederren arteko orgia eta gudei buruzko kondairez jositako muga. Paisaia polit orearen Meka. Errezorako leku aproposa.

Portu txikia duela uste dut nik, baina bisitaz gainezka imajina dezaket: marinelak, Patagonia zaldiz gurutzatu duten ipar-amerikano gizenak, gona motzdun neska gazteak, urtemugak ospatzearen jet pribatuetan iritsitako aberatsak eta Santiago, beste muturre-ra saltoka edo igeri joateko desioaren berri edonori ematen, edozein hizkuntzatan, edonon, edonoiz.

### Finisterre

Lurraren beste muturreko muga ezagutu nahi zuen Santiagok zenbait aldi-



tan marinelei entzun baitzien hari buruz marmarrean. Aitak, hamazortzi urte betetzean joaten utziko ziola agindu zion, baina ez zuen esana bete eta semeak, hogeitabat bete zituenean, barku bateko kamarote bat okupatu zuen. Paradisutik irten eta ifernuetara igotzeko tiketa erosi zuen, bueltarik gabea.

### Rovaniemi

Laku izoztuan bainua hartzen zuen Anek, saunaren ondoren. Euskal Herria utzi zuenetik, ohitura hori zuen. Ur hotzetan malko garratzak goxo bihurtzen ziren. Orbanak desagertu, bihotza gogortu eta zatitan hautsi. Ez zion ezerk minik egiten.

### Finisterre

Iritsi nintzenean, Santiago zenak milaka bider deskribatutako moduan egin nahi izan nuen ibilbidea, hark ikusitako lekuak marraztu, hark zapaldutako harriak sentitu... baina ezin.

Santiagok hogeitaz urte lehenago eza gutu zuen mutur hura, eta nahi edo ez, berandu nenbilen. Horretan ere aurrea hartu zidan.

Denbora gazia zen. Itsasoak minutuak bustiko balitu bezala, pisuak izan ziren han pasatako berrogeitazortzi orduak. Baita aita nuenaren errautsak itsasora sakabanatu ostean ere. Nire mataza beltzean hiru ile urdindu aurkitu nituen bueltako treneko komune-ko ispi luaren aurrean orrazten ari nintzela.

### Rovaniemi

Ama, amama Lauraren etxean utzi nuenean, irribarre txiki baten antza hartu nien haren ezpainei. Agian nire irudimen hutsa zen, baina ezetz pentsatu nahi nuen. Ama gustora eta lasai zegoela Laurarekin, bazekiela Santiago ondo zainduko nuela helmugara iritsi arte eta ez nuela haren errautsik bueltan finlandiaratuko nire arropen artean edo.

Berotasunez agurtu ninduten ata-



*Ur hotzetan malko garratzak goxo bihurtzen ziren. Orbanak desagertu, bihotza gogortu eta zatitan hautsi.*

rian. *Ongi joan* esan nahi izango zuten agian eta malko bi jaurti akaso, bakoitzak bana. Baina ez zuten hitzik edo malkorik sortzea lortu. Lehorrak zeuden. Santiagok pixkanaka lehortu zituen. Santiago lehorra munduko gune umelenean utzi nuen ironiaren mantupean.

Ondoren buelta hartu nuen. Egun eta erdira Laura eta Ane berrikusi eta Frantziako ur bedeinkatua eman nien oparitan: Santiago, urrun. Ura, gertu.

### Ushuaia

Santiago zenaren etxean ez zen giro, ez behintzat haur batentzako modukorik. Askok, azkar eta gaizki ikasia eta bizia izan zen aita zena.

Haren gurasoen azala, nik inoiz ere ezagutu ez nituenena, haize hotzak gogortua zegoen. Baina Santiago, aurrepegi leunek erakartzen zuten. Kanean zebiltzan pertsonen leuntasuna imajinatzea gustatzen zitzaion. Begirada lizun bat nahikoa zitzaion batetik hamarrerako eskalan balorazioa emateko. Amets errepikakorrek izaten zituen portuko Lisaren azal beltzarekin. Beroa pasatzen zuen gauetan eta ibiltzera joaten zen Lisa non eta norekin arituko zen pentsatzen zuen bitartean. Santiagok kontatzen zuenez, bera 12

urteko mutil koxkor bat besterik ez zen Lisa hartu zuenean. Neskak bost edo sei gehiago izango zituela gehienez ere. Haren bularrak ukitzera iritsi baino lehen jakin zuen emakume leuna zela.

### Rovaniemi

Anerekin ezkondata egonagatik ere, finlandiarren leuntasunaz gozatzeari ez zion sekula utzi Santiagok. Haren hainbat afizio aski ezagunak ziren inguruetan. Hainbeste bazekiten bizilagunek: gauza arraroak egiten zituen gizon arraroa zen Santiago.

Edo ez, eta oraindik ere arraroa da; eta ez da hil; eta amak lehortzen eta sofritzen jarraitzen du eta larunbata da; eta bizilagunek belarriak gure parretan dauzkate; eta ni gelan ezkutatu naiz; eta telefonoa eskuan dudala zain nago: kaleko atea noiz entzungo, ama hartu eta amamaren sukalde epelera eramateko.

Kondairak kondaira eta ipuinak ipuin direneko lurra atzean utzi eta alde egiteko. Nire munduko mugetatik kanpo, munstro eta dragoiak errauts bihurtzen dituen suaren alboran ihes egiteko.

*Josune Aranguren*

## • TXORI-HEGODUN TXIMELETA ERRALDOIAK •

**E**guzki izpiak laino artetik atera ziren astiro-astiro, isil-isilik. Beso disdiratsu haiek basoko hosto hezeak laz-tandu zituzten. Belar artetik ia arnasarik hartu gabe atera nintzen, geldiro-geldiro, otsoek ardiak inguratzten dituztenean bezala, isilik. Beso distiratsuengana joan nintzen, umea amaren beso gozoetara bezala. Hantxe nintzen agureak esandako Kuhalaren erdi-erdian. Orduantxe inguratu ninduten: orlegi, hori, urdin, larrosak. Neure belarri masailetan sentitzen nituen haien hego apurkorren laztanak, hego haien pla-pla. Geldi nuen nik burua eta lepoa, azkarra aldiz eskuin besoa. Zas! hogeibat Malasiar tximeleta erraldoi harrapatu nituen sarepean: orlegi, hori, urdin, larrosak.

Bukatuak nituen aspaldi Arte Ederretako ikasketak Leioako unibertsitatean. Egunean bi otordutarako lain banuen, baina moko finekoa nintzen jaiotzetik eta gauza garestiak nituen gustoko; leihoz beteriko etxea desiratzen nuen Bilboko kale nagusian, *Goizeko kabi*-ko jateko gozoa mahai gainean, eta beste batzuek egini-ko arte ederrak inguruan. Nire *Obra* nuen faltan, horixe zen nire aberastasunen atea irekiko zuen giltza preziatua. Ahalegin ugariak eginak nituen jadanik, Caravaggioren antzeko per-

tsonaiak San Frantsizko kalean, Fragonard-en aingeru itxurako umeak Indautxuko jolastokietan, baina dena alferrik. Disdira falta zitzaien margo haiei, disdira baino gehiago garra; garra baino gehiago kolorea, bizia.

Apirileko egun euritsu horietako batean sarri bisitatzen nuen malasiar jate-txera joan nintzen afaltzera. Bertako atsoak ondo ezagutzen ninduen, ez gustoko ninduelako, oirdaindu gabeko afarien zorra elur pilotamaldan behera baino arinago hazten zihoalako baikizik. Nik ere ez nuen bera gehiegi atsegin, hala ere onartu beharra dut atso haren istorioek bazutela xarma berezi bat. Bere jatorrizko herri eta inguruetako istori ikaragarriak kontatzen zituen etengabe. Malasiarren ohitura eta bizimodu koloretsuak imajinatuz oheratzen nintzen gauero, eta nire bizimoduaren iluntasunez esnatzen goizero.

Baina apirileko gau euritsu haretako istorioak nire bizi-norabidea aldatu zuen erabat bidegurutze eta baso misteriotsuetan zehar abiatuz. Atsoak bazuen nire *Obra* lortu nahiaren berri, eta agian berari zor nionna kitatzeko aukera ikusi zuen istorio hori aukeratzean. Ez dakit, kontua da aurretiaz egindako margo-ei falta zitzaiena eskuratze-ko bidea azaldu zidala.

Ba omen da Malasian,

Penang izeneko herri bat. Bertako Kuhala basoan txori-hegoak dituzten tximeleta erraldoi batzuk omen daude. Gutxi batzuk dute tximeleta hauen berri mendaldeko kultura honetan, gutxiagok oraindik Euskal Herrian, eta bakarra ni neu egun euritsu batean, Bailen kaleko jate-txe malasiarreen ekaitzaren ondorioz dar-dar batean ari ziren argi ahul artean, aginik ez eta tximurrez aberatsa zen atso malasiar batek kontatutako istorioa sinistuko lukeen pertsona. Tximeleta hauen hegoak lau koloretakoak bakarrik dira, orlegi, hori, urdin eta larrosak. Baina, atsoak esan zidanez, kolore hauen bizitasun eta edertasunak gainontzeko koloreak ahaztera eramaten du tximeleta hauek ikusteko aukera duen pertsona.

Atsoak bost urte inguru zituenean, adin bereko mutil itsuaren istorioa entzun zuen. Ikusmena jaiotzetik galdua zuen mutiko honek eta goiz batean Kaluha basoan zehar zihoala bapatean, txori-hegodun tximeleta erraldoiek inguratu zuten. Ez zituen tximeletak ikusten baina haien hego erraldoien laztanak somatzen zituen aurpegi, beso eta eskuetan. Eta tximeleta haiek bere inguruan zera-biltzen dantzaz zoroak sortutako pla-pla soinua entzuten zuen. Mutiko itsua negarrez hasi zen haren dan-

tza koloretsu ederrak ikusi ezinagatik. Jainkoa berataz errukitu omen zen eta ikusmena eman zion bost urteko mutiko hari. Hala ere, ikusmena bereganatu orduko desagertu ziren txori-hegodun tximeletak. Eta haren hegoen pla-pla gozoa besterik ez zuen entzun mutikoak bere bizitza osoan zehar. Atsoak esan zidan oraindik ere, haien bila zebilela bost urteko mutiko hura, jadanik agurre bihurtuta.

Ekaitzak argiak itzali zituen jate-txean.


–"Entzun dudanez tximeleta hauen hegoetako hautsez margoak lor daitetzeke. Sekula ikusi ez dituzun kolore biziak. Joan zaitetz hara eta ordaindu zor dizkidazun afariak, zeken horrek!"

Halaxe heldu nintzen etxe gorri, berde, horiz beteriko Penang herrira. Ostatu hartu nuen etxe urdin batean, eta herrian zehar ibiltzeko alokatu nuen bizikleta laranja. Gauza bakarra nuen buruan hona heltzean, mutiko itsu izandako agurea aurkitzea, eta tximeleta erraldoi haiek harrapatzea. Baina nire asmoek Bilbon izandako larritasuna galdu zuten kolore eta usain berriez beteriko herrian. Goizean goiz esnatzen nintzen eta bizikleta harturik hautsez eta motor txiki zaratatsuez beteriko karriketari zehar aritzen nintzen, bertako umeen al-

garak eta txakurren zaunkez mozkortu arte. Ostatuan ez zuten jaten ematen eta jaubeak kaleko postuetan saltzen ziren jateko gozoak dastatzera animatzen ninduen. Harro zeuden Penango bizilagunak bertako emakumeen edertasunaz eta kalean saltzen zen jateko ezin hobeez. Eta hementxe, Penango kale estuetako postuetan ezagutu eta dastatu nituen malasiar jaki ederrak: Satay, Nasi Dagang, Char Kway Teow eta gustukoen nuen Curry Laksa. *Nongoa ote zen Bailen kaleko jatetxe malasiarreko atsoa?* galdetzen nion neure buruari irribarrez, baina orduan, irribarrea ezpain okertu bihurtu zen, eta aurpegiko malizia harrizko mozorro. Ironiak amorru eta susmoari ireki zion bidea. Egia ote zen atsoak kontatutako istorioa? Larritzen hasia nintzen eta bidaia alferrik egin ote nuen pentsatze hutsak egun pare batez lo egin ezinik utzi ninduen. Kenduko nizkion atso hari nik, aurpegi eta gorputz osoko tximurrak, bai kolpetik atera ere goi ezpaina kilikatzen zion bibe bote beltza ere.

Baina orduan, martxoko lehenengo egunean, eguzkiak zerua laranja margotu zuen goiz umel batean, inongo helburu jakinik gabe Kaluha basora heldu nintzen nire bizikleta laranja. Hasieran ez nuen inor ikusi, baina entzun entzuten nituen zuhaitz artean pausu leun batzuk. Kaluha eta biok bakarrik

geunden, hori uste nuen nik behintzat, baina baziurdi konpania berri bat ere bagenuela, han nonbait. Bizkar hezurretik behera hotzikara bat sentitu nuen. Zer ote zen sustrai artean zebilen hori, malasiar animala exotikoren bat? Agian, Kek Lok Si tenploan egunez gorderik dauden sugaek gaueko ibilaldirik etxera bueltatu gabe zeuden oraindik? Ez naiz herri siniskertara oso emana, baina zarata misteriozuz babesteko nuen



gauza bakarra gosariari eusteko kaleko dendariak emandako platano azala nuen, eta bizikleta laranja bat. Honelako egoeretan folklore, errito eta sinismen guztiak zientzia zehatz bihurtzen dira, eta norberaren adorea gezurrezko, faltsu, aurkitu ezina.

Bapatean malasiar bat agertu zen aurrean nituen zuhaitz artean eta gizaki

itxura osoa bazuen ere, "Ai ama!" eme bat atera zitzaidan eunuko baten parekoa. Ni bai ni mutila!

Malasiarra niri begira begira geratu zitzaidan, eta ni hari. Amorante bi bezala. Hala ere ez zen nire gustukoa, burusoila, aurpegia piku helduegi baten antzera tximurtua, eta bularririk ez. Gizonezkoa. Sare bat zeraman eskuan eta hirurogei urte ingurukoa zirudien. Buruan banuen nik berarentzako bikote egokia, elkarri tximurrak lantzeko behintzat. Orduantxe, sarritan hutsik ote dagoen galdetzen dudan buru honetan argi txiki-txiki bat piztu zen. Bera ote

nire keinu zoroak ulertzeko esfortzu gehiegi egin behar zuelako, edota agian ni nintzelako berak txikitan kontatutako istorioa sinistruen zoro bakarra. Arrazoiak arrazoi, eman zidan Kuhala baso haretan ezkutatzen ziren txori-hegodun tximeleta erraldoien berri. Erraldoiak bai, baina beste inork ikusi ez zituenak. Bazegoela baso erdian gune bat zuhaitzez inguratua, ilun eta hezea. Goizeko eguzkiaren printzak bertan lurreratzen omen ziren lehenengoz, eta hantxe zela, orain dela hirurogei urte eguzkiak aurpegia eta bizkarrara epel-epel lantandu eta tximeleta erraldotiek bere inguruan Akelarre zoroa dantzatu zuten gunea.

Ilundu orduko joan nintzen Kuhala basora, laster aurkitu ere aurkitu nuen agureak azaldutako gunea. Lurrean estalki batez babestu eta etzan nintzen. Harrapatuko nituen tximeleta horiek. Gaur ez bazen bihar, bihar ez bazen etzi, eta etzi ez bazen etzi-remun. Ez nuen presarik. Zer ziren egunak aberastanaren giltza lortzeko bidaian? Loak laster hartu ninduen, baina begiak itxi orduko belarriek somatu zuten zuhaitz inguruetan nonbait, soinu gozoa plaplá, plá-plá...

## SANDIAK

**E**makumearen bainujantzia polita da. Berde argia, hantzenka sandia gorri erditituak dituena. Golkoaren ube formak bularralde edertzen dio. Zertxobait lotsatuta erantzi ditu arropak: galtza zuriak lehenengo eta gero, brusa loredua, horrela zutik erantztea biluzik geratzea bailitzan, toailan eseri da eta poliki-poliki botoi guztiak askatzen joan da.

- Bikinia ere polita zen. Beharbada hura erosi behar nuen- gizonari begiratu dio-. Hobeto horrela, tripatxoa pixka bat ezkutatuta.

Gizonak goxo moztu dio:

- Zoragarri zaude. Itzel.

Masailak gorritu zaizkio emakumeari eta begirada makurtu du irribarre txiki batez.

- Ea koloretxoarekin bueltatzen garen etxera.

Gizonak atzetik hurbilduta musu bat pausatu dio garondoan. Gero, bere toaila emakumearenaren ondolan zabaldua, etzan egin da. Emakumeak hozkirria sentitu du bizkarrezurretik behera.

*Amaren bainujantzia oso polita da. Berde argia. Borobil gorriak ere baditu. Amak esan zuen sandiak zirela, oso goxoak eta freskoak, eta orain udan jateko oso aproposak. Hemendik oso ondo ikusten dira sandiak. Aitak lehentxeago horixe esan dit: "urruntzen bazara bilatu borobil gorriak". Kuboarekin uretarantz abiatu naizenean froga egin dut; pixka bat beldurtuta, hemen jende asko dagoe-lako. Eta bai, hantxe zeuden amaren sandiak eta aita berari musu ematen.*

*Sandiazko izozkirik badagoen galdetu behar diot amari. Eta baldin badago, bi bola dituzten horietako bat erosteko eskatuko diot. Horrela gero, oporretatik bueltan, sandiazko izozkia jan dudala kontatu ahal izango dut eskolan. Bi bola gainera. Andereño Martak ea zer koloreta-*

*koa den galdetuko dit eta nik gorria esango diot. Orduan berak irribarre egingo dit eta ni oso pozik egongo naiz, baina bero handia izango dut aurpegian. Andereño Martak irribarre egiten didanean bero handia sentitzen dut aurpegian beti. Eta batzuetan hotza. Sorbaldak bat-batean mugitu egiten zaizkit eta badirudi norbait luma batez ari dela nire bizkarrean goitik beheraino. Baina hori batez ere bere kontra estutu ninduen hartan.*


Krema zorrotada nabaritu du emakumeak bizkarretik behera. Hotz dago, baina ez da hori izan nerbioak loratu dizkiona, gizonaren eskuak gora eta behera sentitzea baizik. Ba-

tez ere gerri inguruan alboetarantz hurbildu direnean, hatz puntak sabelaldearen mugak ukitu dituztenean. Begiak itxita, inguruko hotsetan jarri du arreta. Olatuen zurrumurrua isolatu nahian ibili da baina umeen oihuak, elkarrizketak, irrati aparatuetako musika gailendu zaizkio. Berrero eseri eta uretarantz begiratu du.

- Eta paseotxo bat emango bagenu uretzetik?- eskuaz gizonaren bularraldeko biloak txirikordatzen ditu jolasean-. Umeari izozki bat erosi...

- Orain?- bere eskuaz emakumearena hartu du eta bular gainean pausatu.

-... .



-Ea, ba. Goazen.

*Harea gorputzera itsatsita daukat eta ez zait gustatzen. Hazka eta hazka egin da ere ezin dut kendu eta ris-ras nabaritzen dut, belaunen atzean batez ere, eseri edo kokoriko jartzen naizenean. Gainera, ez daukat ia lekurik jolasteko. Eskolako patioan baino jende gehiago dago hemen. Aldea da baloiaz kolpea hartuz gero hemen ez dagoela andereño Martarik. Eta beraz ez dago besarkadarik, ez estutzerik, ez musurik kopetan, ez pixkanaka lasaitzerik, ez burua bere bular epeletan ezkutatzerik. Amari ere asko gustatzen zaio andereño Marta. Neska gazte hauek oso ondo prestatuta ateratzen direla unibertsitatetik. Hori esan zion aitari. Eta oso inpresio ona egin ziola. Andereño Marta oso polita da. Ama ere bai. Eta sandia gorriekin are politago. Batez ere ea izozkirik nahi dudan galdetzen didanean.*

Hirukotea poliki dabil, zoriontsu.

Gizonak emakumeari sorbaldeetatik heltzen dio. Jende asko dabilenez beraganantz estutu behar du tarteka, aurrera egingo badute. Umea aurretik doa salto txikiak emanaz. Eten-gabeko zipriztinak sortzen ditu, uretan sartu eta atera. Zipriztin txikiak, hala ere, beste batzuek sortzen dituztenekin konparatuta. Bikote gazte horren aldean, adibidez.

Kalapita handia sortu du neskek mutilak eskuez bizkarrezurretik behera ura bota dionean. Kalapitak ez ezik, bikinirik gabeko bere bularralde oparoak eta kulerotxo beltzen bi alboetara hedatzen diren ipurmasailek ere erakarri dituzte inguruko begiradak. Familiarenak ere bai, noski.

Umeak instintiboki eskua eman dio amari. Amak eskua estutu eta beraganantz erakarri du. Gizonak uler-

tzen ez duenaren aurpegia du. Hasiere batean zurtuta geratu bada ere, berehala hirukotearengana hurbildu da neska. Irribarre herabea du ezpainetan.

- Hau kasualitatea- urduri, eskuinteko besoa bularraldearen aurrean gurutzaturik, ezkerreko belarritakoa ukitzen du etengabe.

- Kaixo, Marta- esan dio emakumeak. Gizonari zuzendu zaio gero. Roberto, neska hau da...

- Ah...bai, bai- gizonak ere urduri ematen du.

*Andereño Marta gorri-gorri ikusten dudana lehenengo aldia da. Aita ere gorritu da pixka bat eta amak haserre begiratu dio. Nik kristoren beroa sentitzen dut aurpegian. Eta negar egiteko gogo ikaragarria.*

*Isabel Etxeberria*

## • MAREA BIZIAK •

**L** ikidotik solidorarteko bide horretan luze xamar ibili nintzen. Ur haiek poliki poliki igaro nituen; beti hala ere, atzerapausurik gabe. Erdi-hautsita sentitzen nuen barrera. Alde batetik, umetasuna amaitzeaz. Bestalde, heldutasuneko ateak ia zabalik. Bitartean, ni zeru erdibitu hartan igerian.

Bi mundu ezberdin haiek lotuta zeuden nonbait; hala eta guztiz ere, lurbera berdinean zeuden bi ludi haien urak zeharo desberdinak ziren. Bata, itsas-kumea hain zuzen ere, gardena zen, argia, fede txarrik gabea. Bestea, hau da, itsasgizona, berriz, ilunagoa zen, higatuagoa zegoen eta gorabehera gehiago izaten zituen.

Eremu haiek ni ohartu baino lehen bat egin zuten. Ibaiak itsasoan isuri zituen bere urak eta horrela bi alorrak

nahasi ziren. Itsasoratze hartan uhinen abiadura areagotu zein moteltzen zen, beti ere, umorea gidari zutelarik.

Sarritan hondoraturiko itsasuntzia banintz bezala sentitzen nintzen mundu erreala zen ozeano hartan. Bihotza zatituta neukan. Ez nekien zeini kasu egin. Heldu izan nahi nuen, baina inola ere ezin nuen haur hura abandonatu. Gogoko nuen aurreko bizitza; haatik, ezinegona sortzen zidaten bizi izatera nihoan berritasun guzti haiek. Zorionez, ondoko ibaiadarrek ederki ulertzen ninduten, beraiek ere egoera beretsuan zeudelako. Batzuk besteei entzuten genien eta guztiok aholkulari apartak bihurtu ginen.

Bitartean Ekiñek ordu dexente igaro zituen ikuskizun haiei so egiten. Bere zabaltza zen zerutik ezer gutxi egin zezakeen. Nolanahi ere, lan makala egi-

ten zuen nire ustez, bihotz-altxagarriz izan zitezkeen argi-izpiak bidaltzen baitzizkien nire barneko bizilagun ziren izadiko bi lurtiar haiei. Urak haserre edota ezinegonean zeuden une haietan zerua izan nuen entzule eta noski, hori izango dut inoiz ere ahantzi.

*Itxaso Azpeitia*



## • BAKAILAOA PIL-PILEAN •

**S** ukaldean zaude, bakailaoa prestatzen. Bakailaoa, bakarrik jateko prestatzen ez den platera. Herenegun erosi zenuen, 36 ordu eman behar du uretan, eta egunean, hiru bider aldatu behar diozu ura. Gezatutakoan ez-katak eta arantzak kendu, astiro-astiro, maitasuna egiten egongo bazina lez. Ze latza eta garratza badirudi ere ez da halakoa, leuna da oso, bere laztanen modukoa. Bera, gaur dator afaltzen.

Buztinezko lapikoa, berakata eta olioia prest daukazu, olioak ona behar du izan, bakailaoarekin bat egingo badu.

Su geldoan, lapikoa ipini, olioia eta berakatzekin, bitartean, musika apur bat. Long Johnen cd-a aukeratu duzu, ondo datorkizulakoan, zeuri ere, berarekin bat egiten lagundu zizun.

Long Johnen kontzertua datorkizu burura, zigarroa piztu eta txikito bat hartzen duzula. Long John 73 urteko gitarrajolea. Ez zenekien nor zen, baina egunkarian ziotenaren arabera, ona izan behar. 50 urte gitarra jotzen, pentsatu zenuen zeure golkorako. Eta beste barik, kontzerturako sarrera erostea erabaki eta halaxe egin zenuen.

Heldu da kontzerturako gaua. Metroa hartu eta bazoaz Kafe Antzokira. Zirimiria ari du, aurpegia freskatu dizu eta ondo baino hobeto sentitzen zara, bizirik aspaldiko partez. Ez dakizu gauak zer dakarren, baina berdin dizu.

Aretoa jendez gainezka dago. Argia amatatu eta eskentokiaren erdi-erdian foko urdin bat piztu dute. Long John ater da, jendea txaloka, gitarra darama aldean. Gitarra aurkeztu du, foko urdinaren azpian, gitarra, jendea berriro txaloka, eta jotzen hasi da. Hobeto esateko, gitarrak jotzen du Long John, bera da gaueko protagonista .

Kontzertua entzuten zaudela gizon bat hurbildu zaizu. Ea bakarrik zauden galdetu dizu. Eta zuk baietz. Harrituta, ea zer dela-eta zure moduko emakume bat bakarrik? Zeurea bai dela martxarako gogo! Gustuko duela zure dantzan egiteko modua! Ez duela sekula halakorik ikusi ! Bai ederra zarela! (behiak trenari begira bezala) bla, bla, bla, betiko kaparrada. (En fin xy, neuk ere maite zaituztet).

Bera, Eibarkoa da, taldekoekin egiten du lan. Kontzertua amaitu ostean, berarekin zerbait hartzera gonbidatzen zaitu. Eta zuk baietz, zergatik ez? Eta jarraitzen duzu dantzan. Bera irribarretsu.

Kontzertua bukatu denean, zerbait hartzera joan zarete beste taberna batera, eta hortik beste batera. Gaueko ordu txikietan etxera eramango zaituela diotsu, autoaren bila zoazte.

Gogorak egiten zaizkizu gau hartako oroitzapenak, txupada bat ematen diozu zigarroari eta ardo-zurrupada bat hartzen duzu. Lapikoa zirrikituz beteta dago, baina berdin

dizu, ez duzu umorerik. Olioia irakiten hasi da, berakatzak botatzean olioien zipriztinek erre zaituzte. Joder! Nazkatuta.

Lapikoari kea dario, olioia lar bero dago eta berakatzak erre zaizkizu. Erreta ateratzen dituzu eta olioia epeltzen utzi barik, bakailaoa botatzen duzu. Joder! Ostera ere erre zara, besoak, oraindik, ubelduz beteak dituzu, besoak eta gorputz osoa. Min egin zizun, barkatu ezin diozun mina.

Berriro datorkizu burura gau hura, ezin duzu burutik kendu. Autora igo zinen, eta orduan hasi zen dena. Etxerako bidea hartu beharrean Artxandarakoa hartu zuenean, bizkarrezurretik gora ziztada moduko hotzikara sentitu zenuen. Konturatzerako berandu zen, urduri, mesedez atzera itzultzeko esan zenion, baina alferrik. Autoa estrata baten sartu eta gelditu zuen, betiere irribarretsu. Zuk beldurtuta begiratzen zenion, bere begiek ikaratzen zintuzten, une batetik bestera, bere onetik aterako zela ematen zuen. Zure gainean jauzi eta mihiaz aurpegia miazkatzen hasi zitzaizun. Zu ezin sinetsirik zer gertatzen ari zen, oihuka hasi zinen. Berak koplak ez egiteko, gauez bakarrik ateratzen den emakume batek badakiela zer daukan, eta berriro zure gainean, arropa erazten saiatu zen. Zu, are asaldatuago, zure senetik aterata ostikoka hasi zinen. Orduan, berak labana atera zuen eta lerdokeriarik ez egiteko esan zizun, alde zurretik bazenekiela zertara zindoazen. Zu, sutan.

Plaka ere sutan duzu, lapikoari zirrikituren batetik olioia joan zaio eta sua hartu du. Bakailaoa madarikatua! Lapikoa egurrezko taularen gainean utzi eta sua amatatzen duzu. Ardoari beste zurrupada bat ematen diozu ea lasaitzen zaren. Gorrotoa, nazka, mina, ezintasuna. Lapikoari eragiten diozu, etsita.


Etsita, zure garrasiak inork entzungo ez zintuelakoan eta bere zoro aurpegia ikusirik, amore eman zenuen. Bere irribarre eta begirada likitsak gogoratzen dituzu. Adur zeriola, kuleroak apurtu zizkizun, jarraian, prakak eta galtzontziloak kendu, eta jauzi egin zuen zure gainean. Ondoan, labana ikusi zenuen, ezin zenuen ezer egin. Zakila sartu nahi izan zizunean, ezin izan zuen, alua, zeharo itxita zenuen amorruren amorruez. Artean, sutan.

Sutan jarri duzu berriro bakailaoa. Eragin eta eragin ibili arren ez du jelatarik isuri. Frijituta geratu da, honezkero ez duzu uste jelatarik aterako duenik. Beste zigarro bat, beste ardo-zurrupada bat, ernegatuta.

Ernegatuta jipoitu zintuen, memeloarena ez egiteko, emagalduta halakoa! Ez zenuen ezer egiterik. Azkenean, indarraren indarrez, sartu zizun zakila, erotuta balego moduan. Barnean zerbait apurtu zizula sentitu zenuen

**Bakailoa txakolinez (Busca Isusik, Lapurdin)**

- 200 g tipula, 3 porrum zurkila eta 6 baratxuri xehe-xehe ebakita, erregosi su ezlan, 2 dL oliotan.
- Zuritu 3 patata eta ebaki xerratan. Barazkiak gorritzen hasten direnean, erantsi patatak eta 200 g tomate-saltsa, eta jarrai sutan.
- Berotu hau dena eta estali txakolinez. Joitsi su behearino.
- Ipini gainean 600 g bakailao pusketatan, azala gorantz. Eduki pil-pilean, ontzia estalita. Begina ezazu, tarteka.
- Patata egosi denean, erantsi linoi erdlaren zukua, perrexil xehea gainetik eta utzi, estalita, bi minutuz.
- Bizi eta bitxi geratzen da, ez da «egungo zaporrak».



Dorribere Lehtizuru

eta apurtzarekin batera, min lazgarria. Aurpegia lerdez eta odolez beteta, haziaren usainarekin batera, higuin-garria, oso. Nirekin honek ez dauka zerikusirik pentsatu zenuen zeure baitan, baina sentitzen zenuena kontrakoa zen. Zure barnea, zure gorputza mindua, ubelduz betea, bertan (behera) utzi zintuen. Hanka egin zuen, ezer egin izan ez balu bezala. Larrutik ordaindu zenuen kontzertua.

Orain, sukaldean, bakarrik zaude, ez zara ausartzen inori ezer esaten, ezina, mina, gorrotoa, nazka...bakailaoa ere zakarrontzira botatzeko moduan. Negarrez. Zergatik galdetzen diozu zeure buruari, behin eta berriro.

Edo ez, bera ez da horrelakoa, zure bizitzako irrika berbera du, berak ere bizia arnasten du. Tabernaz taberna ibili zarete, ostatura heldu arte. Orain damu duzu horrenbeste edan izana, sentsazioak osotasunean gozatu gura ohi dituzu.

Kuzinatzea gozaten duzun bezala. Berakatzak, astiro, frijitzen ari dira, mimoz begiratzen diezu, berari so egiten zenion lez. Bitartean, gau hura datorkizu burura.

Ostatuko gelan zaudete, ohe gainean eserita, begiz begi. Orain ez dago musikarik, ezta zer esatekorik ere. Berak nahiko sutsu musu bat eman gura dizu, baina zuk ezetz, ez diozu uzten, itxoiteko diotsozu. Argia piztuta utzi duzue, elkarri hobeto begiratzeko. Eta berakatzari azala kendu diozun leuntasunez kendu diozue arropa elkarri. Bera, atzera, zu musukatzen saiatu da, baina zuk ezetz, ez diozu uzten, itxoiteko diotsozu.

Zeuk agintzen duzu.

Berakatzak gorritu direnean, atera eta olio epeltzen utzi duzu, bitartean, ardoari beste zurrupada bat ematen diozu. Ardoa usaindu, eta ezpainetara eramaten duzu, ardoaren zapoarekin bere lehenengo musuaren zapo-rea berpizten duzu.

Bere gorputza ukitzen hasi zara eta bera zurea, bakailaoak hasiera batean olio ukitzen duen moduan. Poliki-poliki, emekiro.

Atzamarrak dar-dar dituzue, nondik hasi ez dakizuela. Zuk, besoak ferekatu dizkiozu lehenago eta gero gorputz osoa, larruazalaren eta ileen ukitua gustuko duzu eta bera laztantzean sentitzen duzuna, ukimenaren bidez adierazi nahi diozu, zure atzamarrekin. Lehenengo izerdi tantekin batera, bere azala, ukitu leunekoa bilakatu da. Aretoan ikusi zenion irribarrea desagertu da, zure atzamarrek ahuldu egin dute. Lapikoa mugitzean, bakailaoaren gogortasuna desagertzen den moduan, lehenengo jelatina tantekin, gero eta leunagoa. Baina, aldi berean, odola irakiten du, berriro zu musukatzen saiatu da. Eta zuk ezetz diozu, astiro, lasaitzeko.

Zeuk agintzen duzu.

Olio irakiten hasi denean, lapikoa atera duzu. Long Johnen musikaz lagunduta, lapikoari eragiten diozu. Mugitzean, lehenengo jelatina tantak, izerdi tantak.

Berak ere ferekatu zaitu, lepotik hasi eta beherantz doa, titietara heldu arte. Zure azala, jelatinazkoa balitz bezala ukitu du, titiburuetara ailegatu denean, odola irakiten jarri dizu.

Olio, berriro duzu irakiten, lapikoa atera eta eragin, jelatina errez ateratzen zaio, eta jelatinarekin usaina.

Izerditan hasi zara, izerdiarekin batera usaina darizue, usain goxoa, gazi-geza. Zuen gorputzak puntu-puntu daudelarik ematen diozu musu bat, lehenengo masaillean, gero aho ertzean, oraindik ezpainak ukitu barik. Berak ez daki zer egin, ezpainak, ezbaian ditu.

Zeuk agintzen duzu.

Bakailaori ere gero eta jelatina gehiago dario. Long John gustatu zaio. Jarraitzen duzu lapikoa mugitzen, musikaz lagunduta, dantzan egiten duzun bitartean. Gutxi falta da, berak ere une batetik bestera atea joko du.

Jelatina, izerdia, usaina, bakailaoaren, gorputzen mugimendua, zaporea. Elkarri musuka, mihia eta ezpainekin gozoa hartzen diezue zuen gorputzei, aho-gustu gozoa. Dagoeneko, gorputz atalak berez doaz, zeuk ere ez duzu agintzen eta gorputz atal bakoitza dagokionaren bila dabil, astiro. Gorputzek badakite eta euren bidea jarraitzen dute bat egin arte, jelatina guztia isuri arte. Une batez geldirik geratu zarete bat eginda, une hori harrapatu nahian. Baina berak unaturik, atsedena behar du. Bakailaoak ere bat egin du olioarekin eta bere jelatina guztia isuri denean, atsedena hartu du.

Atsedena, Long John. Atea jo dute, bera da. Atea zabalitzen diozu, hortxe dago irribarretsu, eta zuk zeure baitan, bakailaoa prestatzen gozatu zaitut.

## GORA ETA BEHERA

**S**argori dago. Txarargaren doinu alaiak entzuten dira ez oso urrutitik. Etxe ondoko plazarantz doa Amara. Hamabost urte gehiago balitu, giro horrek ez luke erakarriko eta nahiago luke etxean geratu. Baina bizi ez duena bizitzeko duen grinak dena ezalitzen du, bai izerdia, bai txarargaren hots burrunbaria. Pozez zorutzen dago. Ezkerreko belarritik eskuinekoraino zabaltzen da bere irribarrea. Herriko jaiak hastear dira eta gaurkoa izango du bere lehen parranda. Kostata, baina gaueko ordu biak bitartean bizitza dastatzeko tregoa eman diote gurasoek. Helduen gisan ibili ahal izango da lehen aldiz. Heldu sentituko da, Ainhoa bizikletan zebilela eta hari segika patin gainean maldan behera zihola, hankartetik behera isuri zitzaion odolak sentiarazi ez zuen moduan. Plazara doazen eskailerak jaistera doala, osaba ikusi du eta are zabalago egin zaio irribarrea. Bere osaba Karlos da, bere osaba kuttunena. Mila eta bat aldiz 18 urte betetakoan haren nobia egingo den galdetu diona. Hala nahi luke Amarak: 18 urte bete, Karlo-sengana bildu eta haren diskoak gau eta egun entzun. Todo lo que me gusta es ilegal, inmoral o engorda... Baina badaki bion arteko ametsa dela, amets hutsa eta horrexegatik ez dela inoiz gertatuko.

Aspaldian ez da etorri osaba bisitan eta sekulako amorrua eman dio haren konpainiaz ez gozatzeak. Baina berak heldu azaldu nahi du Karlosen aurrean, horregatik erabaki du

lagunengana joatea, aurreikusitako moduan. Ondo pasa jaitan eta ez izan maltzurregia mutilekin —esan dio Karlosek—. Zer izan nahi duzun erabaki al duzu? Ezetz erantzun dio Amarak, oraindik zailantzan dagoela. Ateratzen dituzun notekin, idazkari ezgero! —esan dio jostari osabak—. Muxu ematen diote elkarri eta badoaz. Bere bidetik bakoitza.

Lagunak ikusi ditu eta haiengana luzatu du pausoa. Eskailerak jaitsi aurretik baina, atzera begiratu du eta osaba lurtean datzala ikusi du.

-Aaaaaaa!!!!

Jauzi batean ohean eseri da. Eskerrak bakarrik dagoen, bestela tinpanoak zulatuko zizkion aldameneko koitaduari. Izututa esnatu da Amara. Izerdi patsetan dago, ilea koipetsua du. Ez du dutxarrik hartu azken hiru egunetan. Baina ez daki hiru, zazpi edo hamabost egun pasa ote diren. Kontua galdu du. Gogoia lapurtu balioten igaro ditu azken asteak. Amets bera errepikatzen zaio behin eta berriz, ezin du burutik kendu, horixe bakarrik daki. Ezin baitu labirintoaren irteera aurkitu. Agian ez du izango, eta halaxe geratuko da betirako. Baina badaki guzti honek arrazoi bat duela eta burutik nahasita badabil ere, ez du etsi nahi. Ez da bere buruaz fio ordea, ez daki lortuko duen, aski indar izango duen lehengora itzultzeko. Badira hiru hila-bete bajaran dagoela. Sindrome bipolarra.



Ezin du tripetan duen korapiloa askatu eta horrela jarraitzen badu tortolosean aritzeko baino ez du balio izango. Zigarroak besterik ez dizkio eskatzen sabeleko ogasunak eta horixe pentsatu du, zigarro bat erre behar duela. Lucky Strike bat hartu du mesanotxetik. Hura piztu eta ezinegona baretzen saiatu da, baina ez du erdietsi. Erdi etsi du.

Isiltasun sargoria logelan. Motel doa denbora. Hutsik du burua. Duela hamar minutuko burutazioak ahaztu zaizkio. Malko batek ihes egin dio masailetik behera.

Behera...

... Bularrera iritsi zaio eta hura lehortzen hasi da ezker eskuaz. Leun, poliki. Eskuineko bularra ezker eskuaz.

Utzi egin du. Ez du gogorik.

Berriz etzan da eta buruko pitin bat zutitu du. Beste malko batek kokotserainoko bidea egin du. Ezin du lo egin. Egin, ezer ere ez. Ezer tarako gogorik ez. Negar zotinka hasi da. Ihes egin nahi du. Urruti. Behobia korrituta ere, ez luke halako arnas esturik. Mesanotxera egin dio ihes eskuak, beste zigarro baten bila. Baina agortu egin zaizkio. Ezinegona Amarak jabetu da. Beste krisi bat datorkio. Tabako paketearen ezkerretara mugitu du eskuia eta Plenur potoa hartu du. Egunean hiru hartu behar ditu, baina gutxiegi iruditu zaizkio. Bat, bi eta hiru. Dozena bat hartu du ahurrean eta barrura, bulimiko baten



lehen jaunartzea balitz. Mal-koek kimikazko ogiak barneratzen lagundu diote.

Ilun da kanpoan eta burua nahastuta du. Oroime-naren bidezidorrak gurut-zatu egiten dira Amara-ren buruan. Ez da filma munta-tzeko gai, baina lasaiago da-go. Arnasak ez du estutzen. Geldo nabari du gorputza, burua, bizitza. Oso geldo. Begiak ixten ari zaizkio. Ezin die betazalei eutsi.

*Iskanbila da etxean. Aztoratuta dator ama sukaldara. Telefono deiak kirioak dantzan jarri dizkio. Ahizpa eta ni galdezka ari gatzazkio, baina ez digu ezer esaten. Badakigu zerbait izugarria gertatu dela. Guk ere jakin nahi dugu. Aitarene zain da ama. Berehala da etor-*

*tzekoa lanetik. Heldu da eta egongelan sartu dira biak, atea itxita. Bertan eman dituzten minutu gutxiak betierekoak dira guretzako. Badatoz azkenean. Lasai egoteko, zerbait kontatu behar digutela, alabaina lasai egoteko. Ez dela agertu. Karlosek lanean behar zuela atzo, baina ez zela agertu. Are gehiago, ez zuela Amezketarako bidea egin. Ez dakitela non dagoen, desagertuta dagoela. Ahizparen negarrek denboraren zentzua aldrebesten dute. Ez da Karlo-sen R4aren arrastorik. Deiak, mila telefono dei eta ez dakitzen bat gehiago. Osaba Manuel igo da eta osaba Pedro polizi etxera joan da. Autoa inork ikusi ote duen iragarkia paratu dute Diario Vascon. Baserritar batek ikusi duela. Autoa bakarrik iku-*

*si duela, Larraitzerako bide bazterrean aparkatuta. Denak joan dira ziztu bizian. Izeba Marire-nera eraman gaituzte bazkaltze-ra. Arratsaldeko lehen orduan eskegi du izebak telefonoa. Gaua bertan pasako dugula. Osaba ondo dagoen ez digu erantzun nahi. Goizean etorri dira gurasoak izebarenera. Osaba hil dela, heroina gaintosiak akabatu duela. Uzten ari zela, baina ezin zuela gehiago. Asko maite gintuela gogoratzeko eta berak ez gintuzkeela triste ikusi nahi. Gurekin batera sartu dira ohean gurasoak. Ahizpa eta biok ezin diogu negarrari eutsi. Haien laztanek ez gaituzte kontsolatzen. Eliza ondoko tabernan gaude, osaba Manuelek Karlosek gure irribarreak maite zituela dio, ezin diogula hari halako-*

*rik egin. Ezin dugu. Joan zaigu. Betirako. Disko gehiagorik ez, alkandora more gehiagorik ez. Ba al da udan galtzontzilo gabe bakeroak janzen dituen beste inor? Ahizparen negarrak ernegatu egiten nau. Nik ere ezin dut, ezin dut jasan.*

*Familiako multzotik atera dut eta estu-estu heldu diot. Izainen moduan gaude besarkatuta. Beste ezer, beste pertsonarik, beste garairik, beste lekurik, beste bizitarik ez balego bezala. Entzun eta errepikatu —egin diot garrasi ahizpari—: Todo lo que me gusta es ilegal, inmoral o engorda... Biok abesten dugu, kabaret batean bezain bizi. Eta ahizpari bizkarra ferekatzen diot. Gora eta behera.*

**Katixa Garate**

## AUTOKARDIOGRAFIA

**A**zkar doa denbora. Azkarregi igual. Egun tontoak eta ez hain tontoak dira nireak. Halere, 60 minutuko segundoak dira luzeenak. Benetako musu batek irauin dezake horrenbeste esaterako, edota benetako minak. Benetako segundoak dira luzeenak. Halere, beste segundoak, arin dabiltzan horiek alegia, ez dira batere gezurrezkoak.

Zer esango dizut ba. Ez entzun ez duzunik. Eta ez izatearren, esandakoak ez du estilo propiorik ere izango. Defendatzeko larregi dagoen arren argudiogintzan 8 master eginagaitik ez nintzateke formula egokiarekin une egokian emateko gai izango.

Ez naiz inoiz herritik atera baina Indiako emakumeak gizonetzkoak baino ederragoak iruditu izan zaizkit betidanik. Ez zaizkit autopistak gustatzen, ez naiz oso promesazalea eta ezetza baietza baino errezago ateratzen zait. Begirada argiak alai nazake, ilunak erakarri. Errukiazkoak ebitatu egiten ditut. Engantxatu? Irri batek. Ez dut batere memoria historikorik baina lagunik nekez ahazten dut. Ezezagun batzuek esandakoak ere grabatzen zaizkit. Neure burua sentitu izan dut inoiz leku arraro batean, azkenean arraro bakarra neu naizela sentitzeraino. Inoiz galdu izan naizela ere uste izan dut, horregaitik autopistengatik gorrotoa.

Kapitalismoaren kontrako berbaldu luzeetan erraz erortzen naiz.

Halere beti daramatzat pare bat txanpon patrikan: bat hiriko mosto ez hain merkea ordaintzeko. Isiltasunak sarri askotan hitz guztiek batera baino gehiago dio. Halere, ez dut ukatuko izan dudala inoiz berarekin amaitzeko tentaziorik: liburuteגי isilean aulkitik altxatu, eztarria karraskada jarrai pare batez garbitu, ahoa ireki eta zergaitik zergaitik, zer gaitik... ahots ozenez abestekoa.

Heldutasuna egun argiz zapata garbiekin ibiltzea bada akabo. Halere, oraindik ulertu ezinda nabil heldu gabe usteltzearena.

Egun tontoak ditut eta ez hain tontoak ere bai. Begiak baina sarritan busti izan zaizkit, pozez, eta tristeziak. Izan ere serioago jartzen ahaleginduta: enbidia pailazo tristearen irriak ernegatzen du gehien eta handiustea ez da inoiz etxean geratzen. Interesaren birusak bazter guztiak astindu ditu eta termometroa apurtu egin da. Entropiari motx geratu zaizkio eskalak, gora eta gora egin du merkurioaren astuntasun zanpatzaile berarekin.

Egun tontoak eta ez hain tontoak dira nireak. Tontakeriatarako gutxi dagoen arren. Bide zuzena darama, eta arina. Autopistak bezala denborak. Baina badira benetako segundoak. Egin ditzagun luze. Egin ditzagun eder. Segundoak. Haize honek hain erraz ustel ez gaitzan.

**Ainara Belaustegi**

## • ARRATSALDE LUZEETAN, TXOKOLATE ONENA •

**N**ahi al duk zigarro bat? Bai, bazekiat erretzeari utzi dioala. Neuk ere bai, hala esaten nian behintzat, baina gaur ez duk arratsalde ona erretzeari utzi dion gazte aspertu batentzat. Bihar, agian, berriz saiatuko nauk, baina gaur ezinezkoa duk. Nik ez diat sekula izan hik adina borondate gauza horietarako. Hik, berriz, esan eta egin. *Chapeau*. Erre egingo diat, orduan, ez bazaik inporta. Bazekiat ez duala nahi etxean erretzerik, gero kiratsa geratzen dela eta abar, baina behingoagatik utziko didak, ezta? Bestela, ez zekiat zer egingo dudan gaur; ezinegona zeukaat. Hau bai arratsalde luzea! Zerbait asmatu beharko diagu arratsaldea pasatzeko; etxean sartuta hainbeste denbora eman behar badugu...

Nahi al duk kartetan ibili? Ez, hobe ez, erretiratu pare emango genikek. Tristeegia, hogeita hamar urteko bikote batentzat. Telebistan ikusteko moduko ezer emango balute, behinik behin! Azkenean, gehixeago aurreztu, eta ordainduzko telebista hartu beharko diagu. Edo, hobeto pentsatuta, diru horrekin zinemara edo afaltzera ere joan gintezkek. Zenbat denbora da ez garela etxetik irten? Baina, orduan, gehixeago itxaron beharko diagu sofa berria erosteko. Eta, agian, egunero makarroiak jaten aritu beharrean, hobe zertxobait aldatu, eta itsas zaporen bat edo legatz freskoren bat ekarrita. Noiz jan genuen azkenekoz xerra? Zer zapore duen ere... Baina berdin zio, mikrouhin labea erostea lortu diagu, behintzat, eta orain ez diagu ontzirik zikindu beharko esnea berotzeko! Hil honetan ere erosi beharko diagu beste tresnaren bat! Oraindik asko falta zaiguk sukaldea janzteko! Baina ez esan kafegailua erosi behar du-



gunik, badakik ni ez naizela batere kafe zalea. Eta hiri ere ez zaik kome- ni, gero hortxe ibiltzen haiz-eta be-

giak bildu ezinik. Beraz, sentitzen diat, baina etxe zuloan sartuta eman behar badugu asteburu osoa, nik ere

probetxu atera nahi zioat aurreztutako diruari.

Zer iruditzen zaik ilea lehortzekoa? Aurki negua etorriko duk, eta ez duk batere ona kalean ilea bustita ibiltzea; hortik etortzen dituk gero katarroak. Zukugailua ere ez lukek gaizki etorriko. Gainera, osasunerako oso ona duk, eta hi beti ibiltzen haiz bitamina faltan. Edo, bestela, lisatzekoa; baina, orduan, ez diagu aitzakiarik izango, eta amak egin beharrean, geurok lisatu beharko diagu arropa. Badakik Mirenek amari eramaten diola garbitzeko arropa? Gurea ez duk hain larria. Beraz, beste hilabete batzuetan horrela jarraituta ere, ama ez duk kexatuko. Gainera, astialdiko diruarekin erosiko dugunez, beste zerbait dibertigarriagoa erosi beharko genikek. Zer moduz logelarako irrati txiki bat? Gauetan, loak hartu aurretuan, ondo etortzen duk musika pixka bat entzutea. Eta larunbat goizetan ohean egonean egoteko ere bai... Beno, bale, arrazoi duk; agian ez duk hain ideia ona. Azkenean, irratia entzutea ohituko gintuzkek eta ez genikek gauetan hizketaldirik egingo. Bai zaila gauza bakar bat aukeratu beharra! Dena falta, eta gauza bakar bat erabakitzerik ez!

Beharbada, Mirenek emango zidak gero ideiarenekin bat. Esan al diat Mirenekin geratu naizela? Baina, lasai, ez diagu diru askorik gastatuko; kanposantura gozak, eta ez erosketak egitera. Bai, berari galde-tuko zioat, hala izango diagu zertaz hitz egin; gainera, badakik bera ere gure gisa dabilela, eta, agian, oraindik pentsatu ez dugun zerbait ibilikodik buruan; bazekiat hiri ero samarra iruditzen zaiala; hala ere, aitortu behar didak beti izaten dituela ideia bitxiak. Bestela, orain lurrean eserita egon beharko genikek, eta, berari esker, flotagailu hauek baditiagu behintzat.

Baina bostak dituk oraindik, eta seietan egin diagu hitzordua. Ordu-bete oraindik! Bai luze egiten direla egun batzuk! Denbora neurtzen asmatu zuenak ez zekiat non zeukan burua; denontzat denbora bakarra dagoela pentsatzea ere! Ordulariak iruzur hutsa dituk; nor bere denboran bizi duk. Hi zein denboratan bizi haiz orain? Denborarik gabeko denboran, ziur. Bada, nik ere denbora oraindik asmatu ez duten munduan bizi nahi diat; hire denboran bizi nahi nitek. Orduan, ziur ez dudala izango halako arratsalde amaigaberik.

Sukaldera noak. Nahi al duk txokolatea? Barkatu, ahaztuta neukaan, ez zaik gustatzen otorduetatik kanpo ezer jatea. Bada, nik zerbaiten beharra diat gaur. Arratsalde hau ezin diat eramane. Hau moteltasuna! Txokolatea lagun ona duk horrelako egoeretarako. Gainera, txokolate hori osaba Gillermok ekarritakoa duk Suitzatik, goxo-goxoa, eta ez zagok hori ikusi eta jan gabe egoterik. Gu ere izan gintuan duela gutxi Suitzan, baina ez genioan ekarri hango txokolatea inori. Guk ere aste osoan ez genian probatu hango txokolaterik. Justu-justu behar genuena erosi, eta kito. Izugarri garestia zegoan dena, eta ez geundean gutziarik erosteko moduan. Osaba Gillermok badik dirua. Baina, egia esan, zuhur samarrak ere bagaituk; ez zuan hain garestia izango txokolate tableta bat!

Bazekiat! Suitzako argazkiak ekarriko ditiat. Hartara, bizkorrago pasatuko zaiguk denbora. Gainera, hik ez dituk oraindik ikusi! Herenegen errebelatu nitian, eta oso ondo atera dituk. Elurretakoak ez horrenbeste; eguzkiak atzetik jotzen zian, eta nik oraindik ez diat ikasi nola dabilen tramankulu hori, baina gainerakoetan oso ondo atera gaituk; batez ere hi, haizen bezalako xea atera haiz, natural-naturala. Dagoeneko aukeratu diat bat, handitu

eta gure gelan jartzeko. Marko doctore bat, horixe erosi beharko diagu azkenean, beste gauza guztiak ahaztuta!

(Etxeko txirrinak eten dio baka-  
rrikketa; errealitatera itzuli da sal-  
to batean irudimenezko bidaiatik,  
eta atea irekitzera joan da, loaldi  
sakonetik esnarazi duten lotiaren  
asalduraz. Miren da; beti bezala,  
ordu-orduan iritsi da, elizako kan-  
paiak arratsaldeko seiak jotzen ari  
direla).

- Seiak ba al dira? Azkenean, bai  
azkar pasatu zaidala denbora! Izan  
ere, batzuetan minutuak ordu egiten  
zaizkidan, eta besteetan orduak mi-  
nutu! Argazkiak ikusten ari gintuan  
Ernesto eta biok. Badakin, Sitzakoak.  
Ikusi nahi al ditun? Aspertuta geunde-  
nan, zer egin asmatu ezinik, eta azke-  
nean, argazkiak ikusiz bidaia berritza  
pentsatu dinagu. Hain ondo pasatu  
geninan! Baina orain, etxearen kontua-  
rekin, gero eta gutxiago egin ahal izan-  
go ditinagu horrelakoak. Etxea erosi,  
eta etxeren esklabo bihurtu! Badakin  
ondo hori zer den!

- Lasaitu beharra daukan. Irten  
egingo gaitun oraintxe; on egingo  
din haize pixka batek, etxe honek  
erotuko hau bestela. Orain, atera-  
tzea komeni zain, eta txangoak egi-  
tea ere demasekoa luken. Datorren  
asteburuan Pirinioetara joango gai-  
tun. Hori egingo dinagu. Zer iru-  
ditzun? Eta ez daukan aitzakiarik;  
joan egingo gaitun. Ez esan aurrez-  
tu egin behar dunala. Etxea ordain-  
duta geratu zain. Tamala dun, bai-  
na gertatutakoa gertatu dun, eta  
aurre egin behar dion. Agian, etxe  
hau saldu eta beste bat erosi behar-  
ko huke; bestela, objektu bakoitzak  
eta horma bakoitzak Ernesto eka-  
rriko ditun gogora.

## • ZEBRABIDEAN •

**E**skolara eramaten zuen autobusa goizeko 8:40 minututan pasatzen zen Jonanen etxe parean zegoen geltokitik. Hirugarren solairuan bizi zen bere ama eta hiru urteko Charli txakurrarekin. Batzuetan Charli izaten zen aurpegia miazkatuz Jonan esnatzen zuena, amari, bere gaueko lana zela eta, esnatzeko ordua pasatzen zitzaionean. Baina hori, neguko goiz euritsu hartan ez zen gertatu.

Zazpi eta erdietan esnatu zuen amak euritako arropak jartzeko eta amonak erositako katuska garestiak ez ahazteko esanez. Jonanek ez zituen botatzar haiek batere gogoko. Euritarako ezin hobekak baziren ere, aldamenen marraztuta zituen marigorringo eta loretxoak gorroto zituen: eskolako lagun guztiak irri egiten zioten. Baina hori amak ez zuen ulertzen; orduak eta orduak lanean aritu behar zuela besterik ez zuen entenditzen amak. Eta hain egoera estuan amonak egindako opariak onartu beharrean zeuden.

Eskolako arropa plantxatu berriak azkar batean jantzi zituen beroak bere gorputza apur bat besarka zezan, baina berehala nabaritu zuen bero hura apaltzen. Izan ere eskolako emandako jantziak urteetan zehar ikasle ezberdinen eskuetan egonak ziren eta Joanek ongi zainduagatik ez zuen esan nahi gainontzekoek ere gauza bera egin zutenik. Jersey, prakak bezala, urdin ilun kolorekoa zen, zikina egonda ere apenas nabaritzen den horietakoa. Eskolako haur eta ume guztiak berdin jantzen ziren. Eta hori ere Jonani ez zitzaion gustatzen.

Amak gosaria prest zuen sukaldeko mahai gainean: basokada zuku, ka-tilua esnez gainezka eta telebistan iragartzen zituzten txokolatzeko zerealak. Gainera, hamaiketakoa ere prest zuen, metalezko maletatxoan sartua eta ongi gordea. Jonanek ez zuen sekula galdetzen barruan zer zegoen, sorpresak oso gogoko zituelako eta beti opari txikiren bat jartzen ziolako amak. Behin, futbol jokalarien kromoak sartu zizkion: ongi portatzen baldin bazen, amak kromoak oparitzen jarraituko zuen, bilduma osatu arte. Eskolako lagunak inbidiak jota zeuden album osoa jokalariz bete zegoela erakutsi zienean.

Mahairatutako gosaria jan ondoren hortzak garbitzera joan zen. Ilea busti eta aitona zenaren orraziarekin eskuinaldera orraztu zuen; ez zitzaion gustatu eta ezkerrean aldatu zuen ilearen norabidea. Bai, horrela hobeto zegoen -aitonak ere beti duda egiten zuen alde batera edo bestera orraztu, baina jasandako diktadura latzaren eraginez, ezkerrean egiten zuen, baita orrazkeran ere-. Klaserako beharrezko liburuak zakuan sartu, ogitartekoan maletatxoa jaso eta euritarako berokia jantziz amari agur muxua eman zion.

Jende gutxi zebilen kailean goiz hartan. Euriak dena hartzen zuen, espazioa, airea. Tantekek gainazalean sortarazten zituen soinu ezberdinak edonon atzematen ziren: asfaltoko ur putzuetan, *plast-plast*; euriak deformatutako zabor estalkien kontza, *t-t-t-t-t*; autoen sabaietan, *tik-tik-tik*; ... eta Jonanen berokiaren txanoaren kontra. Katuska eta praka motzen artekin hotza sartzen zitzaion, baina ohitua zegoen neguan hotza pasatzera eta udan berriz beroa. Bukumakur zegoen horrela euria hobeto jasango zuelakoan. Burua altxatu eta ama ikusten zuen sukaldeko leihotik eskua astintzen. Oso gutxitan laguntzen zuen autobus geltokira, Jonanen irakaslearekin bileraren bat zuenetan bakarrik, eta gutxitan gertatzen zen horrelakorik. Arriskurik ez zegoela esaten zuen berak, oso ibilbide motza zela eta uneoro ikus zitzakeela bere semearen mugimendu guztiak leihotik. Eraikuntzako ate nagusia zabaltzen zuenetik amaren begiradapean egoten zen beti. Errepidea gurutzatu behar zenean semaforoa oinezkoentzat berde jarri arte itxaron behar zuen. Berdea jartzen zenean errepidearen bi aldeetara begiratu behar zuen autorik ez zetorrela ziurtatzeko. Etxetik berandu jaitsi eta autobusa zain zegoeneta ere tentuz ibili behar zuen. Jonanek eskolako autobusa geratzen zela adierazten zuen zutabearen ondoan ondoan itxaron behar zuen. Gehiegizkoak iruditzen zitzaizkion Jonani amak hartzen zituen segurtasun neurri guztiak; gehiegizkoak Jonan ez zelako burugabe bat, ordurako 9 urte bazituelako eta beti zentzuz jokatzen zuelako. Gainera auzoko bizilagunen aurrezkiak gordetzen zituen bankua bertan zegoen: astegunetan goizeko zortzi eta erdietan zabaltzen zuten eta Jonan geltokira iristen zenerako beti han izaten zen segurtasun gizona atean ezarrita bertatik pasatzen zen bizidun gauza oro gehiegizko arretaz miatzen.

Goiz zakar hartan ere leihoan zegoen ama, ordura arteko goiz guztietan bezala.

Autobusa berandu zetorren. Egun euritsueta ia beti gertatzen zen berandutzeren bat: autobusa ez bazen, lehenengo orduan klase ematen zuen irakaslea iritsiko zen berandu, edo bestela janaria eskolaz eskola banatzeaz arduraturatzen zen enpresako kamioia iritsiko zen berandu; ondorioz atzerapenez hasiko ziren bazkaltzen eta arratsaldeko klaseak ere berandu hasiko ziren, horrela arratsaldeko





bostetan puntuan klaseak amaitzen zirela iragartzen zuen txirri-nak ozen oihukatu arte. Orduan bakarrik berreskuratzen zen normaltasuna ikastetxe hartan.

Jonanek ezkerraldera begiratu zuen autobusa bazetorren konprobatzeko. Jende gehiago zebilen kaleetan gora eta behera zebrabideak gurutzatzen. Ba-

tzuk banketxera sartzen ziren, beste batzuk ordea, errepidearen bestaldeko izkinan zegoen okindegira. Okindegitik bost metrora, gutxinaka jendez betetzen ari zen kafetegia, lanera joan baino lehenagoko kafe beroa hartzearen. Kafetegiko atea zabaltzen zen bakoitzean ezkiitxo batek soinu ateratzen zuen, txintxilin, norbait ga-rrantzitsua sartzera edo ateratzera zihola salatuz. Oso ezaguna egiten zitzaion Jonani soinu hura. Aitarekin askotan joaten zen kafetegi hartara txokolate beroa hartzera, eta Ma-tildak, egin berriak zeudenean, ogitxo torta goxoak ematen zizkion txokolate katilukadan bustitzeko. Aitak eta Matil-dak orduak eta orduak ematen zituzten elkarrekin hizketan eta par algaraka. Aita etxetik joan zenean, amak malko ga-rratzen artean konpainia hobeago batekin alde egin zuela esan zion Jonani. Harrez geroztik Jonanek debekatua zuen kafetegian sartzea.

Goiz hartan, ordea, aitarekin oroiturik, kafetegirantz zu-zendu zituen begiak. Bertatik berea bezalako berokia zeraman neska bat ikusi zuen ateratzen 40 urte inguruko emakume batekin. Emakumeak txapela jarri zion eta neskaren aurpegia ongi ikusterik ez zuen izan. Ile luzea zeukan, beltzarana; emakumeak bortizki sartu zion kaputxapean aurpegitik erortzen zitzaion adatsa. Ezpainak mugitzeari ez zion uzten: haserre zirudien neskatoarekin. Honek eskularru gorriak zeramatzen eta metalzko kutxa bati heltzen zion. Instintiboki Jonanek bere eskua begiratu zuen, berea ba ote zeraman. Begirada bueltatu zuenean, emakumeak neskatoa arrastaka eramaten ikusi zuen. Errepidean autorik bazen konprobatu gabe zebrabidea gurutzatu zuten. Jonanen etxeko portalearen ondoan zeuden orain. Emakumearen marmarrak ez zuen etenik. Umeak ez zuen burua altxatzen. Emakumeak hankarekin lurra jo zuen, *“nahikoa da!”* esanez bezala; plaustadarekin harrotutako urak neskatoaren berokia zikindu zuen. Eta orduan konturatu zen Jonan. Sekula ikusi ez zuen neska hark Jonanen moduko katuskak zeramatzen: horiak eta aldamenetan marrazki infantilak. Zeinen politikak geratzen ziren neskaren zangoetan!

Etengabe autoak pasatzen ari ziren ezker eskuin, eskuin ezker, baina autobusa ez zen inondik ageri. Jonanen begira-

dak ez zuen beste jo punturik; argi zegoen errepidea gurutzatu nahi zutela, baina berde noiz jarriko zain zeuden. Auto ilaran zehar begiratu nahi zuen, baina agertzen eta desagertzen zen irudia zen bikotearena.

Amak leihoan jarraitzen zuen. Ez zirudien etxeko portalearen aurrean zegoen bikotearengan erreparatu zuenik.

Ezkerraldeetik klaxonaren soinua entzun zuen, autobusarena. Burua 60º biratu eta bertan ikusi zuen berarengana hurbiltzen. Jonan apenas ohartzen zen ezertaz. Neskaren eta emakumearen artean gertatzen zena jakin nahi zuen, zergatik zuen batek atsekabetuaren begitartea eta besteak haserrearena, zergatik ez zuen sekula lehenago ikusi neskato hura, bere auzoa, bere kalea baitzen hangoa. Eguneroko patioan non kokatuko zuen orain neskatoa?

Autobuseko gidariak ulertezina egin zitzaion esaldi bat ahoskatu zuen. Jonanek garraiobidearen atzeko muturreraino heldu, ez zuen besterik nahi. Eserlekuen eta lagunuen agurren tartetik oinezkoentzako semaforoa berde jartzen ikusi zuen, baita gizontxo berde argizatua Jonanek zeraman norabide berean ibiltzen ere, autobusaren atzealdera lehenbailehen hel zedin lagundu nahiko bailion. Bukaerako 5 eserlekuetara iritsi zenean, bertan zeudenen gainera bota zuen bere gorputza, zebrabidean gertatzeaz zegoena ikusteko.

Baina han ez zen ezer gertatu.

Neskatoak zebrabidea gurutzatu zuen, oinak non jartzen zituen begiratu gabe, tarte margotuan edo tarte hutsean, putzu baten gainean edo autobusak, bere lau gurpil handiek zebrabideetik pasatzean lehortutako zati txikien gainean. Buru makur jarraitzen zuen neskatoak. Emakumeak berriz gorputza tentetu zuen, neskatoari esan beharreko guztiak argi eta garbi esan ondoren, harro. Euria ari zuen oraindik baina emakumeak zuen aurpegirik desafiatazailena erakutsi zion eguraldiari, gertatutako guztiaren erruduna eguraldia bera izango balitz bezala.

Autobusa martxan jarri zen eta bikotea banketxearen atzealdetik desagertzen ikusi zuen, berriz ikusiko ez zituela ulertuta hunkiturik. Beraiek ez ziren konturatu elkarren artean gertatutakoaren lekukorik bazenik. Baina Jonan, kafetegitik irten ziren unea gordetzen saiatu zen; neskatoaren berokia, katuska horiak, maletatxoa, eskularru gorriak, ile beltzarana. Eta, guztiaren gainetik ozen, bere gorputzak sostengatzen zuen pena isila.



*Oihaneder  
Goikoetxea*



## LAUNDRYAN (Azken ordua)

### Laundry batean

*makina artean  
hainbat istorio  
gazi-gozo  
drama eta amodio  
gizakiak tartean*

### Luzia

Laundrya garbi-garbi dago, egunero bezala. Garbigailu industrialak ertz batean daude errenkada luze bat osatuz, zuri kolorekoak denak, dizdiratsu, barneko maindireak berriz biraka eta biraka; danborreko zurrunbilo zentrifugoari so geldituz gero zorabio sententzia nabari dut berehala. Alboan, jarraian, garbigailu txikiagoak, garbiketa mota desberdinetarako eta harago lixagailuak. Nahiko handia da laundrya, eta usain aseptikoa nabari da gela guztian zehar, leku berari ohore egiten dion garbiketa usaina.

Makinen burrunba ahula, andre lodikote pertxenta batek hautsi ohi du maiz, Kubara egindako bidaia batetik bueltan, *Duty-free*-an senarrak erositako Chanel N°4 perfumea gehiegi isurtzeko ohituraren erruz; edo eta kirola egin berri, dutxa on bat hartzeko astirik izan ez duen gazte atletikoaren izerdi usainak ere bai beste noizbait, erretzeko hamaika liburu irakurriagatik tentaldiari eutsi ezinik bizi den besteren batek ere bai beste hainbaten artean.

Usain uniforme maiz zapuzten da gure laundryan, zaratarekin gertatzen den antzera. Garbigailu eta bestelako tresnen hots monotonoa gaingituz, elkarriketa ezberdinak nahasten dira airean etengabe, ahots uhinen frekuentzia desberdinak, laundryko atmosfera bitxian. Lana galdu duen 54 urteko gizon baten dramatik, ezkontzako prestakuntzekin lepo dabilen

neskato gaztearen gora-beheretara, milaka teleaio sor litezke elkarriketei adi dagoen edozeinen irudimenean. Eta hemen egon ohi naiz ni, egunero, goizeko 10etatik gaueko 10etara, maindire, traje, soineko, gorbata eta abar eta abarren artean, nekatuta alditan, lanarekin burutu ezinda besteetan, baina bizitza honetan gustokoen dudak gauzetako bat eginez: kaxa errejistratzailea eta oihal garbi eta zikinak antolatzen ditudan bitartean jendea behatzea, besteen elkarriketak entzutea, guztia bilduz nire baitan istorio berriak etengabe sortzea.

### Teresa

Luzia orain ere zer adituko dabil, lixatzen ari den aldi berean belarria adidi eduki ohi du beti neskato horrek. Nola liteke horren gaztea izanda, horren begiluze eta kuxkuxera izatea! Hemeretzi urte besterik ez eta unibertsitatean behar luke dagoeneko, baina ikasteko batere gogorik ezean amaren garbiketa dendan bukatu du neska zozomikoteak. Ez da neska txarra, bihotz onekoa inondik ere, begiluzeegia nire gusturako. Hara! Garbigailutik pasata ere ez da joan Chanelak gona berrian utzitako orbana. Merke aterako zait niri Kubara egindako bidaia! Luisari galdetu beharko diot hau kentzeko modurik ba ote dagoen.

### Arantxa

Ezin sinets dezaket Imanolen zetazko alkandora laundrya ekarriko dudak azken eguna denik. Auzmendiren Donostiako dendan erosi genuen, zetazkoa, zuria, ia nabari ez diren boli koloreko lerro finez hornitua. Laneko bilera garrantzitsu hura prestatzen hainbeste denbora buru-belarri ibili ondoren, aurkezpen bezperan zer jantzi ez

zekiela zebilela oparitu nion. Bihartik aurrera Itziarri egokituko zaio lan hau, edo Imanoli berari, gaurko gizonak modernoagoak baitira, antigoelekoak ez bezalakoak. Senar zenari esan behar horrelakoez arduratzeko! Semea orain ikusterik balu harro egongo litzateke hartaz, ni nagoen bezalaxe. Gizon aparta baita, adeitsua, langilea... eta bizitza berri bati hasiera emango dio bihartik aurrera. Senarra bereziki faltan botako dut bihar, etengabe izango dut gogoan, mezetan, ezkontza bazkarian, eta batez ere etxean lehenengo aldiz bakar-bakarrik geratzen naizenean, oroitzapenez inguratuz, etxeko horma zaharren artean, biloba berriek bizitza azkar alaituko didatelakoan. Berandutu egin zait orain ere eta Itziar zain daukat kanpoan. Gauza asko daude oraindik egiteke. Biharkoa egun luzea izango da.

### Luisa

Behin baino gehiagotan esan diot orban horiek denborarekin joaten direla, eta ez lehenengo garbituan, ez dagoela horrelakoentzat tratamendu miragarririk eta kontuz ibiltzeko perfumearekin. Baina alferrik, betiko lepotik burua Teresak, hain hitzontzia ez baltitz sikira! Inguratu zait bere erretolikarekin eta azkenik ezin izan dut Arantxa agurtu eta semearen ezkontzagaratik zoriondu. Gizona hil zitzaionetik ez da betikoa izan emakume hori. Ogi puska izateaz gain laundryan lanik ematen ez didan bakar horietakoa da. Arropak berak bezain ongi zaintzen dituen jende gutxi dago, lixatzen eta garbiketan ezinhobeia, ikusi besterik ez dago semearen piura. Begirada triste sumatu diot gaur ordea. Bizitza aurrera doa eta seme-alabek beren bideari jarraitu behar diote. Es-



Stephen Frears-ek zuzendutako "Nire garbitegi ederrean" filmeko fotograma.

kerrak nire Luziari ere! Ikasten jarraitu nahi ez zuela esan zidanean txikituko banuen ere, laguntza ederra da niretzat *laundry*an. Datorren hilean beteko ditu 20 urte. Ai, ene, urteak aurrera doaz konturatzerako niretzat ere!

### Benantzio

Besoan itsatsita daramadan nikotina partxeak ez dit gaur laguntza handirik eskaintzen. Urduri nago, kirioak dantzatan. Hobe bazkal ondorengo kaferik hartu ez banu, baina ezin lagunaren gonbidapenari uko egin. Beti gustatu izan zait kafea, haren usaina eta azukreak goxatutako zapore garratza. Orain ere hartuko nuke bat; gorroto dut zain egotea. Bizio guztiak batera uztea ezinezkoa da izan ere, piskanaka-piskanaka hobe. Laundryan, arropak lixatzen dizkidaten bitartean zain egote honek akabatuko nau, zigarroa-

ren irudia darabilkit buruan, ezin imajina madarikatua baztertu! Badirudi garbiketa zikloa bukatzen ari dela eta Luisak oraintxe prest izango duela adierazi dit keinu batekin. Laundryan ezin da erre. Beti egon da itsatsita berde argiz margotutako horman iragarki koloretsu bat debekua adieraziz. Lehen amorru handia ematen zidan, erretzen nuenean, orain erronka pertsonalaren makulua da, baina ez dut gustoko hala ere. Hamarrak bost gutxi. Luisak prest dauka dagoneko trajea, ongi lixatuta, txukun-txukun pertxan zintzilika, plastiko transparentean bilduta. Akabo itxarroteak dakarkidan ezinegona.

### Luzia eta Luisa (azken uneak)

Benantzio, *laundry*ko azken bezeroa, etxera joan da, buruko hazkurari ezin

eutsirik, nikotinazko partxea ondo jarria duen konprobatu ondoren; Luisa eta Luzia, ama-alabak bakarrik geratu dira, *laundry*ari azken txukundua ematen.

Luziaren irudimena agortu da dagoeneko, etxera iristeko gogoa du, lanean pasatako ordu luzeek ez baitute barkatzen. Eta Luisa ere nekatuta dago oso. "Itxita" dioen errotulua zintzilikatu eta *Laundry*-ko beirazko ate handia erabat itxi bezain pronto, ordea, orban zailenak geratuko zaizkie garbitzeko: barne kezka eta ajeak, norberaren arazo eta gora-beherak; trapu zikinak hobe baita etxean garbitzea.

Edonola ere, bihar beste egun bat izango da *laundry*an, makinan burrunba eta gizakien hitz-jario berriez alaitutako eskenatokian.

Naroa Goikoetxea



## • GUTXITAN ATERA

### *JON TROLLOPE HAMABOSTEAN BEHIN ABIATZEN DA LABANDERIRARA...*

**L**anak erreta, aldaketaren behar gorria zuen bere bizitzak. Hogeita hamar urtetan kaian irabazi tako diru apurrak hartuta, negozioren bat irekitzeko asmoa aspalditik zerabilen bere buruak.

Bere ama zenaren osabaren hitzak zituen gogoan: “negozioetan ezer nahi baduk zer gorroto duan pentsatu behar duk. Gustukoarekin ez zagok negoziarik”.

Liburu-dendarik edo tabernarik, beraz, ez zuen jarriko.

Liburu-denda jarriz gero irakur-zaletasunak galduko zuen. Taberna jarriz gero, berriz, bere alkohol-zaletasuna alkohol-zalekeria bihurtuko zen.

Kioskorik ezingo zuen jarri, ez kanario-dendarik, ez eta hileta zerbitzurik ere.

Amaren osabaren logika ilogiko hark ikuztegiaren aukera zentzuzkotzen zuen. Labanderia irekiko zuen.

Kreditua eskatu, lokala alokatu eta bost garbigailu industrial erosi zituen. Errotulugileak ezin izan zuen ha-

rridura-muskuluek aurpegian marraztu zioten irudia ezabatu, post-it hartan dendaren izena irakurtzean. Handik astebetera, dendaren kanpoaldearen grisa areagotuko zuen errotuluak:

“etxetik gutxitan irten arren

**JON TROLLOPE**

hamabostean behin abiatzen da  
**LABANDERIAra**”

Irekiera eguna zen. Errotulu jarri berria hiru aldiz irakurri zuen. Post-itean “hamabostian” idatzi bazuen ere, ez zion garrantzirik eman bokal arrotzari.

Mostradore atzeko besaulkian eserita, Anthony beraitonaren liburua ezker eskuan eta pattar-botila kortxo gabea eskuinean, bi ordu egin zituen lehenengo bezeroaren zain.

*Asier Iriondo*





# TZEN ZEN ARREN

## JON TROLLOPE: EGUN BAT

**E**txetik gutxitan irten arren, Jon Trollope hamabostean behin abiatzen da labanderiara. Bidean doala ohartzen da ez duela arropa garbitzeko inongo beharrik. Bata txuri bat erabili ohi du egunero. Hala ere, ohitura gisa dauka bi astean behingoa paseotoxa, beti egun berean, beti ordu berean. On egiten dio gainera. Ordu beteko osteratxoak bere egongelaz at badela bizirik gogorazten dio. Badenak ez dena ekartzen dio gogora ordea. Barrena kiskaltzen zaio eta kontrol guztia galtzen du. Bere egongelan berreskuratzen ditu zentzuak. Ez daki non geratu zaizkion garbitzera zermatzan arropa garbiak. Bidean galduta ote ditu ba? Maldizioka hasten da bere egongelan jiraka. Mekauen-dioska ari da arropak non utzi ote dituen gogoratu nahian.

Eguerdian amari deitu behar diola ohartzen da bat-batean. Astean behin deitzen dio egongelako horman duen telefono zuritik. Astero-astero ordu berean. Hartu paretatik eta berehala hasten da berriketan. *“Kaixo amatxo”*. Egongelako lurrean eserita mintzo da. *“Ni ondo nabil”*. Astero gezur berberak esaten dizkio. *“Aurki egingo dizut bisitaxoren bat, agur ama”*. Telefonoa eskegitzen du. Gehiegi maite du ordea ama bisitan joateko, gehiegi hari ere min emateko. Amak ez dio sekula ezer esan hori dela eta. Amak ulertuko du zer gertatzen den eta horregatik ez dio txintik esaten. Hori izango da. Horregatik egongo da isilean.

Arratsaldean hilerrira joan beharra duela gogorazten du. Jon Trollope urtean behin joaten da hilerrira. Maggie eta Dylan txikiari lore sorta bana jar-

tzen die. Loreak uzterakoan bere besoetako orbanak ikusten ditu, bata zuripean. Istripua gogorazten du; errepi-dea, oihuak, whisky zaporea... *“Dena izorratzen diat”*. Etxerako bideari ekiten dio builaka. *“Maitatu izan dudana dena deuseztatu diat”* oihukatzen du kale jendetsuetan barna. Builaka doa jen-



*Badenak ez dena ekartzen dio gogora ordea.*

dartean baina ez dio inork begiratzen. Ia ohartzeke egongelan dago berriro. Bere buruari aspaldi ezarritako sententzia berrizatzen du: *“Ez diat inor maitatuko aurrerantzean”*. Lurrean eserita errepikatzen ditu hitzok egongela biluzian.


Iluntzean egongelan pasioan ibiltzen da, lau paretatik zuriaren artean. Hara eta hona, hona eta hara. Orduak ematen ditu gisa honetan. Derrepente gelditu eta zer ordu ote den galdetzen dio bere buruari. Ez du ordularirik. Zer egun den ere zalantza egiten du. Ez du egutegirik. Bere egin beharrak

orduka, asteka, hilabeteka, urteka, zorrotz antolaturik izateko paradoxa galanta. Eta nola betetzen ditu orduan hain zorrotz bere betebeharrak? Egun bereberek nozitzen ditu asteak, hilabeteak, baita urteak ere.

Afaltzeko garaia. Afalostean ardo kopatxo bat hartzen du gustura. Egunean egindakoa erreparatzea gustatzen zaio. Horrekintxe goxatzen da. Are alaiago jartzen da beste egun bat inor maitatu gabe egin duela ziurtatzean. Baina konturatzeko amaitzen zaio kopatxoa. Eta ez du edari gehiago. Juramentuka kopa lurrera botatzen du. Nola apurtzen den ikusten du kristal txiki ia ikusezinetan. Beira zatiak ikustean, hautsi duen oroz gogorazten da. Eta negar egiten du. Lurrera begiratu eta ontzi zatiak ikusezin bihurtzen zaizkio. Negar egiten du lo hartu arte.

Goizean goiz sartzen da erizaina, bi zaintzaile sendoz lagunduta, 517 gellan. *“Lasai, lo dago”*. Xiringa bat eramaten du erizainak. Laguntzaileetako batak orri zuri batetik irakurtzen du ozen: *“517: Jon Trollope: 20 miligramo”*. Ingurura begiratu eta dena botata ikusten du. Zizatzen du eta gela zertxobait txukuntzen du. Loreak lurrean daude, eguneroko tokian, bi pilotan txukun jarrita. Mesanotxeko pitxerreak jartzen ditu sorta bakarrean bilduta. Plastikozko basoa ere lurretik jasotzen du. Eritegiko barne komunikazioetako telefonoa ere ondo eskegi gabe ikusten du. Hirurak irteten dira gelatik. Atea kolpe batez itxi eta krisketari ematen diote.

*Joseba Zubizarreta*



Ruper Ordorika

# • Kantu artisaua •

**A**rtisaua bere lanaren aurrean bezala, Ruper Ordorikari, kantua osotzen duten osagarriez hize-tan ari denean, halako materialtasun bat igartzen zaio. Bere hitzek artisauaren eskuak dirudite lehengaia aztertzen, formak aukeratuz, molde egokia zein den galdetzen... Eta esku hauek, urte-etako eskarmentuaz baliatuz, akatsik gabeko forma perfektu hori moldeatzeko bidean ziur jokatzeko dute batzuetan; noraezean besteetan, zehazki nora joan jakin gabe, zalantzak ematen dituen fruituen bila. Hitzak, doinuak, akordeak, melodiak, gizon arruntaren eguneroko bizitza, lurralde poetikoetan barrera galdu denaren arnasa, iragana, bidaia, sentimentuak, hiri bat, hizkuntza, euria... gizon honen aho-tsean, azkenean, guztiak kantu bihurtu dira.

## Markos Unzueta

### Aurrerabidea

► **Aurrerabidearen ideia hedatu batekin ez zatoz bat, Ruper. Olatu batek bezala dena estaltzen duen mugimendu horren aurrean kanta bat arretaz entzutea ez ote da aukera bat gurpil ero horren partaide izan nahi ez duenarentzat? Ez al da munduari kanpoko begirada bat luzatzeko modu bat?**

Mmmh... ez dakit nik, eh... ez dakit, ez dakit... mmmh... niretzako esan behar dut... bada zuk esaten duzun bezala horrela da... baina niretzako inportantea da musikak edo nik egiten dudanak halako baliogarritasun bat eduki dezan, halako praktikotasun bat. Ez dut egiten... ez nuke egin nahi edo, ez dago nire aburuetan egitea mundutik kanpoko ezer. Ez... nik uste dut musika oso lagungarri dela, nik beti esaten dut kantua osagarria dela, sendabelarra bezala...

### ► Balsamoa...

Bai, nik horrelala uste dut, niretzako hori da, osagarri, sendatzeko balio duena, eta apurtxo bat sakontzeko, arakatzeko, mundu honetan gehituago ezagutzeko eta niretzako bada... nik beti aipatzen dut, Bob Marley-k esaten zuena, *Redemption songs*, hori ere asko esatea da, baina badauka horretarik, esan nahi dudana da,

niretzako baliogarritasuna edukitzea gauza handia da. Ez... ez nuke egingo... mundutik kanpo, nik uste dut nire gorabeheretan eta bizi denarentzako zeozer ekarri beharko lukeela nik egiten dudanak.

► **Aniztasuna desagerrarazi nahi duen olatu berdintzaile baten aurrean kultur txikien bizi iraupenaren alde agertzen den kanturik baduzu...**

Bai, beno, gure gainean zabaltzen den irizpidea hori delako, hau da, kontrajartzen da norberak edukitzea bere afektuak, lotuta egotea halako gauza txikiak, eta aurrera begira egotea. Betidanik —gure aurretik ere halaxe zen— zu baldin bazaude lotuta, zuk nahi badituzu gauza txikiak, ezberdintasun txikiak mantendu, beti egongo da hor *mainstream* bat esango dizuna zu geldirik zaude-la, atzerakoi zarela. Eta gure jarrera hizkuntzarekiko, euskal hizkuntzarekiko eta beste zenbait gauzetarekiko kontradikzio haunditan sartzen da aurrerabidearekin dudarik gabe eta berriki, gehiago, zeren eta gero eta zabalduago dagoen globalizazioaren ideia horren barruan homogenizazio bat dator, eta hori maila guztietan sartzen da... Eta alde horretatik bai, nik uste dut musika egitea bera, nahiz industria baten partaide izan, hizkuntza gutxitu baten kantatzen baldin baduzu, horrek jartzen zai-

tuela aurrerabidearen bazterretan, dudarik gabe. Eta uste dut horretaz asko pentsatu beharra dagoela, nola uztartu hori gure gaurkotasan eskatzen dizun musikarekin. Baina gaur egunean, fabrikari txandatan ibiltzen dan Oñatiar arruntarentzako ze kantuk balio du, ez? Neure barrutik ateratzen dena saiatzen da behar hori betetzen, hori lotuta lehen aipatu dugun baliogarritasunaren kontu horrekin...

► **Kantu batek badauka halako indar berezi bat...**

Bai, seguru naiz, bai, niretzat behintzat bai, behinepein. Niri oso zaila egiten zait gauzak orokorrean esatea horri buruz, zeren eta iruditzen baitzait bizimodu honek gauza asko eskatzen dizkiola gizakiari, gaur egun uste dut jende gehiengo aski deserrtua bizi dela eta oso errari mundu hontan; eta etxeetara sartzen zaizkigun berriekin, ahal bezala ibiltzen da, eta zenbaitentzako, ez dakit, ekintza ixa ixa lujozkoa izango da kantua entzutea, badaukate bi ume, erantzunik ez guztia... ez dakit zer eta mila aitzaki daude nolabait arteari belarriak ixteko, eta begiak, gure gizartean. Orduan beti kontuz arakatu beharreko arazoak dira, baina bai seguru nago... niretzako hala da... niretzako kantu bat entzutea... liberatuz gertu dago.

## Kantu zaharrak

Duela urte batzu, Ruperrek Hiru Truku taldearekin euskal kantutegi zaharreko hainbat harribitxi ezagutzera eman zituen bi grabazioen bitartez.

► **Bixente Martinez eta Joseba Tapiarekin batera garai bateko euskaldunen pentsamolde, bizimodu eta kezka batzuei buruz jakin genuen, behar bada denik eta erarik bizienean, kantuenean...**

... beno, ta gero nik uste dut, nik behinepein, kantu zaharrak eta ikasten ditudanean, eta orain hortan dihardut, atzera sartu zait hori eta... nik uste dut hor gauza dela ea norbera gai den kantu hori egin zuen pertsonak sentitu zuena edo bere arrazoiak komunikatzen. Ez kantua bera formalki polita delako —eta politikak izaten dira— baizik eta pentsatzea pertsona arrunt batek, zeinen izena ez dugun ezagutzen gerora, neskari egin dion kantu bat erakutsiz bere maitasuna edo bere zaletasuna, edo bere amorrua, edo dena delakoa... ekintzak berak, badu indar izugarri bat, indar artistiko bat zentzu primitiboenean, gaur egun hori esango nuke ixa ixa ezinezkoa dela, eta orduan gero hor munduan arakatu ezkeren batzutan topatzen dituzu, ardatz batzuetan edo... apur bat gehiago esplikatzen dizutenak zeure lekua mundu hontan...

► **Erantzun batzuei ematen dituzte...** Neurri batean. Erantzun formalak niretzako, askotan... estetikoak, gauzak esateko moduak, eta bizimolde baten adierazpenak, melodikoki ere bai... hori informazio iturri handia da...

► **Hiru Trukuren ildo beretik hasi zara...** Beno, pittin bat bai...

«Beti izan dut  
zaletasun hori,  
eta nik uste dut  
badagoela hor alor bat  
oraindik asko  
landu gabea, eta  
esan beharra daukat  
kantu zaharrea,  
uste litekeenaren aurka,  
inon baino gehiago  
sartzen dela ideologia,  
ez dut esaten ideologia  
gaur egun erabiltzen den  
zentzu politikoan...  
baizik eta  
pentsamolde bat...»



► **Baduzu asmorik gero kantuekin ibiltzeko...**

Beno bai, leikiena da...

► **Zer egiten duzu, inguru ezberdinen kantutegiak arakatu...**

Ez, ez, hori egia esanda urteetako lana izan zen, aurreko lana da Beno, nik ez dut lana kontsideratzen hori, neure *hobby* da, neure zeharbide bat... eta halako batez urteetan zehar konturatu nintzen bageneuzkala eskuartean inortxok entzun gabeko kantak, hemengo euskalkian, hemengo mundukoak... bizkaieraren mugetako hauek eta, hau da kantu bat berriztu ez dena historian zehar. Beti izan dut zaletasun hori, eta nik uste dut badagoela hor alor bat oraindik asko landu gabea, eta esan beharra daukat kantu zaharrea, uste litekeenaren aurka, inon baino gehiago sartzen dela ideologia, ez dut esaten ideologia gaur egun erabiltzen den zentzu politikoan... baizik eta pentsamolde bat...

► **Mundua ikusteko era bat...**

Bai, beno, hori eta musikari bezala interpretatzeko modu bat ere bai... Guridik bazeukan berea, eta Azkuek bere liburuetan egiten dituen apainketa eta korrekzio guztiak bere burutazioetatik datoz... eta batek hartuko du “*Hara non diran*”, hartuko du, ez dakit... eh... “*Goizian goizik jeiki ninduzun*” eta egingo du lan operistikoa, eta besteak egingo du, ez dakit... Dylanen ildotik beste zera bat, eta beste batek kantatuko du *a capella*, eta horrekin esan nahi dudana da Hiru Trukurekin eduki genuen esperientzia ba, neure ustez, ezarri genuen geure irakurketa bat kantu zaharrena; beste asko dira litezkeenak, baina guk, gureak jarri genituen...

► **Instrumentazioa errespetatu zenuen ?**

Ez, instrumentazioa ez, baina melodiak eta bai, testuak asko arakatu... nik armoniaren ideia musikala sentitzen dut gehienetan arazo bat bezala kantu zaharren kontura, zeren armoniaren ideia oso sotifikatua da, eta berria askotan, jotzen da akordeen kontura eta abar eta...

► **Eta zerbaitek hor talka egiten du...**

Bai, niretzako bai, beti saiatzen naiz... baina hori da, esan dizudan moduan; batek egingo du guztiz kontrakoa, eta ongi egingo du, eh!

► **Eibar kantuz liburuaren aurkezpenaren inguruan kantaldi bat antolatu zen eta nik parte hartu nuen “*Kontu barri bat*” kantuen moldeketa bitxi batekin, ameriketako 50. hamarkadan jukeboxetan entzungo ziren musikaren antzekoa, *West Side Story* ekarri baitzidan gogora kantuen istoriak...**

Je, je, je... ba kantu horrek baditu beste doinu batzuk idatziak, eh! proposamenak, eh... nola zen... eh... Luzuriaga musikariarena, eta guk jarri

genion, eh... ze testu hori musikarik gabe agertu zen, Dimako dultzainero batek, Patxi Bilbao zenak, ere kantatzen zuen erromantze baten doinuarekin “...kontu barri bat suzee-edidu da”, doinu hori zegokion berak kantatzen zuen beste pieza bati, oso polita, eh... *Grazianatxu*, eh “...*Grazianatxu neure laztaana zeugana bidaltzen neure...*” eta horixe sartu genuen, bai.

► **Entzun zenituen Bob Dylanek grabatutako bi disko haiek? (1990 inguruko lan hauetan jatorri ezber-**

Benok uste dut... hori oso gai interesgarria dela, hemen... ez dakit, gai luzea da hori —ez dago dudarik Afrikaren eragina rock and rollean eta gure musikan izugarria izan dela— baina horren aurreko musika europarra, eta batez ere atlantikoa, Irlandan, Ingalaterra hegoaldeko doinuak, eta hemengoak dira benetan berdinak; entzuten duzu *Morris* dantza bat eta ez dakizu Oñatiko San Migeletan zauden, eta oso harreman handia dago, eta kanta moldeak, eta gaiak, gaiak... Hori da, baladistikak kantatzen ditu gai oina-

«Ez, instrumentazioa ez, baina melodiak eta bai, testuak asko arakatu... nik armoniaren ideia musikala sentitzen dut gehienetan arazo bat bezala kantu zaharren kontura, zeren armoniaren ideia oso sofistikatu da, eta berria askotan, jotzen da akordeen kontura eta abar eta...»




dineko kantu tradizionalak osaturiko bilduma bi kaleratu zituen abeslari amerikarrak; besteak beste, tradizio irlandar, eskoziar, ingeles, afro-beltz, Appalachiarrak hartuak). Ez dakit, niri iruditu zitzaidan harrigarria kantu haiek nola adierazten zuten mundua... Europatik emigrazioak hara eramana batek daki noiz eta nola... eta gero entzun Hiru Trukuren diskoen kantuak eta... ez da hain mundu ezberdina kantu haiek erakusten dutena eta geurea... Ez.

► **Gehiago esango nuke... parekotasun gehiago ikusten dut kantu haien artean, gaur egungo Estatu Batuetan eta Euskal Herrian egiten diren artean baino... globalizazioaren garai hauetan...**

erizkoak, jendeak betidanik sentitu dituenak... beldurrak, erlijioa, zein den portaera zuzena, maitasuna, gorrotoa... mmmh...

► **Gai unibertsalak...**

Hain zuzen ere... eta... orduan nik uste dut Amerikatik gehienbat beltzen zentzu erritmikoarekin batuketara hori, gehi inperioaren indarra, zein batuketara hori eman da Er-tameriketara eta beste zenbait lekutan ere, baina ez da gauza bera gertatu. Horregatik horren aurreko musika, Amerikan, zuk entzuten dituzunean horren aurreko doinuak, Appalacheetako kantuak, adibidez, eta oso antza handia du te Irlandakoekin eta gureekin, eta Quebecoekin zer esanik ez! bai, hori horrela da, ba dago hor hari bat...



➤ **Sare bat bezela guztiok batzen gaituena...**

Nik inpresioa daukat European erritmoaren ideia oso erreprimituta egon dala, kulturak, elizak, erreprimitua...

➤ **Eta beltzek ekarri zioten falta zuena...**

Beno, beltzek ekarri zioten lehen bazegoena. Oinarrian, esaterako, hori da Hiru Trukun guk asko zaindu dugun alor bat, kantuak erritmikoki asko markatzea. Baina orohar, nahiz nabarmenki izan ez, beti alde erritmikoa... askotan hemen euskal kantu berrian, hau da, gure aurreko kantariak askoz gehiago jo dute alde melodikotik, horrek dakartzan ohiartzunekin, alde erritmikotik baino. Eta nik uste dut alde erritmikoa oso garrantzitsua dela kantu zaharrea, beti izan da, askotan kantu hoiek gogoratu izan dira dantzan egiten zirelako... Etnologo askok aipatu dute, eta nik ez dakit horrenbeste, baina nik esango nuke baietz, kasu askotan lehenago izango zela dantza eta gero kantua. Eta uste dut European zehar ere, harremanengatik eta abar, dantzak errepresioa jaso duela eta Euskal Herrian berriki arte, beti kontrolpean egon da, aldiz kantu lirikoagoak eduki du beste indar bat...

**Lehen diskoa**

➤ **Gaia aldatuz, Ruper, zu Atxagak, Sarrionaindiak, Iturraldeak... idatzitako testuak adaptatzen hasi zinen. Zeintzuk izan ziren zure zailtasunik handienak alor hontan, jatorrizko testuari eskatuko zenion barne musika bat, erritmo bat zuk kantu bihurtzeko gero...**

Hasteko esan beharra daukat nire orduko harremana; ezin da hau esplikatu esan gabe nire orduko harremana, esaterako Atxagarekin, zela egunerokoa, egoten ginen egunero elkarrekin, egunero ez bazen... bera Bilbon bizi zen eta ni Basaurin, eta behinepein astean behin gelditzen ginen gau guztian bilera egin eta gero, han iratzarrik beti hizketan hontaz eta hartaz, eta *Etiopiaren* orijinala makinaz idatzia etxean daukat eta, nik ez dakit nola izan zen zehazki prozedura... baina... nik egin beharra sentitu nuen disko bat egitera; bultzatzen ninduten, nik ez nuen ikusten neure burua hortako, ez... baina pentsatu nuen ardatz bat behar zela, eta horregatik egin nuen erabat bere testuekin disko bat, baina aurretik, bera ezagutu aurretik, hobeto esanda bera ezagutu, baina idazlea zela jakin gabe iada hasia nintzen... benetan, nik Pan-pin Ustelan irakurri nuen *“han mendiak kutxiloz eginak izan*

*diren lekuetan berandu loratzen dira orratzak”* eta haren poemak... Bernardo Atxaga, esan nuen... ala Jinkoa! ala Jinkoa! Hau da lehengo aldia nere bitzitan irakurtzen nuela zeozer euskeraz, ez maite nuena, zeren eta ni nintzen garai haietan Aristi zale amorratua, eta Artzeren lehenengo liburua, beno, neukan bitxi bat bezala etxean... Leterena ere bai... dena irakurtzen nuen, goitik behera, Lasa, Joxe Azurmendi, *Hitz berdeak*, denak irakurtzen nituen goitik behera orduan, ez... eta gustatu ere bai; baina lehenengoz pentsatu nuen, nahiago nukeen hau neronek idatzia balitz, ezta! Benetan identifikazio haundi bat hizkeran, ba zeukan horrek zeozer...

➤ **Estetika bat...**

Bai, jakina, disko hortan... nik beti esaten nuen bere garaian, hemen poema kantatuak daude, kantuak eta bertsoak... Bertsoak izango ziren *Bertso berriak* eta *Zenbait bertso xeble...* poema kantatuak ba, *Hi hintzena*, *Herdoilarena*, *Kalatxoriarena*... Eta gero kantuak ziren ba *Sagarrondo bati seaska kanta*, formalki neurri batean *Esploradorearena*... Besteak poema kantatuak ziren. Niretzako beste alor bat da eta, ez dakit, batzuk egin nituen eseri eta berehala, eta beste batzu



egingo nituen gehitxoago landuta, baina niretzako bazeukan eh... Azken finean, kantuak, azkenean, gauza dadin, behar ditu hitzak, behar du doinua, eta zenbaitetan lortzen du ohiartzuna, hirugarren gauza hori. Eta hirugarren gauza horrek ez dauka esplikazio zehatzik, baina ez esoterikoa delako edo gauza zaila azaltzeko... kontrakoa... denok gogoan sartuta dauzkagun kantuak igual kristoren txorakeriak esango dituzte. Aldiz pozik gaudelarik, konturatu gabe esaten ditugu kantu horiek, eta gu bezala mundu denak, beraz ez da bakarrik hitza gehi doinua, badago hor zeozer...

#### ► Kimika berezi bat...

Bai, eta nik baneukan identifikazio haundi bat testu haiekin, ondo ezagutu nituen kantuak egin orduko, bazen bestelakotzen bat, gogo bat bestelakoa izateko eta abar... eta hori horrela da, eta normala da heldutasunetik holako gauzak esatea, baina nik asko baloratzen dut hori... Gehiago esan behar dut, ez dut ikusten orain holakorik; eta nik uste dut egarri hori askok daukagula... eta Bernardo etorri zen Basaurira ni ez nintzelako ausartzen kantatzen bere poemak, berak bazekien nik banituela hiru edo lau kantu eginda eta gogoan daukat nola sukaldean kantatu nizkion, gitarra espainol batekin *Begiraiezu, Esparta, Liliput...* holako kantuak... eta orduan zan... badakizu, eh... zer da Esparta, Liliput? eta zen... eh... jakina, jendeak orain go-raipatzen ditu hoiek baina orduan niretzako... eh... nik beti izan dut inguruan ba Jose Mari Iturralde, Joseba... eta izan ziren nire babesle izugarriak, maitatu zuten disko hura... eta burukatu zuten... eta gero ere prentsak, ikaragarritzko laudorioak jaso zituen. Baina kalean zen benetan gauza ezentriko bat, eta gauza nekeza izan zan, hori ere esan beha-

«...azken finean nik beti esaten dut, txorakeri bat izango da baina, kantua azkenean gauza dadin behar ditu hitzak, behar du doinua, eta zenbaitetan lortzen du ohiartzuna, hirugarren gauza hori. »


rra dago. Batzutan... ez zait gustatzen, ez... ematen du horrelako biktimismo bat... baina egia da, gu hasten ginenean “*Esparta, Liliput hitan bainatzen ditun krokodiloak*” kantatzen... eta jendeak... zer da hau?... zenbaitek. Eta hor badago haustura bat, antierromantikoa, nik uste dut, *Etiopian* Bernardok planteatu zuena, nitasunik ez dago, eta horrek ekarri zuen etendura bat, ba, urteetan zehar geroago arakatzeko modukoa. Horregatik, nik ulertu arren heldutasunetik Bernardok egiten duen distantzia hartze hori... nik uste dut liburu hortan oinarri sendo bat jarri zela gerorako, ez dakit... gauza bitxiak dira norbera pentsatzen jarrita. Orain askok esaten dute Pott dela hau eta bestea, eta... pentsatzen jarrita... ez dakit zergatik elkartuko ginen holako jendea, gero bakoitzak jardun du bere bidetik... eta nik ez dut berezko belaunaldietan sinisten, orduan egongo zen hor... nola esaten da? afinitate selektiboa... Nolabait gure artean, eta haren lekukoa da disko hori, bai.

#### Hamabostean behin

► **Kanta batzuetan, irudien pilaketen bitartez indar bat gauzatzen doa. Eskenak akumulatu egiten dira, pertsonaia nagusi bat espazio horietan barrena nabarmentzen zaigun bitartean. Kantuak aurrera egin ahala detaile txikiak bizitasunez betetzen dituzte inguruak eta izaerak, horrenbesteko indarrez non irudiak filme bateko zatiak diruditen. Laster pertsonaien arteko solasaldi txikiak entzungo ditugu. Espazioa identifi-**

**katzarekin batera kaleetako usainak datozkigu gogora. Begiak itxi eta hain zaigu erreala kontakizuna... non iruditzen zaigun osagarriak hatz puntaz ikutzerainoko hurbiltasunez daudela jantziak. Azkenez, sentimentu bat dastatzen dugu: herrimina.**

Bai, beno beti eduki dut gogua nik kantu narratibotarako, zeozer... istorixa bat, eta ez bakarrik istorixa bat ahal bada. Jakina, nik poema kantatu hoietatik zeozer ikasi nuen. Badugu ustea batzuetan Euskal Herrian inon baino gehiago kantatzen direla poetak... Galdera izango litzateke zergatik, ez? Ez ote den izango hor afirmazio bat, beldur bat... ez dakit, dagoeneko errespetatua den idazle batez ez ote zaren zeu ere babesten, gauza asko daude, hizkuntzarekiko inseguridade haundia eta abar... eta horren haritik, ba nik uste dut pentsatu nuela poema on batek ez duela zertan egin behar kantu on bat, batzutan poema ona da eta kantua ez; ez du lortzen ohiartzun hori, ez dira batera etortzen edo... eta horrela neu hasi nintzen poliki poliki neure kantuak sartzen, bigarren diskoan sartu nituen batzuk, *Furgoiarena, Asmatzekorik ez, Bart sobera ardo edan nuen*, eta hauekin batera sartu nituen *Berandu dabilta, 37 galdera, Beste edozein...* azken hau ere nirea bai... *Alberto Caeiroren bisita...* poema aski metapoetikoa, Sarriri esatea gustatzen zitzaion bezala, baina niretzako bazeukan deskripzio bide hori ere... nik ikusten nuen... euria, eguzkia... eta nik ikusi egiten nuen hori; eta nik asko balo-



ratzen nuen hori, zeozer berbetan; niretzat berbak badu zeozer... misterio bat... badu... norbaitek esaten duenean zerbait eta ez ondokoa gauza bera esateko, horrek ere balio handia dauka. Gero Sarrik, ordu-rako preso zen, bidali zidan kartzeletik *Galtzetan gordetzeko koplak*, testu antologikoa... testu etxeparioa, neurritz oso berezia... eta beno, sartu nintzen beste bide batzuetan eta ailegatu zen hirugarren diskoa eta nik uste dut behar nuela disko formal bat egitea, zentzu estetikoan nabil, gauza bat sendoa, musikalki arkitetkonikoa...

➤ **Kuriosoa da zuk hori aipatzea, zeren eta testu txiki bat prestatzen ari nintzen zure musika definitzeko soinuari dagokionez, eta berba hori etorri zitzaidan, arkitektura. Zure zuzenekoetan gertatu izan zait begiak istea eta berehala han agertzen dira eraikinak, heuren zutabe urri baina sendoekin, espazio irekiak, horma biluziak, kolore minimoak...**

Niri asko gustatzen zait hori entzutea zeren... esan beharra dago ze... hitzegiten ari gara testua eta musika balira beste esfera batetan mugitzen ari diren gauzak, eta badira, baina ba dute esfera arrunt bat... esan nahi dudana da... dagoeneko gu bizi gara grabazioaren munduan... simula-

kroa entzuten dugu, ez musika bera baizik eta ondorengoa, eta hor teknologiak izugarritzko garantiza dauka... eta niretako ardura bat, batez ere azkeneko diskoetan, beti da organikotasunaren alde, sonidoan ere bai... gertutasun baten bila edo... nolabait esateko... beno, sasoi hartan ezin zen hori pentsatu ere egin, ez geneukan horrelako kontrolik, ez eta estudiorik eta jakin ere ez, beti saiatu gauzarik onena egiten, beti beti, disko bat egitea kriston burruka bat izan da, eta disko hori teknikoki nik nahi nuen bezala sonarazteko nik uste dut oso prozedura hotzak erabili genituela, gauzak banan banan grabatuz. Apur bat hori da neuk daukadan pena edo... zeren eta musikalki interpretazioa izugarria zen.

➤ **Diodan kantuen egitura soniko hori bisualizatzea zuzenezko ekitaldietan gertatu izan zait...**

Bai, beno, zuzenean bizi da musika, nik asko maite ditut diskoak, nahiz eta horrek ez duen guztientzat balio. Pentsa Beatlesen azkeneko diskoak hartzen baditugu, ez zuten zuzenekorik egiten... ez zuten inoiz jo jende aurrean eta elkartzan ziren eta kriston diskoak egiten zituzten, orduan, ez dago legerik hor... edozein libertate gutxi da...

## HAMABOSTEAN BEHIN

Etxetik gutxitan irten arren Jon Trollope hamabostean behin abiatzen da labanderiara. Etxesail pare bat zeharkatu dituta hango kaleak beltzagoak dira eta disdiratsuagoak.

Posta zentraletik ezkerretara jo denda greziarrak, billarra eta hospitalea, hori hospitalea. Usai exotikoak tabernetatik eskinatik iragaitean konturatu da inork bgiratu ere ez diola inork begiratu ez diola inork begiratu ez.

Txanponik bai? ugazabari galdegin diru zikinik gabe nora joango ginduzkean ba? horra erantzuna. Labadora martxan ezarri errebistarik ekarri ez duenez leihotik begira zai.

Espaloi lerroari jarraitzen dio etxalderako bidea buruz ikasia hamabostean behin. Etxeko egongela du buruan bazter oro ditu ezagun eta hura beti gogoan ageri zaion parajea beti ageri parajea beti parajea.

Egongela hartan zenbat alditan gordeko du Jon Trollope gureak bere betiko paseoaren oroimina paseoaren oroimina oroimina.



► **Gero Ez da posible egin zenuen.**

Beno, hor egon zen tarte luze bat, nik uste dut... nik banuela behar bat, babes behar bat; badakizu, ni behin ere ez naiz izan ordenatua, eta ez eta segurua ere ez egiten dudana, eta sasoi hartan gutxiago, Ingalaterran urtebete egon eta gero etorri nintzen eta berriz kokatu beharra, lan kontuak, erabaki batzuk hartu behar, non bizi... nik oroimen hori daukat. Orduan horrela egon nitzen bost urtez grabatu gabe, nik ikusi nuen baita ere horren beste atal bat hor hemengo disketxeena, horren arrazoietako bat zen, nik ez nuen ikusten inongo babesik niretzat, ni oso minoritarioa nintzen eta pentsatzen nuen ez zeukatela inongo interesik, eta aldiz hasia nitzen orduan lantzean behin Madrilan jotzen eta horrela eta etorri zitzaizkidan hango batzuk eta horrela izan zen bertako disketxe bantentzako diskoa grabatu ahal izan nuela, eta guztiz beste lerro batetik, beste... egon nintzen hor... ez dakit hau zilegi den honela ikustea denborarekin, baina behar bada babes bila ere bai, musikariekin gauza formal horren atzetik, neure burua... pelotajo barik, beti hor, ezkutuan bezala. eta halako batez hasi nintzen ulertzen nik neukan apurra kantua zela, eta hori zela jendeak nigandik entzun nahi zuena, beti ere musikari honekin, ahal bada, baina musika egon dadin beti kantuaren alde, eta hortxe hasi nintzen laukote formatu xelebretan, teklatura, bateria, baxua eta ni bakarrik gitarrarekin... aldaketa sasoi bat, eta nik uste dut *Ez da posible* dela diskorik rockeroena zentzu klasikoan... eta kanta hori izan zen kristoren arrakasta eduki zuena.

► **Gogoan daukat garai hartan Mikel Laboarekin egin zenuen kontzertua Victoria Eugeniaren, eta jende asko azaldu zala...**

Bai, baina Mikelengatik je, je, je... bai,

nik beti daukat hori esateko, eta esan egiten dut. Berak aukera zuen bakarrik egiteko, eta nolabait inposatu zuen nik jotzea... eta niretzat garrantzitsua izan zen. Ez dakit, horregatik nik esaten dut beti eduki dudala entzule hori, kontrakoa esatea gezurra da, beti eduki dut... niretako bigarren diskoa egin eta deitu zidanean etxera Mikelek, edo Txomin Artolak... horrelako deiak jasotzea zen... oso fuertea niretzako, eta horrek asko balio du. Jendearen aurrean badakizu, ez ginen ezer, eta rock radikalak izan, eta orain oso zaila da irudika-

«...esan nahi dudana da... dagoeneko gu bizi gara grabazioaren munduan... simulakroa entzuten dugu, ez musika bera baizik eta ondorengoa, eta hor teknologiak izugarritzako garantiza dauka... eta niretako ardura bat, batez ere azkenengo diskoetan, beti da organikotasunaren alde, sonidoan ere bai... gertutasun baten bila edo... nolabait esateko...»



tzen baina, *Bihotzerreak*, pentsazazu, garai hartako diskarik salduenak izango ziren Kortatu, Hertzainak, La Polla... hori zen espektroa, baina erabat, masiboa. Orduan zuk egintzazu horrelako disko bat... "ez naiz ni bam! zurekin ahaztu dena bam!"... Pentsa, sasoi haiek zailak izan ziren gu bezelako kantariantzat, gehienak hor utzi zioten kantatzeari... aldaketak izan ziren izugarriak sasoi hoietan, orain errez ikusten da, baina... beno, so-

zialki ere gutxietsia kantu molde hori zenbaitentzako, ze kantu gogo hori inoiz ez da agortu; egin zen bideratu rock radikalera, ze talde haiek denak ziren kantu egileak, eta batzuk oso onak... gero politikoki ere egin ziren festibal garrantzitsu pare bat, non pakete berean sartzen ziren erderaz ari zirenak eta euskeraz. Orduarte hori ez zen horrela sekula izan, baina interesantea zen ezker abertzalearendako jende asko zebilelako horren inguruan, eta horrelako aldaketa haundiak egon ziren... baina iruditzen zait beti egon direla hor erreferente batzu euskal kantuan beste alor batzutan... Benito... Niretzako oso sasoi nahasiak izan ziren, pertsonalki ere bai... egile bezala harremana inguruarekin oso zaila zen... iritziak... horrela ikusten dut nire burua garai haietan, anabasa hartan, ez dut ikusten lefro bat eta...

► **Hurrengo diskoa *So'ik so*, soinu aldetik nabaritzen da zure marka, *Krak* kantuaren hasiera instrumental horrek norabide bat ezartzen du gerorako...**

Bai, Ameriketara egon eta gero egin nuen. Disko sendoa da, produktzioa erokeria bat izan zen: hiruzpatalau estudiantan grabatu genuen eta orduan teknikak ez zuen baimen handirik ematen trasbaseetarako, itzulikatzeke musika. Baina nik uste dut ganbara ondo beteta neukala, eta oso disko sendoa da, nik ahal baneza berriz nahastuko nuke diskoa... hor dagoz *Egin kontu... Belauniko, Xamurragoa zen, Etxaldera...* kantu sendoak... eta orduan Ameriketara beste mundu bat ikusi nuen. Orain dela hamar bat urte joan ginen Atxaga eta biok hitzaldi bat ematera, eta pentsatu nuen: nik hona itzuli beharra daukat... eta nolabait hor hasi nintzen bideratzen beste...

➤ ... sonoritate bat, eta horren lekuko da *Dabilen harria*, nire ustez zure lorpenik aberatsena alor honetan...

Bai, oso tratatua dago, estudio on batean eginda... eta kantu xamurrak, niri ere asko gustatzen zait, nik uste dut domaia dela ez gehiago entzun izana. Nuevos Mediosek ez zuen asko bultzatu diskoa, baina bai, nik asko maite dut disko hori... uste dut borobila dela neurri batean... behar bada kantu sendoagoak ziren aurreneko diskoan, baina disko honek badauka zerbait...

➤ Azkenengo biak parekoak dira, molde beraz eginak... musiko bereitsuak...

Lekua, lekua ere bera, beste sonido bat da, baina bai, molde bera... nik beti esaten dut nire kantuak oso pozik daudela hor, orduan esaten didate holaxe egiteko je, je, je...

### Berandu dabilta

➤ Testua eta musika, kantu batean, bat datozenean erabat zerbait berezia gauzatzen da. Hori badakigu. Orain, jarri diezaiozue testuari ezaguri hauek: gainezka egin ez dezaten bertso luzeetan banaturiko hitz jariotasuna geldieztina; oso bisualak, distiratsuak, irudimenez beteak diren metafora bortitzak irudiak sortzeko; lurrari itsatsia dagoen dramatismo herritar bat, urbanoa, gizon arruntarena... eta garaikidea, hurbila denboran eta hara hemen hizkuntza berri bat euskal poesian... Gero, musikari erantsi tentsio neurtu bat, hasi geldika goruntz abestiaren erdialdean eztanda egiten duen arte, indar betean loopinak egiten garamatzala gora eta behera, gailurretik oinarrira, eta berriz ere gora! Akordeetan, soul klasikoaren baladen ohiartzuna; erritmoan, bluesaren kadentzia... gitarra akustikoan, folk kantariaren arpe-



jioa... eta hara hor, gure artean luze irauteko asmoarekin geratu den kantu bat.

...Ez, ez neukan... sartu zitzaidan buruan, kantu hori, eta hor eukitzen nuen buruan, baina nik uste dut ez neukala erabakia egiteko ere ez... Gogoratzen naiz Atxagak eman zidala horren... urteetan euki dut orijinal hori, gero ez dakit non galdu zen, eta zen aurreidazketa bat, nik kantatzen dudana bezala ez da sekula zehazki agertu, horrela zen goitik behera eta hor hasi nintzen nondik bidea topatu... eta hau da kantu bat nire ustez irrartian sekula ipini ez dena baina jende guztiak goguan gorde duena...

➤ Euskal herriko *Like a rolling stone* zela esan nizun behin, garagardo gehiegi edan eta gero...

Je, je, je...

➤ Kantu profetiko bezala aurkeztu izan duzu abesti hau. Bertan planteatzen diren arazoak gurekin diraute...

Bai, beno, ez bete direlako, baizik eta hor bazegoelako profetikotasunaren ezaguera hori, aurrera begitze hori, ez dakit nola esan zehazki... sasoi hartako mundutik haratzago begiratzen zion... eta nik uste dut horregatik gorde duela indar hori, berezko ohiartzun horregatik, eta gero gu hazitakoak gara

mundu hortan... oso testu beat zalea da, oso lotua dago ohiartzun horrekin eta nirekin erabat bat zetorrena, bai, eta *37 galdera* ere bai...

➤ Bilbo hura, garai hartakoa nolakoa zen...

Nik asko lotzen dut harekin, gure sasoi hura, han egotearekin... hiritartasunaren ideia... Atxagak, eta denok, nahiz hori esatea orain absurdoa ere baden... bageukan asmo antierromantiko bat ere zentzu batetan euskal kulturarekiko, beste garratzatzen batekin, beste edertasun batekin. Eta hori nik asko lotzen dut han egotearekin, erdaldunen artean egotearekin, minoritari buruzko burutazio harekin, afinitate selektiboarekin. Orduan bakarrik apaiztegitik ez pasatua izatea zen gauza izugarria, euskalduna izanda, oso arraroa zan, unibersitatean eta horrela, eta badakit hoiak topikoak direla, baina oso esanguratsuak eta horrelako sasoi batean zegoen, baina beno, gauza asko gertatzen ziren batera ere, ez zen gure gauza bakarrik gertatzen, bazeuden beste publikazio batzu *Anaitasuna*, *Zeruko argia*, mundu txikia baina oso dinamikoa, idazleak, kantariak, beno, gure aurrekoak, eredu bat beti, eta kontestu hortan, nik hiriarekin asko lotzen dut hori, poetika hori...

## TXIRRITX KILKERRARI GUTUNA

TXIRRITX  
TXANTXIKU IKASTOLA  
SAN JUAN KALE, 1  
20 560 OÑATI

OÑATI 2004KO MAIATZAREN 20A

KAI XO TXIRRITX!

ORAINGOAN OIHANEKO ANIMALIA BATI BURUZ IDAZTEKO ESKATU DIGUZU ETA ENEKOK KROKODILOA AUKERATU DUENEZ, ANIMALIA HORREN BERRI EMANGO DIZUGU: NOLAKOA DEN, NOLA JAIOTZEN DEN, ZER JATEN DUEN ETA GUK ZERTARAKO ERABILTZEN DUGUN.

KROKODILOAK BEGI IRTEENAK, MUTURLUZZEA, HORTZ UGARI ETA ZORROTZAK, EZKATA GOGORRAK ETA BUZTAN INDARTSUA DITU. HANDIENAK AUTOBUS BATEN TAMAINA (ZAZPI METRO) HAR DEZAKE. ANIMALIA HONEK AITAJAUNA ETA AMANDREA BAINO URTE GEHIAGO BETE DITZAKE, 120 URTEZ BIZI DAITEKEELAKO. KROKODILOA IBAI ETA LAKUETAN BIZI DA ETA BAI URETAN ETA BAI LEHORREAN ONDO MOLDATZEN DA.

OIHANEKO ANIMALIA HONEK UGALTZEKO (KUMEAK IZATEKO) ARRAUTZAK IPINTZEN DITU. KROKODILO EMEAK LURREAN ZULOA EGITEN DU ETA ARRAUTZAK IPINI ONDOREN LURREZ ETA BELARREZ ESTALTZEN DITU BERO MANTETZEKO; KUMEEN ZARATAK ENTZUTEN DITUENEAN, AMAK LURRA KENDU ONDOREN KUMEAK AHOAN HARTU ETA URETARA ERAMATEN DITU HEGAZTIEK JAN EZ DITZATEN.

KROKODILOAK HARAGIA ETA ARRAINAK JATEN DUENEZ, EHIZEAN EGIN BEHAR DU. EHIZEAN EGITEKO URETAN EZKUTATZEN DA BEGIAK ETA SUDURZULOAK UR GAINEAN DITUELA EDO BESTELA LO PLANTAN EGOTEN DA UR ERTZEAN; HORRELA ZAIN EGOTEN DA ETA LEHOIA, HIPOPOTAMO TXIKIA, BUFALO GAZTEA, OREINA EDO ANTZERAKO ANIMALIAREN BAT URA EDATERA JOATENDENEAN KROKODILOAK ERASO EGITEN DIO HORTZEKIN EDO BUZTANAREKIN UR AZPIAN SARTUZ ITOTA HIL ARTE.



Uretan ezkututzen da begiak eta sudurzuloak ur gainean dituela.

GIZAKIAK KROKODILOAK HARRAPTATZEN DITU BERE LARRUAREKIN OINETAKOAK, PETRINAK ETA POLTSAK EGITEKO.

HAUR IPUINETAN SARRI AGERTZEN DA KROKODILOA. EZAGUNA EGINGO ZAIZU PETER PAN LIBURUAN KAKO OKER KAPITAINARI ESKUA ERLOJU ETA GUZTIZ JAN ZIOLAKO!.

LASTER ARTE,


ENEKOREN GURASOAK





Laida Azkargorta

## — PATUA ZEIN GAUZA BITXIA DEN —



*Horregatik harritu naiz nire gizonaren atzetik gerria inguratuz agertu diren bi beso ikusi ditudanean, eta are gehiago emakume baten burua sorbalda gainean pausatu zaionean.*

**P**atua zein gauza bitxia den. Gaur nire gizona ezagutu dut. Mundu honetan niri dagokidana, esan nahi dut. Orain arte niretzat gorderik egon dena, alegia. Leiho batean zegoen; ni aurreko zebrabidean, semaforoaren zain. Ikusi eta ezagutzea, dena bat izan da. Hori gizona, hori, egokitu zaidana. Egia esan, hain ederra ez nuen espero. Hamaika mitxoleta nabaritu ditut erraieran loratzen eta irribarre egin diot. Bera ere, han leihoan, berehala konturatu eta ezagutu nauelakoan nago. Lotsatia da, hala ere, ez baita ausartu niri keinu txikienaz ere erantzuten. Baina nik badakit ezagutu nauela. Etxea ere dotorea da. Zalantzan nago orain. Ez dakit bere etxean emango ditugun geratzen zaizkigun urteak, nirera etorriko den ala beste zerbaite bilatuko dugun biok elkarrekin. Semaforoa berde jarri da eta ni hantxe kieto geratu naiz. Ez dezala pentsa aukerak aprobetxatzen ez dakiten emakume horietakoa naizela. Hasteko bidaia bat egitea izan-

go da onena. Elkar ezagutzen joateko, diot. Hiri erromantiko batera, Lisboa adibidez, edo Buenos Airesera. Edo fadoak eta tangoak, biak batera, entzun ahal izango ditugun lekuren batera. Iluntzean paseatzera aterako gara ibai ondotik. Tarteka, erakusleihoren bat begiratzeko aitzakiarekin, atzera-geago geratuko da, isilik, niri begira, nire keinu guztiak aztertuz, nirekin egotearen zoriona ezin sinetsirik. Izan ere, emakume baten ondoan bizitzeak dakarren gozamina dastatu gabea dela iruditu zait. Horregatik harritu naiz nire gizonaren atzetik gerria inguratuz agertu diren bi beso ikusi ditudanean, eta are gehiago emakume baten burua sorbalda gainean pausatu zaionean. Orduan uler-  
tu dut nire gizona errutina aspergarri batetik salbatzera nakarrela patuak, eta bere aurpegian zorion eta itxaropen distira bat pasatzen ere ikusi uste izan dut. Nik eskainiko baitiot luzaroan bere barnean lo iraun duen piztia grinatsua esnarazteko bidea. Ema-

kumearen eskuak haren bularraldean gora eta behera mugitzen hasi direnean eta, geroxeago, belarrarian horzkada txikiak ematen hasi zaionean, etsaia azeria baino azkarragoa dela konturatu naiz. Baina nire gizonaren eta bion artekoa sendoa da. Sendoa eta halabeharrezkoa, atzera pausorik gabea. Pena apur bat ere sentitu dut emakumearengatik. Gizonak, orduan, jiratu eta, emakumeari gerritik helduz, beragana erakarri du. Bere eskuak ere mugitzen hasi dira, emakumearen lepoa musukatzen duen bitartean, gerrialde osoa ordena gabe baina zehatz-mehatz haztatuz. Eta eskue-tako bat, poliki-poliki igoz, bular baten gainean pausatu eta laztantzen hasi zaionean, konturatu naiz nire gizona koldarra dela, errazkeria eta erosotasunean eroria, eta estrategia ona prestatu beharko dudala emakume horren atzaparretatik askatzeko.

*Isabel Etxeberria*

# 11-M

**A** lokaturiko bizitzako egongelan dago Jamal eguzkiaren lehen errainuen zain. Gelaren erdi-erdian dago oinpeko baten gainean belauniko. Eskuak belaunen gainean ditu. Leihoko zirrikitutik eguzkiaren lehen keinuak ikusi ditu laino artetik. *Usholli fardhaz fajri subhi raka'atin ada'an lillahi t'ala*. Nahiko egoki jarrita dago, Meccarantz zuzenduta pare bat graduko akatsarekin soilik. Bart gaueko lo ezak nabari zaizkio betazprietan. Larruzal iluna areagotzen dio. *Allahu Akbar*. Aurpegi erabat zurruna du, begirada galdua. Matxuratutako lanpara ondoan berekiko errepikatzen ditu Coran-eko aleyak. *Subhana Robbil Al-Azeem*. Eguneroko betebeharrak duen arren, gaurkoan sekula ez bezala sentitzen du bere barrena. *Subhana Robbil Al-Azeem*. Urduri, pozik eta deseroso dago. *Subhana Robbil Al-Azeem*. Oin biluzietatik nabari dituen hotz kilimak, urduritasunak eragindako lo ezak, gaurko egun handia iritsi izanak, errezoetatik kanporantz xaxatzen dute bere gogoak. Sami Allah Huliman Hamudah. Txikitatik sendotzen joandako Islamaren kateak astunak dira, ordea, gogoak errezotik aska ahal izateko. *Subhana Robbil A'la*. Inoiz baino ozenago sentitzen ditu bere bihotzaren danbatekoak, lehertzeaz bezala. *Ashadu ala*

*ila-ha illallah la-shaeeka-la*. Eguzkia ia osotuta ikusten du leihotik. *Fil Alameena inaka hamidun majid. Assalamu Alaikum. Assalamu Alaikum*. Amaitu du bere egunsentiko errezoa.

Behin arimaren beharrak aseta, gorputzaren beharrei iritsi zaie txanda. Axuleiu pitzatzeko sukaldera sartu da. Hozkailu zaharra zabaldu du geratzen zen esne apurra atereaz. Huraxe berotu ostean hozkailua itxi eta gasaren giltza itxi du. Sukalde zaharreko mahai gainean jarri du katilukada esne, bera ere eseriz. Ogi kozkor batzuk esnetan ito ondoren irensten ditu, baldar xamar, bere bixarretan apurrak kateatzen direlarik. *Espero no olvidarme nada*. Gosaltzen ari da burua beste edonon baldin badu ere. Horman zintzilikatutako ordulari zaharrari begiratzen dio behin eta berriz. Denbora nahikoa du, soberan. *¿Habré metido todo en la bolsa?* Trena hartu behar du, goizeko lehenengoa. Barrean zerbait haustear bezala nabari du. Azkenaurreko aldiz ordulariari begiratu lasaitzen saiatu da, denbora nahikoa duela berriz ikusita.

Gosaltzen amaitu ostean, motxilan begira hasi da kontu handiz. Dena prest duela ziurtatzen du. Denbora soberan izan arren geltokirako bideari ekin dio. Euri zipiztinek betaurrekoen leiar txikiak lohitzen

dizkiote. Hala ere aurrera doa, apurtxo bat uzkertuta, motxila bizkarrean duela. Bost bat minutuko bidea du geltokiraino. Espaloietatik doa pauso txiki sendoak emanez, zikinez jantzitako etxe klonikoen artetik. Hainbatetan egindako ibilbideari gaur beste kemen batez ekin dio. Eta berriro tximelak hasi zaizkio dantzan sabelean. Adreiluzko nahaspila horretan barrena ikusitako dena irakurriz baretzen saiatzen da. *Bar Paco, Peluquería Nieves, No a la guerra, Un poco de Magno es mucho, Alcampo, ... Estación RENFE*.

Geltokian bakarrik dago. Lanbroak trenbideko harriak bustitzen ditu, leun batzuetan, kolpeka bestetan. Jamal geltokiko aterpetxoan dago. Aurrera begira dago, trenbideaz bestaldeko sasioi begira, baina ezer ikusi gabe. Barneko ahotsa berriketan hasi zaio. *Hoy es el día, después de años...* Berriro ere, sabel inguruan edo, urduritasun takateko bat sentitu du. Patrikan eskua sartu eta bidaiarako txartelak bertan ukitu ditu. Haizea dabil ero antzean eta, noizean behin, lanbro tanto batzuk iristen zaizkio aterpean izan arren. Motxilaren zama sentitu du sorbaldan eta bertara joan zaio pentsamendua. *Sí, está todo*. Andre bat iritsi da geltokira. Gona eta txaketa urdin ilunez jantzita txuti-txutik dabil bere zapata takoidu-

nen gainean. Bere laka usaina hedatuz Jamalaren aurretik igaro da zeharbegirada bat eginez. *Estos, estos... ¿están en todas partes!* Jamali jaramonik egin gabe geltokiko teilatupean geratu da. Arabiarrarengandik ahalik eta urrutien jarri da, baina bere orrazkera harrotua euriarengandik babestuz beti ere. Burrumba leun bat entzuten hasi da. Trena badator. *Yo por si acaso, me pondré lo más lejos posible de éste*.

Andre edadetuaren etorrerak bere burutazioetatik esnatu du Jamal. Hari begira geratu da eta ondotik pasatzean burua makurtuz agurtu du. Andreak ez du zirkinik ere egin ordaintan. Mespretxuzko begirada batez zigortu du. Geltokiko teilatupean beragandik ahalik eta urrutien joan dela ikusi du. Bat-batean trena azaldu da, tran-tran batean geltokira gerturatuz. Trena geratu da eta Jamal bigarren bagoian sartu da. Andrea ordean hirugarrenera joan da, horretarako hoge bat metro ibili beharra izan badu ere. Ateak itxi dira eta trena martxan jarri da. Geltokian haizea eta lanbroa soilik geratu dira elkarri bultzaka.

Ia elkar ukitzen duten autistaz beterik dago bigarren bagoia. Jende gris desberdinek betetzen dituzte eserlekuak. Denak dira desberdinak; gris ilunak batzuk, argixeagoak besteak, baina denak grisak, errutinazko-

ak. Denak berdinak bere desberdintasunean. Zutik doazenak ere ez dira beste-engandik nabarmentzen, koloregabeak hauek ere. Ez diote elkarri jaramonik egiten eta trenetik atera orduko ahaztuko dute elkar. Bakarti tropa honetan bat gehiago da jadanik Jamal.

Atetik sartu orduko, ezker-eskuin begiratu du. Segundo batez edo zalantza egin ostean, esertzeko tokirik ez eta ate ondoko gunean geratu da zutik. Motxila bizkarretik erantzi eta lurrean utzi du kontu handiz, zerbait apurtzeko beldurrez bezala. Trena martxan hasi da. *Cuatro paradas y Saib estará esperándome*. Eskulekuari heldu dio bere pentsamenduetan murgilduz.

Itsaso gris honetan, leiho ondoko eserlekuan berrogei urte inguruko gizon lodikote bat dago. Atea zabaldu da eta Jamal sartzen ikusi du. Hari begira dago. Duela bost bat urte kolorea galdutako larruzko jaka darara soinean. Bazterrak ondo gastatutako alkandorra nabari zaio bere papo azpian. Ez dio begirik kentzen arabiar gazteari. Motxila lurrean uzten duen era susmagarria iruditu zaio. *¿Qué llevará el morito en la bolsa esa?* Aldian behin bere ile bakanduak eta bibote fina ukitzen ditu eskuarekin, oraindik hor daudela gogoratzeko. Trenak ekin dio bideari baina gizona ez da konturatu ere egin. Begi zaintsuez tinko dihardu Jamali begira.



la elkar ukitzen duten autistaz beterik dago bigarren bagoia. Jende gris desberdinek betetzen dituzte eserlekuak.

Denbora badoa segundoka, minutuka, geltokika. Ez da inor igotzen, ezta jaisten ere.

Trena geratu da berriro. Atea irekitzearekin haize freskoak Jamalen aurpegia laztandu du. Minutu erdi inguruko geldialdian jendea igo eta jatsi da, marea gris hartan olatua joan eta etorri balitz bezala. Baretu da berriz mugimendua. Jamal bere aurrean suertatu den neska gona mozdunari

begira jarri da, ia nahigabe. Begirada ate gaineko tren ibilbidera jarri du. *Sólo faltan dos estaciones*. Honek urduri jarri du berriz. Motxilari begiratu dio. *Dentro de dos estaciones Saib estará esperando con el coche*. Ordulariari begiratu dio ondoren. Lasaitzeko begiak itxi eta bere jaioterri maitea gogoratu du, bere aita eta ama, anaia txikia, zoco-ko kale estuak *...Diez años que no los veo*.

Kolpe sendoak nabari ditu barrenean. Bere aldamenean duen gizon sendoa bere maletari begira dagoela ohartu da begiak irekitzean. Txukun jantzita doa eta gizon gihartsua dirudi. *¿Qué querrá éste mirándome así?* Bere aurpegira begiratu eta hotza sentitu du. Ile motz-motza du eta aurpegi zorrotza. Badirudi inoiz sentimendu aztarnarik bertan ez dela egon.



Hogeita bost bat urteko neska beltzaranak treneko kristalak ispilu gisan profitatzen ditu bere orrazkera txukun dagoela ziurtatzen. *¿Qué hace el extranjero este con los ojos cerrados?* Gona motz beltz bat eta txuriarrosazko top estu baten gainean txaketa txiki bat darama neskatoak. Dena baino zaharragoa dirudi hainbeste makilailaz azala estalita. *Mira el cachas ese mirando la bolsa del morito.* Eserleku bat jaberik gabe ikusi du neskatxak eta pausotxo arin pare bat eginez bere egin du. Esertzearekin batera trena abiadura gutxitzen hasi da. Bi hankak gurutzatu ditu elegantzia adierazi nahi eta ezin batean.

Aurrean zuen neskak esertzerari abiatu da eta atarako bidea garbi geratu zaio Jamali. Trena bere martxa moteltzen hasi da. *Ésta es la estación.* Ate ondoko leihoz gerturatu da norbait bilatu nahian kanpoaldean. *¿Habrá llegado ya Saib?* Sabeleko kilimak sentitu ditu, zoko-koko usaiak nabaritzen ditu bertan balego bezala. Taupadak azkartu zaizkio. *¡Ahí está!* Begi niniak zabaldu zaizkio oraindik gehiago. Trena gelditzear dago. Egonezinik dago eta segundo bakoitza minutu, ordu iruditzen zaio. *¡Por fin!* Atea zabaldu da eta kanporanzko bideari ekin dio, bat batean zerbait falta zaiola konturatu denean. *La mochila.* Trenerantz buelta ematear zihola gainera erori zaio norbait. Danba! Andeneko lurra jo du bete-betean ehun

bat kiloko zamak bultzatuta. Lurrean botata eta norbait du bizkarrean. *¿Qué pasa?* Ezer esaterako eskuak esposaz lotuak ditu bizkarrean. Lepoa mugitu nahi eta ezinean dago. Danba! Matraileko bat. Betaurrekoak apurtu dizkiote. Begiak odoloduta, polizi mordo bat ikusi ditu inguruan pistolak beragana zuzenduta.

Motxilari begira dago morroskoa neska gaztea esertzerari abiatu denean. Ia bi metroko garaieratik mespretxuz begiratzen dio Jamali. *¿Qué se crearán estos?* Zapata beltz lustratuak, bakero berriak eta larru beltz distiratsuzko txupa luzea darama. Trena gero eta geldoagoa doa. Arabiarra aterantz hurbiltzen ikusi du. Jamal aurrera eta aurrera, motxila han geldu. Jakaren poltsikotik talkie bat atera eta zerbait xuxurlatu du. Trena gelditzen ari da eta motxila han lurrean. Atea zabaltzen hasi da. *Se la deja, se la deja ... voy a por él.* Itsututa gainera salto egin dio. Lurraren kontra takateko ikaragarri bat entzun da. *Será cabrón.* Esposak jarri eta lepoa biratu nahian nabaritu duenean ukabilkada bat erantsi dio. Eskua odolez ziprztinduta burua altxatu eta lehen abisatutako lankideak ikusi ditu pistola eskuan dutela. *“Coged la mochila con cuidado, está al lado de la puerta!”*

Ohean sartu da neskak beltzarana. Gustura dago merkatu ondoko jatetxean zerbitzari lana eman diote-

lako. *Cada día tendré que ir en tren desde mañana.* Trenaz oroituta goizeko pasadizoa etorri zaio gogora. Ohe ondoko iratzargailuak 23:00 adierazten du zenbaki gorritz. *Estos chillados islamistas. Menos mal que iba el poli cachas en el vagón.*

Tan! Tan! ... kanpaikadak entzuten ditu bibotea aniskopan bustitzen duen bitartean. Etxe azpiko tabernan dago mozkorrik, atzo bezala, bihar bezala. Tan! Tan! ... Tabernako telebistan arabiar jatorriko atxilotu berri talde bat azaldu da. *Joder! ¡Como el de hoy por la mañana.* Tan! Tan! Anis tantak doazkio ahopetik alkandorra gastatua zikinduz. *¡Casi nos mata a todos!* Tan! Tan! Tan! Hamaikagarrenaren ondoren isiltasuna nagusitu da kanpoan. Tabernan Telediarrioko aurkezlearen zurrumuruak jarraitzen du.

Irratia entzuten ari da ohean, lo hartu ezinean. Ohe ondoko aulkian utzi ditu arropak, pistola eta plaka. *“Son las once, noticias en Radio Nacional de España”* Ez dio jaramonik egiten irratia. *Parecía uno de esos, pero no llevaba nada raro.* Bakarrik dago matrimonio ohean. Lo hartu ezinean, beste prozac bat hartu du mesanotxetik, geratzen zaion azkenekoa. *Y decía que lo único que quería era ir al aeropuerto.* Begiak itxiz irentsi du pilula. Beste gau bat lo egin ezinik, beste gau bat bakarrik. Ohea handia izan arren bere alderdia soilik betetzen du. Are handiago ematen du oheak gisa horretan. Irratiaren zurrumuru

entzuten da. *Si no canta habrá que soltarlo mañana.* Irratia itzali du, begiak berriz itxi eta ezertan ez pentsatzen saiatzen da. Ezinezkoa zaio ordea. *¿Pero... y si es uno de esos?*

Ziegako argiak itzali dituzte, hamaikak iritsi diren seinale. Etzanda dago Jamal koltxoi gogorrean. Birrindutako gauzen zerrenda amaigabea dirudi gajoak: sudurra, betaurrekoak, motxilan zituen kristalezko pitxiak, duintasuna... Oraindik ez daki zergatik duten preso. Ez du ulertzen zergatik atxilotu duten bere lagun Saib. *El pobre solo me iba a llevar al aeropuerto.* Bere buruari galdeetzen dio noiz utziko duten aske, zer duten bere aurka, zer dugun beraien aurka. Ezjakintasun honetan, badaki ordea hilabetetan aurreratutakoaz erositako abioi billeteak jada ez diola deus balio. Argi dauka urteetan ikusi ez dituen senideak ikusi gabe jarraitu beharko duela. Amorratuta dago, basurde zauritu bat bezala. Bere arrebatxoarentzat zerramatzan kristalezko figuratxoak apurtu dizkiotela ere ikusi du. Sukaldeko egutegian borobil gorri batez kiribildu zuen gaurko eguna. Eguna berezia izan behar zuena, Maiazaren 11a berezia izan da, bai. *Un día especialmente jodido.*

(Ez omen da basurde zauritua baino animalia arriskutsuagorik...).

## ZAZPIGARREN HILABETEAN

- Inaxio, gaur medikuarenean izan naiz.
- Eta, zer moduz dago gure morroskoa?
- Oso ondo daudela esan dit.
- Gure mutikoa harri-jasotzailea izango da, seguru!
- Biak oso ondo daudela.
- Biak? Zer esaten ari zara? Burutik egin al zara ala?
- Ez, inoiz baino hobeto nago, eta bikiak izango ditut.
- Bikiak!! Bi... baina nola liteke? Nora begira egon da sasi-mediku hori zazpi garren hilabetera arte?
- Berak ere ez du asmatu arrazoirik ematen, miraria dela esan du.
- Zer mirari eta mirari ondoko! Zazpi hilabeteaz ezkutan egonda da orduan! Gure Peruri ez dio behar adina hazten utziko horrek, eta nik ez dut neska txiki baten plantako mutikorik nahi, entzun? Ez dut ikusi ere egin nahi beste hori!

Angelak bazekien senarrak ez zuela amoroski laztanduko, baina inoiz ez zuen pentsatuko haurra horrela ukatuko zuenik. Halere, ez zuen beste askotan bezalako negargurarik sentitu, tristura gramobakar bat ere ez zuen azkeneko zazpi hilabeteaz irabazi zituen hamabost kilo haietan. Inoiz baino ederrago ikusten zuen bere burua, eta horregatik, edozein aitzakia bilatzen zuen etxeko ispilu bakarra zuen gela hartan sartzeko.

Gauero lez, Inaxio afaltzen bukatu orduko oheratu zen, eta Angela bakarrik geratu zen sukaldean. Ontziak garbitu zituen, astiro, eta sukaldeko zereginak amaituta, gaueko erritua hasteko ispiluaren gelan sartu zen, baina oraingo honetan inolako aitzakiaren beharrik gabe. Atea gurutzatu eta argizaria piztu zuen, ez zuen nahi izaten momentuaren intimitatea sabaiko argi itsugarriarekin haustetik; eta ondoren, betiko lekuan utzi zuen: ispiluaren aldameneko kutxaren gainean, su-garra itzaltzeko arriskutik salbu. Balkoira iristeko lau pausoak eman zituen atea zabaltzeko, jada hanka hutsik, egurra azpian sentituz; beste lau pauso eta ispiluaren aurrean zegoen berriro. Ilargi beteak azkeneko aldiz agertzea erabaki izan balu bezala argitzen zuen gaua, eta horregatik putz egin zion argizariaren suari, gau hartan ez zuela behar erabakita. Arropak

kendu eta gorputz biluziaren islari begiratu zion. Gero, ondoko baserriko Mariak oparitutako ukenduarekin igurtzi zuen azala, eta amaitu zuenean bainila usaina zuen gorputz osoan. Benetako misterioa zen Angelarentzat: nola zitekeen bainila usainik gabeko ukendu hura gorputzean ematearekin batera bainilatan bainatu izan balitz bezalako usaina izatea? Eta horrela, leihotik sartzen zen haize leunak Angelaren gorputzarekin jolasten zuen heinean, usain gozo hura gela guztian zabalduz zihoan.

Ohiturari eutsiz, ispiluan ageri ziren oinei begira geratu zen lehendabizi. Ez zen eguna zehazteko gai, baina baziaren aste batzuk zutik behera begira jarri eta oinak ezkutatzen zitzaizkiola; horregatik begiratu zion arreta osoz, mihise zurian bi oinak margotu baino lehenagoko behaketan diharduen margolaria balitz

bezala. Gero borobiltasuneraino eramanean zuen begirada. Inoiz baino borobilagoa eta handiagoa ikusi zuen, egun batetik bestera bat izan zen lekuan bigarrena bere presentzia baieztatu nahian balebil bezala, zeru goiko ilargiak bere sabela ispilutzat hartu izan balu bezala. Bularrak ere bete-

beteak zituen, Apalaren erra-

pea etorri zitzaion gogora. Erritua amaitzeko ile beltz marduleko mototsa askatu eta orrazten hasi zen, korapilo guztiak askatu zituen arte.

Egin beharreko guztiak eginda ohean sartu zen, zortea bere alde zuela erabakita. Lehenengo haurra bedeinkapena izan zen, eta bigarrena patuaren seinalea, pentsatutakoa beldurrik gabe egiteko adierazten zion seinalea. Gizona abandonatzeko ideiak eragiten zion lastima apurra ere erabat desagertu zen goiz hartan izan zuten hizketaldiaren ondoren.

Aurrez erabakitakoa egiteko adorea zuen azkenean. Berandu baino lehen herrirako bidea hartuko zuen, atzera begiratu gabe, baina ez betiko aldapa malkartsutik, beste bidea hartuko zuen, askoz lauagoa. Geltokirainoko ibilbidean lasaitasun itxura eman behar zuen, ezagun guztiak agurtuko zituen, inolako susmorik ernarazi gabe. Geltokian, erloju azpiko eserlekuan izango zuen zain bere atea birritan jo zuen postaria.



## BEGIRADA GALDUAK

**A**lazne!!! Jaikitze ordua!!-dio amak sukaldetik-ordurako esne beroa utzi dio mahaian. Logura du eta jaitsita dagoen pertsianaren zirrikituetatik sartzen diren eguzki izpietatik ezkutatzeko, maindireen artean murgildu da. Goizeko zortziak dira, eta Alaznek ez du jaiki nahi.

*Ordu horretarako Muhamed aspaldi kalean da. Muhamed palestinar gaztetxoak hamairu urte ditu, israeldarrak eraikitzen ari diren harrisiak erditik mozten duen herri horietako batean bizi da. Kera deia egunero moduan, goizeko 6etan bukatu eta orduan atera da etxetik. Eskola ez du etxetik urrun, baina ez du zuzen joaterik, ordu bateko ibilaldia du. Arazorik denetan, hiru ordu ere pasa ditzake bidean, askotan ez da eskolara heltzen.*

Jaiki da azkenean Alazne; Jon, anaia txikia, bere gainean saltoka hasi denean amore eman du. *Esnatu! Esnatu!* Eskolara joateko ordua! Hamabi urte ditu Alaznek, nerabetasunaren bidean dagoen gaztetxoak. Komunera joan da lehenengo, aurpegia garbitu eta ispiluari so gertatu zaio. Ondoren, jada hoztu den esnea hartzera joan da sukaldera.

*Goizeko bostetarako mugimendua nabari da Muhameden etxean eta ingurukoetan ere. Eguna zer ekarriko dien ez dakite, gauera helduko diren ere ez dakitene modu berean. Ama sukaldean lanean dabil, Muhamed eta bere anai-arrebak eskolara joateko prestatzen. Zazpi lagun bizi dira, gurasoak, amona, Muhamed eta hiru anai arrebak.*

Alazne eta Jon elkarrekin doaz eskolara, eskutik helduta. Alaznek bakarrik joatea nahiagoko luke, baina tira, arreba zaharraren papera betetzea egokitu zaio eta onartzen du.



Badoaz eskolara parkean barna.

*Bere motxila zahar eta urratua soinean jarri eta ama agurtzera doa. Amak azkeneko besarkada bailitzan gogor inguratzen du Muhamed bere besoekin. Muhamed zaharrena da eta ez du galdu nahi, itzuliko ez ote den beldur da. Malkoak ezin eutsiz, goizero legez. Muhamedek ez du ulertzen zergatik egiten duen amak negar goizero, azkeneko besarkada bailitzan bere besoekin gogor inguratzen duenean. Badoa kalera.*

Ringggg!! Gelara sartzeko ordua. Egun ederra gaurkoa. Eguna berehala pasa ohi zaio Alazneri. Berehala helduko da etxera itzultzeko ordua. Etxeko-lanak egin eta kalera lagunekin jolastera joan ohi da.

*Gaur ere ez dira heldu eskolara. Arraioa! Ez diete kontrola pasatzen utzi. Bi ordu eman dituzte zain. Israeldar polizia gazte horrek ez zuen egun ona antza, gutxi*

*izaten dituzte horiek onak. Bertan zeuden haur eta gaztetxoei irainka hasi dira militarrek. Eguneroko irudia, hala ere, horretara ohitzerik ez. Haur eta gaztetxoak beldur dira, beldurra barruan daramate beti eta hain dute barneratuta zeinen ezinen duten hain erraz atera.*

Alazne, Mireia eta Maiderrekin dago etxe azpiko jazarlekuan hizketan. *Polita da ezta?-* dio Mireiak. *Ke ba, ez da nire gustukoa, gainera memelo hutsa da!!-* Maiderrek. *Ez al duzue hitz egiteko beste gairik?* Beti jendea larrutzen! Banoa!

*Etxetik atera da Muhamed ere. Lasai ama, ez naiz urrutira joanen. Ez du ama kezkatu nahi. Lagunak atzean utzi eta korrika joan da, poltsikoak harriz bete eta eguneroko panorama... Bat batean, esku batek gogor hartu du Muhamed ileetatik... Askatu! Askatu!*

Arratsaldeko 9ak dira, Teleberria hastera doa, Alazne eta Jon lurtean jolasean dabilta, gurasoak telebistari so daude. Hasi da Julio Ibarra eguneko berriak ematen. *Ezer onik ez!!* Esan du Alazneren amak! Alazne aitaren ondoan eseri da, nekatuta dago. Orduan ikusi du Muhamed, israeldarren jeep batera lotuta, giza ezkutu moduan, negarrez ari da palestinar gaztea, beldur da. *Zergatik aita?* Aita zer erantzun ez dakiela telebistari begira gelditu da. Kazetaria Muhamed gaztea jipoitua izan dela ari da kontatzen, Alazne negarrez hasi da eta telebistan ikusten duen gaztetxoaren begiekin egin du topo.

Begirada galduak bi gaztetxoan aurpegietan.

**Maider Sukuntza**

## ZORIONTSU IZATEN LAGUNTZEKO ERAKUNDEA

**A**lkateak *Zoriontsu Izaten Laguntzeko Erakundea* sortu zuenean, Ostarrotzeko bizilagunak ilaran eta korrika hurbildu ziren bertako leihatilara. Alkate jaunak agindutako paper haiek bete eta erakundera eramate hutsarekin dena konponduko zela iruditu zitzairen. Herrian festa batean bezala biziko zirela.

Alkatearen aginduz, erakundeko leihatilan lanean jarri ziren herri guztian, zalantzarik gabe, zoriontsuenak ziren Maite eta Juakin. Barre eta irribarre kopuruarengatik neurtzen bada zoriontasuna, alkateak erakundearen langileen aukeraketan bete-betean asmatu zuela esan beharko genuke. Izan ere egia zen Juakinek zein Maitek herrian beste inork baino irribarre zabalagoa eta intentsuagoa zutela, eta edozein gauzak eragiten zuela haiengan barrea. Horregatik ziren, hain zuzen, ezagunak herrian.

Ordea, urteak ziren Ostarrotzera tristura iritsi zenetik. Urteak bizilagunak triste bizi zirenetik, jaiki eta gogorik gabe eguna hasten zutenetik. Mari dendariak, adibidez, ez zuen aspaldian dendako pertsiana igotzen, izan ere, ia inor ez zitzaion etortzen ezer erostera. Eta mostradore atzean ematen zituen orduak, burua esku gainean jarriarik, denbora eskaparartetik zehar nola igarotzen zen ikusiz.

Ostarrotzetarrek lotan, etzanda edo isilik ematen zituzten egunak. Jateko goserik gabe eta edateko premia handirik barik bizi ziren. Hitz egin ere, gero eta gutxiago hitz egiten zen Ostarrotzen. Pepak, herriko berritsuak, ez zituen dagoeneko kaltetik igarotzen ziren herritar guztiak agurtzen ezta eguraldiari buruzko bere hizketaldi ikasiarekin asperitzen. Edukazioa bera zegoen galduta Ostarrotzen: inork inor ez baitzuen

agurtzen, ezta begietara begiratzen ere. Egia esan, inor ez zen kalean ibiltzen. Kalean, ostarrotzetarrak aspertu egiten baitziren. Are gehiago Tomasek etxea grisez margotzea erabaki zuenetik. Eta ondoren, Anak, Jose tabernariaren alargunak, bere fatxada ere grisez pintatzea deliberratu zuenetik. Atzetik etorri ziren Goiko Kaleko beste bizilagun guztiak. Eta azkenean Goiko Kale osoa kolorez hustu zuten. Hainbeste, ezen, alkateak baimena eman baitzuen bizilagunei Kale Grisa izena jartzeko, Goiko Kale bazterturik. Kontua da, beranduago, Beheko kalea ere grisez margotzen hasi zirela bertako auzokideak, Juakin eta Maite horren aurka jarri baziren ere. Bukaeran ordea, barrez onartu zuten, barregarria

«Ostarrotzetarren  
zoriontasun eza  
oroimen arazo bat  
besterik ez zela ez zuen  
sinetsi ere egin nahi»

iruditu baitzitzairen herri osoa grisez itzaltzea. Eta ordurako Kale Gris bat bazegoenez, Goiko Kale Grisa eta Beheko Kale Grisa izenak jarri behar izan zizkieten azkenean Ostarrotzeko bi kaleei.

Alkate jauna erabat atsekabetua bizi zen azken urteetan bere herria tristuraz beteta ikusirik. Ezin zuen ulertu nola sartu zen sumintasan hura herritarren bihotzean; eta, okerrera zera zen: ezin zuela hura gelditu. Bazirudien herriko bat barneminez gaixotu zela eta beste guztiak kutsatu zituela.

Horregatik pentsatu zuen erremedioren bat aurkitu behar zuela. Gai-

nera, bere etxera ere iritsia zen tristuraren gaitza eta bere sofán eseria zegoen, emaztearen eta bere artean. Izan ere, Rosa negarrez ari zen etengabe azken asteetan. Baina alkateak ez zekien zergatik. Negar egiten ez zuenean, ezer ez zuen egiten. Eta galdetuta ere, ez zuen erantzun nahi izaten.

Alkatearen lana zenez herritarrak babestea eta haiek herrian zoriontsu izatea, egoerari irtenbidea topatu behar ziola deliberratu zuen alkate jaunak. Herritar guztiak izango zuten triste egoteko arrazoiren bat, eta horregatik utziko zioten kalera irteari eta barre egiteari eta hitz egiteari. Arrazoi hori bilatzeko jo zuen Juakin eta Maitenganana. Ez baitzegoen herrian beste inor oraindik barre egiteaz gogoratzen zenik. Ostarrotzetarrak triste zergatik zeuden deskubrituko zuelakoan *Zoriontsu Izaten Laguntzeko Erakundea* sortzea proposatu zien Juakin eta Maiteri. Izan ere, beste guztiak irribarre galdu zuten arren, Juakinek eta Maitek oraindik eusten zioten. Eta entzuna zuen, nonbait, irribarre batek beste bat dakarrela eta hark beste bat, eta horrek beste asko atzetik...

### Maiteren irribarre

Zoriontsu izan aurretik barre egitea komeni dela pentsatzen duen horietakoa naizelako aukeratu nau alkateak leihatilan egoteko. Disparate izugarria iruditu zitzaidan hasieran *Zoriontsu Izaten Laguntzeko Erakundea* non eta hemen, Ostarrotzen jartzea. Inguruko guztiak baitakite urteak direla -nik eta Juakinek ezik- ostarrotzetar bakar batek ere ez duela irribarrerik egiten.


Triste jaio ez baziren ere, tristuraz beteta bizi dira aspaldian. Eta horixe esan nion nik alkateari. Hark ordea,

ezin zuela onartu eta zerbait egin beharra genuela esan zidan; bestelakoan, herria hil egingo zela edozein unetan.

Kontua da, bai Juakinek eta baita nik ere, gustura onartu genuela *Zoriontsu Izaten Laguntzeko Erakundearen* ardura eramatea. Baina nondik hasi ere ez genekien. Ez baita batere erraza. Galdeketa batzuk prestatzeari ekin genion lehenengo, edozein bulegoetan betetzen diren estilo horietakoak. Galderak egitea zen ordea zailena. “Zergatik ez zara zoriontsu?” zen pentsatu genuenetako bat. Eta hari ostarrotzetarrek nola demontre erantzungo ote zioten beldur ginen. “Noiztik ez zara zoriontsu? Sekula izan al zara? Zer behar duzu zoriontsu izateko?” ziren beste batzuk.

Alkateari erakutsi genizkion eta ondo iruditu zitzaion. Baina gutako inork ez zuen esperantza handirik. Zabalegiak ziren galderak, potoloegiak, sakonegiak. Eta zoriontasuna tamaina txikiko zerbait zela intuizten genuen bai Juakinek, bai nik eta baita alkateak ere. Ez genuen deskribatzen asmatzen ordea. Irribarrearekin harreman zuzena zuela besterik ez nekien nik zoriontasunaz. Ez nukeen sekula asmatuko zoriontasuna definitzen; irribarra zer zen esaten ordea bai. Eta antzekoak zirela uste nuen. Batak bestera eramaten ninduela, horretarako arrazoiak izan edo izan gabe. Eta ados jarri ginen hirurok horretan. Kontua ordea, ostarrotzetarrak noiztik eta zergatik zeuden triste jakitea zen. Eta ondoren, nolabait zulo hartatik ateratzea.

Pepa izan zen *Zoriontsu Izaten Laguntzeko Erakundearen* lehen bezeroa. Juakinek eta biok irribarra ahoan hartu genuen gure bulegoan. Eta papearak luzatu genizkion. Arrapaladan bete zituen denak. Pentsatzeko astirik gabe, lerro bat bestearen atzetik idatzi zuen, aspaldian hura guztia esateko gogoz egon izan balitz bezalaxe.



*Zabalegiak ziren galderak, potoloegiak, sakonegiak. Eta zoriontasuna tamaina txikiko zenbait zela intuizten genuen.*

Emaitzak txundituta utzi gintuen. Eta berdin Ana, Mari, Tomas, Rosa eta beste guztienak ere. Galdeketa guztiak irakurri eta zuzendutakoan hitz egin genuen alkatearekin. Eta hark ez zigun sinetsi. Ostarrotzetarren zoriontasun eza oroimen arazo bat besterik ez zela ez zuen sinetsi ere egin nahi.

#### **Anaren oroitzapenak**

Inork ez du ezer ahaztu Ostarrotzen

azken urteetan. Moda bat bezala izan da: inork ez du ahaztu inork egin diona. Bat hasiko zen horretan, ez dut gogoratzen zein izan zen, baina gero beste guztiok jarri genuen praktikan. Eta horixe erantzun dut nik galdeketa. Ezin dudala ahaztu nola Marik behin dendako atea muturren aurrean itxi zidan, zer behar nuen galdetu ere egin gabe; buruan ederki gorderik dudala Jose hil zenean Tomas hurbildu ere ez zitzaidala

egin jada tabenarik ez baineukan; izan ere, ez dut sekula ahantziko alkateak nola kendu zidan berez nirea eta Joserena besterik ez zen lokal hura. Peparena ere ez dut ahazteko, agur esateari utzi baitzidan bat batean, diotenez, bere senarrarekin oheratzen naizela -edo behin behintzat egin nuela- uste duelako; eta, gainera, niri berari baino hitz gehiago esaten dizkidalako, nahiz eta berak herriko berritsuaren titulua izan.

Nik badakit gainera, Tomasek ez diola Mariri barkatu hainbat urtetan bikote izan eta azkenean senartzat ondoko herriko farmaziako jabearekin ezkondu izana. Eta orduetik, bere dendara sartu baino nahiago du urrutiko lekuren batera erosketetara joatea. Edo ezer ez erostea.

Ongi oroitzen dut baita ere, zergatik bihurtu zen Rosa -alkatearen emaztea- bizirik hilda dagoen emakumea. Izan ere, sekula ez du ahantziko seme bakarria hil berritan alkateak egun guztia udaletxean igarotzea, eta bera alde batera uztea.

Eta nik ere badakit alkateak ez diola Tomasi barkatu Rosa bere emaztearekin izan zuen aferara. Are gutxiago Goiko Kalea grisez pintatu izana,

tristurari Ostarrotzeko atea oraindik gehiago irekiz.

Hortxe utzi dut paperean jarrita, garbi idatzita: ahazten ez duenak ezin duela zoriontsu izan. Eta Ostarrotzen inork ez du ezer ahaztu aspaldiko urteetan.

«Ahazten Laguntzeko Erakundearen giltza alkateak gordeko du, astero ahazten saiatuko den leku batean»

Orain alkateak paper guzti horiek betetzera behartu gaitu eta besteek idatzitakoak irakurtzera. *Zoriontsu Izaten Laguntzeko Erakundetik* irten naizenean, Peparekin topo egin dut eta aspaldiko partez berrikerian hasi zait nire erantzunak komentatzen eta bereak kontatzen... Bat batean irribarrea ikusi diot ezpainenetan. Eta automatikoki barrez hasi gara, lehengo ni eta gero bera: izan ere, berak orduan jakin du nik ez dudala sekula bere senarrarekin ezer izan. Eta esan dit badakiela zergatik hitz

egiten duen gehiago nirekin berarekin baino: “Nik isilik egoten ez dakidalako”. Orduan jakin dut txikitari, Jose zena maite zuela, behin, tabernan, jende guztiaren aurrean gona altxatu eta kulero-bistan utzi zuen arte. Eta barre algaraka “ordutik, hura ere ezin izan dut ahantzi”, bota dit. Negar malkoak ere atera zaizkigu ahaztu ezin ditugun oroitzen guztiak gogoratu ditugunean.

Pepak esan didanez, alkateak proposamen berria du herriarentzat: *Zoriontsu Izaten Laguntzeko Erakundearen partez, Ahazten Laguntzeko Erakundea* sortuko omen du. Bertan, astean hiru aldiz bilduko gara herritar guztiok. Eta bakoitzak koadernotxo batean idatzi beharko dituen aste horretan ezin ahaztu dituen gauzak. Ondoren koadernoak *Ahazten Laguntzeko Erakunde*an geratuko dira gordeta. Giltzapean.

#### Giltza

*Ahazten Laguntzeko Erakundearen* giltza alkateak gordeko du, astero ahazten saiatuko den leku batean.

*Izaskun Jauregi*

## Liburuez gozaten irakasteko

# “Liburuen Xarma” bilduma

Bildumako lehen bi aleak:

- *Zer egin dezake nire ikasle batek liburu batekin?* (9,50 €)
- *Poesia Gida* (10 €)

## Liburu-dendetan salgai!

**Etxean jaso nahi badituzu**, deitu Euskal Idazleen Elkartera: 943 27 69 99 (Nagore)



**Euskal Idazleen Elkartera**

Zurriola Hiribidea, 14-1. ezk • 20002 DONOSTIA • Tel.: 943 27.69.99 • Faxa: 943 27.72.88

## Nota nekrologikoak

Errautsezkoak diruditen elur-malut-tek, plist-plast!, izara ez den hiloihal destolestatuari atzamarka egin diote.

## Hitz balsamatuak

Iheskorra, baina ez da ura; hegada goxoa, baina ez tximeletarena; hala-koak dira hitzak zure ezpainetan.

## Itxaropena

Argi-printza, baina ez eguzkiarena; orainaldiaren zutabe, baina etorki-zun-eraikina; irriaren ataria, baina ez irria bera; txinparta, baina ez suarena; taupada galduen oihu mutua.

## Eguzkia

Urrezko txanpon erraldoia, baina inoren eskuek zikindu ez dutena.

## Ilargia

Kainek hilketan gorde ez zuen igi-taia.

## Irria

Txoriaren hegada xamurra, baina lumarik gabea.

## Egia

Gezuraren kontrakoa.

## Poesía


Ez da orain arte esan den ezertxo ere, Poe sí baizik, Edgar Allan Poeri baie-tza.

## Armairu

- Ez dut irekiko! -esan zuen.  
- Zergatik, ordea?  
- Bertan dauden arropak gustokoak ez ditudalako. Ez da zuek uste du-zuen altzaria, ez. Ez!, hiru armen gordelekua baizik.

Armairua ireki bezain laster, odol-dutako arropen artean hiru arma aurkitu zituzten: labana, bata; bestea, ez-pata; eta eskopeta, hirugarrena.

Armairua, beraz, hiru arma gorde-tzeko erabiltzen altzaria da.



## Tía cojonuda

Ez, ez da neska polita; ez, ezta jatorra den neskaren bat; ezta ausarta den emakumea ere; kanpai parez zintzilik dituen neska baizik, *femme fatale* baten moztorropean gorde den trahestia baizik.

## Iruzur

Ez da gezurtia, biluztasunean bere burua agerian jartzeko herabetsu-nak jotako hitz kriptiko hutsa baizik. Hiru zur!

## Ogia

Ogia eta egiaren artean bada gezurrik. Ogiaren egia ez baita guztioi esan zaiguna. Orgiak ordu txikietan oharkabean galdu zuen r letraten ondorioz sortu zen ogia. Lagunartean isekak izan zuen zer esanik, galdu zuen faloren irudira eguneroko jana-ria bihurtzeraino. Hara hor ogia: orgiaren lagunek burlatsu zakila galdu zuen gauaren omenez egindago oroit-garria.

## Hilgora-Ilbehera

Gauaren irri bertikala.

## Paper orria

Ez da egurraren tratamenduaz lortu-takoa, ezkutuko taxidermistaren es-kuetan landutako elur zatia baizik.

## Itsasoa

Goibeltasunaz neka-neka eginda gi-zakioi jakitera eman zigun poetak egia baztertu zuen, ez da ortzeak isu-ritako ur geldia, ezta geza bakailaoen erruz, gizon-emakumeon negar gera-tua.

## Gezurra

Ez da egia, haren ispiluko irudi hutsa baizik.

## Tunela

Ez da diotena, historiaurreko suge bati tripak atera zaizkion larrua bai-zik.

## Puzkerra

Haize-instrumentuak jaurtitako soi-nu lurrindua.

## Bihotza

Mozkorren ametsak gustoko duen zahagia.



Ogia eta egiaren artean bada gezurrik.

## Espermatozoideak

Astindu eta gero, pump!, milaka txanpain-burbuila.

## Habanar zigarroa

Lizunaren ezpainek musukatu duten zakil mulatua.

## Hilbehera

Kainek hilketa egin eta gero, gorde-  
tzea ahaztu zuen igitaia.

## Alienazio

Ridley Scotten gidaritzapean pantai-  
laratutako Alienen azioa.

## Solfo

Gauzale denaren iraina.

## Konfiantza

Fiantza-rekin, noiznahi eta nonahi.

## Izara

Euskaldun berriaren akatsa. Hi  
haiz!

## Labe

Bela-ren bikia.

## Heroi

Erorketaz babesteko haultkia.

## Orroipena

Saminak eragindako orroa.

## Besaulki

Aulkiak musukatzeko patologia.

## Zozo

Ez da hegaztia, zipipaza egiten due-  
naren ahotan soso hitza baizik.

## Mihi

Izenordainen dantza elebidunean.

## Bilingüe

Mingain biko pertsona.

## Hobia

Ohezalearen betiereko ametsa.

## Piano

Matematika-zaleak pi sinboloa ipur-  
diarazten duen ekintza.

## N

Gudaosteko ondorio lazgarria: *M*  
elbarritua.

## H

Errugbi-zaleen letrarik gogokoena.

## Zubiratu

2. pertsonari bere burua jiratzeko  
agindua emateko erabiltzen den  
aditza.

## S

Sugearen irudia.



## T

Gizaki argala aterkipean.

## Joan

Asenturik gabeko gizonaren ize-  
na.

## José

Jotzen dakienaren aitortpena.

## Miel Anjel

Eztia gustoko duen aingeruaren izena.

## Izu

Hika eta zukaren arteko desberdinta-  
sunaren aurrean euskaldun berriak  
duen beldurra.

## Zakila

Arrak izartean daraman makila.

## Or(r)o

Urrearen distirak erotu duenaren  
orroa.

## Belarrondoko

Belar ondoan xuxurlatutako hitz go-  
xoa.

## Sugar

Sugearen antzeko den su-garra.

## Sutondo

Haserrearen ingurunea.

## Ustea

Zutabe hauskorra.

## Ibai

Hi, bai!, esamoldearen forma labur-  
tua.

## Etsipena

Gor-mutu itsua.



**Damutasuna**

Negar malkoek zipristintzen duten paraje laiotza.

**Bizitza**

Ur-tanta iheskorra.

**Heriotza**

Bizidunaren nahigabea.

**Iragana**

Airean lurrunkortzen den oihu geldoa.

**Oroimena**

Orainaldiaren mugetatik at astintzen den arnas lepamoztua.

**Orainaldia**

Hitz baltsamatua.

**Etorkizuna**

Hodeiertzaz bestalde...

**Gorrotoa**

Hiloihal destolestatua.

**Tristezia**

Urik gabeko hondartza bakartia.

**Ametsa**

Hegada askea.

**Ñ**

N kapeladuna.

**O**

Ezusteak zabalduarazi duen ahoa.

**Eskale**

Biderik ezkutuenetan helka batean doan erromesa.

Garaituaren itxurapean zabaldu den eskua.

**Musika**

Lagunarteko hika moduan mahairatu den mus karta jokoa.

**Arra-toy**

Arratoi itxurako jostailua.

**Lanabes**

Muturraren aurrean lana ikusten duenaren aitormena.

**Aitormena**

Aitorren nagusitasuna nahiz larritasuna.

**Mehar**

Haria bezain fina den txiza.

**Ululeku**

Beilatokia.

**Musukabi**

Ezkon berrien lehen gaua.

**Sinkopa**

Koparik gabe geratu den tabernaria.

**Amaitu**

Garai batean, euskal zaharreen "ama ito" -ren eginkizuna laburbiltzen zuen aditza.

**Eunuko**

Barrabilak ukatu dizkioten ehun soila.

**Aula**

Ahul guztien gela.

**Oilo**

Euskaldun berriaren ahotan "Gaur-dormir".

**Ohekide**

Alferra den gizakia.

**Izar**

Zenbait gaztetan edadetuenganako errespetu gutxiko esamoldea: "Hi, zahar!" esamoldearen forma laburtua.

**Gaztaro**

Gazta jateko sasoirik onenean dagoen uea.

*Juan M<sup>a</sup> Zunzunegi*

**K3** *inprimategia*

Amillaga 1 - 6. Pabiloia

20570 BERGARA

Tel.: 943 76 27 41

Faxa: 943 76 49 05

E-maila: k\_3@grn.es

## HAIZEA HASERRE ZEBILEN

Haizea haserre zebilen  
udazken arratsalde hartan.

Armintza baina  
portu blindatua da, segurua  
lurrak eta itsasoak harreman epela izan dute bertan  
betidanik,  
sesio ororen babesean.

Ez hain aspaldi  
galernak barkua ustekabeen harrapatuz gero  
marinel trebeenek bazekiten  
Armintzako kaira jo beharra zutela  
onik atera nahi bazuten.

Egun berean  
Matxixakon ere izan ginen  
eguzkia  
alperkeria puntu batekin  
nola ezkututzen zen ikusten,  
burua zure sabelean,  
eta haizeak aurpegietan gogor jo arren  
itsasoetako marinelik trebeena sentitu nintzen.

## HOTZ DAGO.

Hotz dago  
zugandik kanpo.

Iparraldeko haizea,  
bidea estaltzen duen  
elurra,  
euri txingorra,  
itsaso zuria,  
bisutsa,  
hotz arrotza.

Kontua da  
zuga ere  
hotz dagoela.

## MAITALEAK BETIKO.

Bizitzen jarraitzeak ez dauka zentzu handirik  
nire ondotik falta bazara.

Horregatik  
zu hiltzen zaren egun berean,  
ordu berean,  
segundu berberean  
hil nahiko nuke.

Hori bai, ni banaiz hiltzen lehena,  
mesedez, ez egin txorakeriarik.

Musu eman  
eta alde egin zenuen.

## LASTIMA.

Lastima, gaua  
bikaina zihoan eta,  
luzaroan ahoan geratzen den  
kafea bezalakoa.

Baina musuarena...  
musuarena sobera egon zen.

Sobera egon zen  
maitemindutako nerabe baten gisan  
utzi nauzulako hemen,  
zer egin ez dakidala  
tontakeria hauek idazten.

Kai muturrera egunero-egunero  
bueltatzen naiz  
han aurkituko zaitudalakoan,  
baina nik zer dakit orain  
non egongo zaren,  
nori egingo diozun barre.

Badakit ordea  
ez zaitudala sekula  
gehiago ikusiko.

Edo hori espero dut  
behintzat.

*Aritz Galarraga Lopetegi*

## *Iratzar hadi!*

### I

Iratzar hadi!  
Hotza da gorputz inguruan hotsa.

Ihintzaren goizeko otoitz hezeak,  
blaitu ditu adar biluztuak,  
adarretatik, aspaldian, jauzitako hostoak,  
eta,  
orbel ordailduaren azpiko lur beroak.

Hotza da pneumatikoen agur hotsa.

Beroa, goma beltzen berezko fereka;  
lasterka harriak zapalduz, norantza galduz,  
karraska geldoa, kraska-kraska, karraska.  
Gomazkoak hozteko bidean, oinak bidean abiatuz.

### II

Iratzar hadi!  
Hotza da ibiltariaren agur hotsa.

Ametsez blai du burua,  
buruan txanoa, lepoan tapauka,  
barrua hozteko nahiak darama aurrera, aurrera.  
Gurpilduna azkar dute galdu begiek,  
ilbiltaria piskanaka daramate oinek.

Hotza da bideko leloa, hotsik ba ote bihotzak?

Kraska-kraska oinek harriei, harriek oinei karraska;  
buruak blaitutako bihotza,  
pentsamenduaren egoitzan, morroi,  
galtzeko zorian da ahotsa;  
orbela bideko lagun, azpian uharrirtza,  
ertzetan sororik ez, zelai eta basoak,  
zuhaitz zori zahar jantziak,  
entzunkor denak ibiltariari so.

### III

Iratzar hadi!  
Hotza da bidean, hotza ertzez-ertz, hotza goizaldi  
goibelean.

Likenak enborrak ditu estaltzen,  
goroldiozko tapizak zainak berotzen,  
oroimenaren zamak okertu du gorputza,  
zoruko legarrei, harkoskoei, boten arrastoei,  
begiak so.  
Ostare hertsiek nonahi dute etsai goibelaldia;  
goizerritik hotz iratzarri den eguzkia,  
hodei artean berotuz, ikustezin da bihurtu;  
haize fin sarkorrek masailak ferekatuz,  
ibiltariari begi-niniak nahi dizkio ukitu.

### IV

Iratzar hadi!  
Hotzaren hotsak ibiltariari, bihotzaren hotsak hotzari

Zeruertz lausotuan jolasean zebiltzan lainoak,  
pausoz-pauso, baina, euri-lanbroen atzetik, badatoz;  
buruan, sudurrean, ezpain hozkirrietan gogoz  
hartzen dute atsedean elur-matazek;  
begiak zeruruntz, ez Beoain, ez Aldaon ezta Balerdi,  
aspaldi irentsi ote Arrubi, Ganbo eta Pardarri?  
Bihotza itxi, begiak itsu,  
tupustean, pentsamenduak ihes egin du;  
Bota ibiltarien presazko karraska,  
arin-arinka ,leun, lainoek segika.

Hotzak entzun du bere hotsa; hotzak piztu du bihotza  
Iratzar hadi!


*Anttoni Lopetegi*

1

**E**txeek ez dute oroimenaren airea,  
arnasa, odola;  
dena hain hutsala da:  
zelaiek soldadu gazteak ahazten dituzte,  
basoak iheslaria ehorzten du,  
gizon bat, zaldi bat, burdin bat,  
itzal eternala,  
historiaren materia,  
horma eta sutondoaren babesleku zaharra.  
Oi! Garrasiak harrien gezurrak balira,  
urteak munduaren eraztunak balira,  
malkoak ogiaren gatza balira;  
baina ez gara familia bat,  
bizitzak ez gaitu batzen,  
ezta heriotzak ere,  
zura usteltzen da,  
teilatua erortzen da,  
egunen batean,  
eta hormek zutik diraute  
haize hotzetara,  
hori da haize bakarra,  
ezeren aurka,  
egunen batean.

2

Zer da bailara bat?  
Lurraren tolesdura emankorra,  
bizitzaz betea,  
  
eguzkiz eta umezaroz egindako  
sabela,  
iluntasun batzuk  
belarrekin eta hostoekin nahasiak,  
norberaren munduaren lurrina,  
argizko erro hutsa,  
haizea,  
Iparraren zutabea,  
herria, muga,  
erbestaldia,  
urruna eta hurbila  
aldi berean,  
denboraren fruta,  
erreka baten orbain handia  
non bizitzak  
zentzuaren itzala  
ikusi nahi duen  
nahi gabe.



3

Denok garaitzen gaitu zahartzaroak  
 egunen batean,  
 gaixotasunak, heriotzak, minak,  
 bakardadeak,  
 urruntasunak,  
 egunen batean,  
 ez da inor behar bezain gogor,  
 gero eta jakitunago izan  
 gero eta bakartiago,  
 zer ekidin dezakegu?,  
 pobrezia,  
 ahanztura, zerbait  
 oroitgarria eginez?  
 Zoriontasuna, orain, mantsoa da,  
 zerbait dauka  
 bere egarria ahazteko gai dena bakarrik,  
 bere egarria ahazteko  
 indar titanikoa daukana,  
 orainaren indar argitsua,  
 zerbait:  
 bizitza egun baten baitan.


4

Gelditutako bidai bat da, mendian bizitzearena,  
 oihaneko bakartiarena oso mito zaharra baita European,  
 bai erromes eroarena ere, galduta eta eskale,  
 ilunabarrean hosto ooren silueta beltza  
 eta tristura huts hori argi degradatuaren eran,  
 lur bustia eta hotza, baldintzaren zeinua,  
 momentu horietan bazaudelako, mundua oso handia da,  
 bailara oso sakona, eta zure gorputza ezer ez,  
 zenbait pareta eta ohe bat bizitza direlako,  
 dena arbasoengandiko haizaroa.

Gauean ez dago aberririk, lur osoa muga baita,  
 eta arrosa batek dena justifikatzen du  
 ilargiaren argitan, nola izan daitezke bere petalo sentiberak  
 limo astunaz, ur azkarraz eta aire hutsaz eginak?  
 Zure esku txuri eta epelak liluraz mugitzen dira  
 eta niregana heltzen zara salbazio bat bezala,  
 eta denokin bat egin nahi dut, negar baten moduan,  
 goazen denok, bat egin dezagun eta desehortz dezagun  
 antzinako distiraren hormak egunsenti berria  
 eguzkiz betea irits dadin.

5

Gauzak oso sakonak dira  
 eguzkitan,  
 dena distirutzen da,  
 ur da, erreka ura:  
 ur hutsa, ur betea,  
 gereziondo japoniarra gorri-mina da,  
 ezkien, pikuen eta haritzen kukula guztiak  
 euren bizitza distirutzen diote eguzkiari.  
 Mundua hautsia izan den ispilua da:  
 izakien ispilu bat,  
 ispilu neurrigabea,  
 eta puskak milioika agertzen dira,  
 eta denak erakusten du ez dela ezer gertatuko,  
 gaur beti dela.  
 Nor da eguzkia edo nor gara gu.  
 Loreek argia pizten dute,  
 argia sutzen dute,  
 eta hortentsiak begiak irekirik lo egiten du  
 harro.  
 Adarraren murmurioak  
 eguna mugitzen du.



## I

**P**elayo da Zarauzko patroya. Kabroya osaba apaiza askatzera joan omen zen Galiziatik Granadara. Izan al zarete inoiz Granadan?

Granadan moroak ziren ministro, lejia eta municipal guztiak. Ipurdi zale asko zegoela alegia. Gaur, hemen bezala.

Mutil koxkor polita izan Pelayo eta osabaren trukean sartu zuten galeretan. Erregeari ipurdi bat jartzekotan bandejan.

Pelayok uko egin zion kortesiazko gonbitari “ez, ez nahiago dut nire pajatxoak bota eta lasai bizi, konpromisorik gabe”.

Hanka bat moztu zioten aurrena, beso bat gero zakila miazkatuz. Beste beso bat, beste hanka bat, ipurdia bakarrik utzi arte.

Horregatik dute forma hori Zarauztik ikusten diren mendiek.

## II

Tripa lur idorrez puztutako ume etiopiarraren begirada, euliz lurrundua. Zer dago atzean galdezka.

Izter-gerriak gorputz proportziotik gehiegi nabarmentzen zaizkion neska europarraren irribarre kondenatua. Zergatik galderara.

Barrak baimendutako geografian preso dagoen edozein zerbitzariren hasperen etsia. Zertarako galderara.

Bi mutil urretxuarren morreo debekatua herriko plazako telefono kabinaren atzean. Zergatik ez galderara.

Kristoren ostiak emango nizkioke justizia asmatu zuenari.  
Handiagoak defendatzen dutenei.

## III

Ez al da bizitza indikatiboko baldintza

Ni banintza  
Hi bahintza  
Hura balitza

Ez al da bizitza indikatiboko baldintza

Ni (Superman) banintza  
Hi (Tarzan) bahintza  
Hura, hura bera balitza

Nola konjugatu behar da aditza?  
bizitza?

## IV

Ez dut gehiago idatziko orri kuadrikulatuetan  
 Hitzak tauletan gelditzen zaizkit preso  
 istorio makraboak marraztuz  
 zelai kalkulatueta.

## V

Eguzkiak kulero zikinak erantzi zituen eta ilargi muturrean zintzilikatu.  
 Gereziek hartu zituzten kaleak, orduan, bals baten erritmora. Udareak suizidatu egin ziren dantzaten ez zekitelako eta laranjek “iraultza, iraultza” aldarrikatuz marrubizko barrikadak muntatu zituzten zuku makinan kontra.  
 Bazen platano eta meloiak larrutan harrapatu zituenik, edo behatza sartzen kiwiak.  
 Orduan, estatu kolpea jo zuten tabako belarrek eta kostokrazia ezarri. Kexu ziren perretxiko aluzinojenoek erbestera egin zuten ihes, fantasia guztiak bidean utziz, arrastaka.  
 Aralarko ardiak aspermenez ito ziren berehala neguko elurretan. Eta San Migelen kateak harturik, zerua eskalatu zuten eguzkiari kuleroak garbitu eta gauzak lehenera itzultzeko. Eguzkiak ez du dutxarik hartu harrezkero.

## VI

Katu bat, katu beltz bat  
 gau beltz bateko goizeko ordu bietan.  
 Bele kaleko basura kontainerrean jan bila.  
 Yogur de fresa ez zaio gustatu,  
 baina ai! Nola zurruputzen zuen,  
 nola milizkatzen  
 Pascual izeneko tetra brik batetatik eroritako esne hura!

Kontainer barrura sartu da gero.  
 Bera bezalako beste bi katu zeuden han. Beltzak.  
 Jan bila, nola ez!  
 Ez dute gogo onez hartu.  
 Jan beharra dauka baina!  
 Jan eta edan. Bizi!  
 Miazkatu hemen, zulatu han, kosk egin hor.  
 Zakar poltsa baten gainean orain,  
 beste katu are eta gosetuago baten alboan gero,  
 borrokan laster.

Iep!

Bi "lagunek" kontainerretik alde egin diote!  
Arduratuta irten da nahaspilatik.  
Kanpora jauzi egitear zegoen kontainerreko tapa itxi denean.  
Auskalo nola!  
borborka odola!  
Atea ireki nahi edonola.  
Baina kaka! Ezin.

Hara! Ireki da zertxobait orain...  
...poxpolu bat sutan erortzen eta berriz atea nola ixten den ikusteko.  
Eta kea,  
eta kea,  
eta kea...

Hasi da batera eta bestera urduri mugitzen.  
Kolpe bat hemen, kolpe bat han: segundoko bat.  
17.ean okertu zaio lepoa.  
Sudurtxoan zanpatuta, hortzak okertuta, begi gorritu bi atera beharrean,  
odoletan blai erori da eta etzan su hartzeaz zeuden hondakinetan.

Ez du suak akabatu behintzat.

## IX

Gelditu da denbora.

Erre dira loreak,  
usteldu fruituak,  
piztu hilezurak.

Kaleetan arratoiek egiten dituzte konprak,  
odolustu dira bankuak,  
mozkortu elizak,  
kristoren odolaz  
eta gurutzeek edertzen dituzte parkeak.

Ez du eguzkiak egunik piztuko gehiago.

Zer uste zenuten zela zerua!

*Imanol Epelde*



## Ilargiarekin Dantzan

Ilargiak ni aukeratu nau. Arenaleko zurbia zeharkatzen ari nintzela erreka ikusi dut azpian, dantzan eta barrezka. Islada batek keinu egin eta gora zuzendu ditut begiak. Han zegoen ilargia, borobil eta ederra. Zubian zegoen neska aldratik ni neu aukeratu eta esan dit: dantzan egin dezagun.

-Ez duzu besorik, eta zelan?

-Heldu gerritik, eta moldatuko gara.

Besarkatu dut beso biekil ilargiaren gerribuelta borobil eta burbuilatsua. Eta dantzatu gara, Bilbo, Paris eta Estokolmoko zeruetan barrena... bilin bolaka.



*Matxalen Antxustegi*

## Gurutzedrama

Goitik behera, ezkerretik eskuinera  
galderak egiaren bila  
bizi behar gurutzedrama  
bete behar gurutzegram  
lehena zuri  
bigarrena ez jakin  
hirugarrena auskalo  
laugarrena hor dago  
bosgarrenaren susmoa  
seigarrenari paso  
zazpigarrena zaila  
zortzigarrena zailago  
bederatzigarrena egiatik hurbilago  
hamargarrena denborak esan beharko.

*Maribel Aierza*



## Lilit zein Eba berdin

Hasieran bazen hitza,  
eta hitza gizona zen.

Gizonak emakumearen bizitza asmatu zuen,  
eta egindakotik ezer ez zen bere kontrolpetik irten.

Gizona zen egiazko hitza,  
emakumea zaintzen zuena,  
etxea eskaini ziona.

Eta gizonak ona zela ikusi zuen.

Gero, gizonak agindu zion:  
etxean nahi duzuna egin dezakezu,

baina ez hartu libururik,  
libururen bat hartzen baduzu hil egingo zara.

Baina emakumea, aspertzen zen,  
eta liburu bat hartu zuen.

Arratsean, gizona etxeratu  
eta gertatu zenaz konturatu zenean  
emakumeari deitu eta esan zion:

madarikatua zu, gizon guztien artean;  
munduan zehar, bigarren mailako izakia izango zara,  
eta senarra izango duzu nagusi;  
senarrak oinazeak ugalduko dizkizu,  
eta zure begiak senarrarenak izango dira.

*Arantza Aurrekoetxea*

## BULTZI LEIHOTIK LUMA BERRIEN ELEETARA

S orterria utzi behar duenaren malenkonia sumatzen da Lizardiren olerki hauetan; izan ere, agur esaten dio sortu duen lurrari, maite dituen parajeak atzean nola geratzen diren ikusten duenaren saminez.

Horretarako, interjekzioak eta bokatiiboak erabiltzen ditu lehenengo ahapaldian; baita posesiboak ere, *ene* eta *nere* izenlagunak bertso lerro berean agertzen baitira, eta horrek nabarmenago egiten du lurrarekin duen lotura estua. Gainera, are zailagoa da lur hori uztea, harreman hori etetea, erabiltzen dituen adjektiboen ondorioz: *goiz eme parre gozoz ernea* da lur hori, eta semeari ezteki begiratzen dion amaren irudia dirudi; maitasuna eta bakea ematen ditu ama lurrak, eta baita beste hainbat sentimendu eta dohain ere, esaten ez dituenak, iradoki nahi dituenak hiru puntu horien bitartez.

Baina deskribapen pertsonala, sentimenduek eragindakoa utzi, eta begien aurrean ikusten duena deskribatzen du hurrengo bi ahapaldietan, bukolismoa urratzeraino: lur emankorra da, bizia, koloretsua, aberatsa, eguzkiak jantzitakoa; baina ez da lehorra, ez da eguzkiak zigortutako lur idorra, laino mehe batek estaltzen baitu, paisaia idilikoaren ispilu; beraz, hain lur atsegina uztea are gogorragoa da, eta hiru puntu: nahikoa esan du, gainerakoa norberaren irudimenari uzten dio.

Eta soro horietan nekazari bat dago, lur hori landu dezakeena, lur horri atxikia bizi dena. Nekazaria soilik ai-

patzen du, baina badirudi harekin konparatzen duela bere burua, bere patua, eta horrek ere indartu egiten du trenean doanaren zorigaitza. Berriz ere hiru puntuak olerkiaren azkenean: berak ere ahal baleza!

Baina trenea badoa, zoro, nahi baino biziago, eta gogoa lur horietatik trenera joaten zaio, ametsetatik errealitate-ra, nahi lukeen aberria utzi behar baitu; eta trenaren leihotik ikusten dituen lurretara begiratzen du, baina trenak badarama, bertan du gorputza, eta badoa, zoro, inora, hiru puntuen ziurgabetasunera.

Bere desira agerian jartzen du hurrengo ahapaldian, eta lehenengo olerkian erabilitako formula berbera baliatzen du: interjekzioak, bokatiiboak eta posesiboak. Gainera, lurrari hitz egiten dio; bigarren pertsona erabili du horretarako, estilo zuzena; modu horretan adierazgarriagoa da gurari hori adierazteko modua; baina ez du erantzunik espero.

Berak bai baitaki erantzuna zein den. Azken ahapaldian azaltzen du olerki osoaren funtsa eta sentipenez beteriko deskribapen horren zergatia. Ez doa bere borondatez, beharrak hartaratua baizik. Nora? Inora, hiru puntuek adierazten dutenez. Beraz, azken agurra egiten dio lur maiteari, eta azken begiratua, trenak urruntzen dizkion soro, sagar, mendiei.

Maidar Ziaurritz

## “KUTXIDAZU BIDEA, IXABEL”

H amarkada bete berri eta oraindik ere nire oroimenean. Agian ez da literarioki hunkitu nauen lana. Bihotza, berriz, xamurtzen dit istorioak. Bizipoza sortzen dute nigan baserri giro izpi horiek.

Euskaldunon herrian ez da *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* ezagutzen ez duenik. Izanen bada ere bere kalte. Obligazioz dastatu beharreko 90. belaunaldiko euskal amodio-laborantza-parregura komedia galanta dugu berau.

Kalekume izaki baserrian lehorreratzten da Juan Martin. Noraezean sentitzen du bere burua. Itsasoan galduriko itsasontziaren pare landan itotzear aur-

kitzen den lurrontzia da berau. Graziaz aurka egiten dio datorrenari eta horrek indarberritzen du egoera berrien aurrean. Errealitate berdinean mundu berri bat ezagutzen du mutikoak. Zibilizazioatik at, baina gizartean barne. Hiritar batek imajina ezin ditzakeen kuriositateek biltzen dute bizimodu hori.

Zorionez, euskara garbian hitzegiten dio Ixabelek, neskatala ez baita bere neba bikiak bezain *serrao* mintzatzen. Bestela akabo kalekumearen komunikazio aukerak. Neskak euskara irakasten dio eta elkarri bizitzako *sekretutxoak* kusten dizkiote. Nerabe-heldu bidaia elkarrekin hasten dute gazteek. Esploratu ga-

beko eremuak elkarrekin aztertzen dituzte bi zientzilari gazte bailiran.

Kaleko hizkera errazean idatzia dago eta horrek erritmoa ematen die gertakizunei. Aspertzeko betarik gabe gogo gogo dagoen *jakia* bailitzan dastatzen da liburua. Uda batean igarotzen den bizitza errearen kontakizun bat da. Zoritxarrez... edota besterik gabe... “San Simon eta San Juda, joan zen uda eta negua heldu da.” Horrela ba, Juan Martin zibilizaziora bueltatzen da eta Ixabelen munduaren bizipena hor amaitzen da momentuz.

Itxaso Azpeitia


## SPrako tranbia

Unai Elorriaga • Elkar Argitaletxea, 2001

**E**z duzula oraindik *SPrako tranbia* hartu? Ezin dut sinetsi. Zu izatera, ez nuke egun bat gehiago pasatzen utziko bidaia hori egin gabe. Behin probatuta errepikatzeko gogoia izango duzu, ziur nago. Ezohikoa eta liluragarria iruditu zait niri. Bidaia bera aldioro ezberdina eta kilikagarria. Ez dago bideko gorabehera eta bihurguneei aurrez antzematerik, eta horrek zirrara berezia eransten dio egoerari. Makinistak, oso gaztea den arren, ondo daki nora eraman nahi gaituen. Jostari eramaten gaitu bizitzako zirrikitu serioetatik, berez, edo ohiko bidetik behinik -behin, jolaste-koak ez diruditen pasabideetatik. Horrek egiten du, hain zuzen, horren erakargarria *SPrako tranbiaren* bidaia.

Ezagunak iruditu daitezkeen paisaiak, berez errealak direnak, beste kolore eta doinu batzuek jantzita aurkitzen dituzu, eta lehenaldiko erakarpenaz eta miresmenaz begiratzen dituzu aldioro, errealitate gordinak kutsatutako aurreiritzi garratz-zorrotz gabe. Bihotz-begietako leihoak irekitzen zaizkizu eta paisaia barneratuko zara ia konturatu gabe bidaideen eskutik.

Izan ere, bidaideak espezial -espezialak dira, umore eta sentiberatasun aparta daukate, eta erraz bereganatzen zaituzte. Maitagarriak dira Lucas -adinean gora egin ahala senean behera doan gizaseme alarguna- eta harekin bizi den Maria arreba. Maitagarriak baita, okupa bezala sartu eta Lukasek eta Mariak etxekotzat hartzen duten Marcos mutil gaztea eta haren neskalguna Roma. Non ikusi da horrelakorik! Eta bada bosgarren bidaide bat, Lucasi konpainia handia egiten diona



*Txundigarria da SPrako tranbiak bizitzako gailurrik altuenera eramateko duen modu bitxia eta berritzailea.*

eta isilean asko esaten duena: Don Rodrigo sitsa.

Espedizio bikaina antolatu du Unai Elorriagak, zein baino zein sinpatikoagoak eta autentikoagoak direlarik haren pertsonaiak. Gustua izan da haiek ezagutu eta haiekin bidaiatzea. Nik neuk izugarri ondo pasatu dut Lucas eta bere lagunekin. Hilerriko pasarteak eta beste asko ez ditut berehala ahaztuko. Domu Santu egunez hilerrian, Lucas desagertu eta denok haren bila hasi eta Gandarias familiaren panteoiaren barruko marmolezko mahaian etzanda aurkitu genueneko, esaterako. Nork espero behar zuen Lucas, eskuak alzoan, emazte zenari: *-nekatuta nago Rosa, zatoz ohera-* esaten aurkitzea?

Txundigarria da *SPrako tranbiak* bizitzako gailurrik altuenera eramateko duen modu bitxia eta berritzailea. Eta plastikoa gaineratuko nuke, zeren hain da aberatsa eta iradokitzailea iruditan! *SPrako tranbiako* leihoek espero ez duzun perspektibatik erakusten dizkizute paisaiak, surrealismo eta naif artean hegan dabilzan koadroak bailiran.

Behin izandako umea berreskuratu eta bizitzari begirada garbi eta samurrago batez begiratzeko aukera paregabea eskaintzen du *SPrako tranbiak*. Marcosek dioen bezala: *-eta berdin digu ume izateak gainera: ezin bagara -esaterako idazle edo zinema-zuzendari izan, umeak izango gara-*.

Ikuskizuna/ikaskizuna ziurtatuta dauzka *SPrako tranbiara* igotzen denak. Bidaia on!

*Maribel Aierza*

## Kalegats • Euskal Letren Agerkaria



Euskal Idazleen Elkarte

Zurriola Hiribidea, 14-1. ezk • 20002 DONOSTIA • Tel.: 943 27.69.99 • Faxa: 943 27.72.88

## ARBELAREN GAINEAN

Xabier Mendiguren Elizegi • Elkar, 2004

**B**ERRIAk argitaratu zuen erreportaia baten bidez izan nuen Lotsati poeta itsasondoarraren berri. Erreportaia hark Xabier Mendigurenen azken liburua ere aipatzen zuen. Aspektu biek eraman ninduten liburudendara liburua erostera. Alde batetik, gehiago jakin nahi nuen Lotsatiz eta, bestetik, Mendigurenen liburua irakurtzeko gogoaz piztu zitzaidan. Idazle-gaiaren interesaren ikuspegitik ohar batzuk hartuz irakurri nuen liburua eta oharrotan oinarrituta saiaturko naiz hurrengo lehenengo idazten.

Mendigurenek, besteak beste, hiru ardatz nagusi erabiltzen ditu liburu honetan: Itsasondo herria, agian lotura nagusia markatzen duena pertsona guztiekiko; bere familia adar bietatik, eta literatura. Luzeago edo motzago hiru adar hauetako bat, gutxienez, agertzen da atal guztietan. Horretarako, bere oroitzapenei tira eginez, zirrikitu batzuk uzten ditu zabalik hainbat atetan, geroago norbera bere gustuen arabera zabalduz joan dadin. Kasu batzuetan zirrikitua baino askoz gehiago uzten du agerian. Kasik, esan genezake atea parez pare utzi duela zabalik. Esate baterako, **Lizardiren** kasuan: *Asaba zârren baratza* poema dela medio, haren amonaren baratzea eta idazlearen amonaren zahar-etxeko patioa kontrajartzeko joko bezala hasi eta poema osoa aletzen du. Neurri batean salbuespena da, Mendigurenen amona bizidun ia bakarria baita liburu honetan agertzen diren lagunen zerrendan. Parentesi modura bada ere, zilegi bekit ohartxo bat. Bitxia da poema honekin gertatu zaidana: sarritan irakurri dut *Bihotz begietan* liburuan, baita Orixeren itzulpena ere; askotan entzun dut Antton Valverderen diskoan, aztertu ere aztertuta dut euskarazko klaseetan; hala ere, Mendigurenen liburu



*Laberintoen modura aukera ematen digu geroago nahi dugun bidezidorretik gure ikerketak egiteko.*

irakurri arte ez nau horrenbeste hunkitu. Jakina, egoera bestelakoa da: poemaren amonaren antzeko egoeran daukagu etxean gure ama.

Beasaingo idazleak zabalduzko zirrikituen artean pertsonaien zerrenda luzea topatzen dugu arestian aipatutako hiru ardatzekin zerikusi zuzena dutenak. Nik lau aipatuko ditut; interes gehien sortarazi didatenak, alegia.

### Pertsonaiak

**Jesus Lete Sarasola "Ibai-Ertz"**, idazle xumea, Mendigurenen amonaren lehengusua, mutikotan poliometisak jota elbarritu geratu eta, lagunekin jolas ezinik, besteen jolas eta bizikizunen kronista bihurtu zena. Garai bateko kontu zaharrak azaltzen zituen: umetako jolasak, herriko xelebreak, garai bateko festak, apustuak, etabar.

**Gurutz Sarasola Martínez "Lotsati"**, egilearen amonaren lehengusua hau ere, Itsasondoko arbel-harrobiko jabearen seme nagusia, hogeita bat urte bete gabe "era dramatikoan" hila; antza denez, bere buruaz beste egina. Poema

minduak eta ironikoak idatzi zituen. Mutil sentibera zen Lotsati eta, Sarasolaren aburuz, baita "poeta heterodoxoa" ere.

**Eustakio Mendizabal Benito "Txikia"**, hogeita zortzi urte zituela Algotan poliziak hila. Kasu honetan ez omen dago familia-loturarik Mendizabal eta Mendiguren artean. Lotura bakarrak Itsasondo eta abizenaren hasiera, besterik ez. Liburura ekartzen du aukera ematen diolako, bere hilarrian idatzita dagoen olerkitik abiatuta, poema batzuen sinbologia komentatzeko eta, bide batez, nerabezaroko abenturapuin bat amesteko. Zergatik? Antza denez, Txikiak eta beste etakide batzuek Felipe Huarte enpresaria bahitu eta Itsasondon, bere aitonaren baserriko ondo-ondoko zulo batean, eduki omen zutelako gordeta. Interesgarria eta oso aproposa Montxo Armendariz-en pelikua baten gidoia izateko.

**Jesus Mari Otegi Elizegi "Txato"**, Mendigurenen amaren lehengusua, berrogeita hiru urte betetzeko hilabete t'ardi falta zitzaiola, GALeko mertzenarioek Garazin hila. Familiako loturan oinarrituta paralelismo bi egiten ditu Mendigurenek Txatorekin. Lehenengo, Otegi eta Otaegiren bizitzak: urte berean jaioak biak, 1942an, baserri girokoak biak, lagun eta parrandazaleak, herriaren alde konprometitua, kokiera geografiko antzekoa: Azpeitia ondoko Nuarberen parekoa da Ordizia ondoko Itsasondo. Otaegi atxilotua eta fusilatua, Otegi ihes egin eta GALeko mertzenarioek tiroz hila. Bigarrena, Txikia eta Txato. Biak Itsasondoko hilerrian lurperatuta, bata bestea baino behereago, bi pausora. 1973an hil zuten Txikia eta urte berean sartu omen zen ETAn Txato. Kasu bietan poliziak berak eraman zuen gorpua eta baita lurpera-

tu ere familiari omenaldirik edo agurrik egiten utzi gabe.

Zirikitu estua uzten duenean, aztarnaren bat geratzen da, nahi izanez gero edo interesa adieraziz gero, haritik tira egin ahal izateko. Sarritan aipatzen du, esate baterako, Jon Aranok emandako informazioa, bere iritzia edo lana, liburuan aipatutako hainbat pertsonen lanean edo bizitzan sakontzeko aukera ematen dutenak. Ibon Sarasolaren iritzia ere ekartzen du bitan edo hirutan. *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan* liburutik ere hainbat iritzi ekartzen du idazleek idaztean di-

tuzten pretentsioez hitz egitean eta, hein batean, bere pretentsioak azaltzeko. Liburua apaintzen duten aipuen zerrenda luzea egin genezake: Pierres Michon, Truman Capote, William A. Christian, William A. Douglas, James Ellroy, etabar. Inori ezer kendu gabe nik etxeokoa ditut nahiago. Txomin Agirre, adibidez. Seguru asko ez zuen bere burua xenofobotzat hartzen; baina honelako harribitxiak utzi zizkigun *Garoan* Somorrostroko meatzariei buruz: “...antxen dakusgu jantzi loi, izerdi usai ta begirune gaiztoko langille zikin zetakaz beteak... Gizon gorriak oster aizen gaiztoa-

ren jabeak dira... Ezin dute inor maita, baiño erreztasuna andia daukate edozein gorrotatzeko... Ai zenbat euskaldun zabartu diran Somorrostroko lur gorrietan!”

Amaitzeko, gustura irakurtzen den liburua dugu. Gainera, labirintoen modura aukera ematen digu geroago nahi dugun bidezidorretik gure ikerketak egiteko. Honekin eta liburuaren kontrazalean datorrenarekin baduzue ideia bat jakiteko zertan dabilen Xabier Mendiguren arbelaren gainean.

*Alfredo Rodriguez Landa.*

## GURE GAUZAK S.A.

### Ur Apalategi Idirin • Utriusque Vasconiae, 2004

**G**ure *Gauzak S.A.* izenburua darama Ur Apalategiren nobela berri bezain aberatsak. Aberatsa; *Gauzak eta hiriak* argitaratu eta jadanik zazpi urte iragan direnean, irakurlea ezustean harrapatzeko nobela bat aurkeztea ez baita ahalegin merkea.

Julene Oihanburu dugu nobelako protagonista, gazte izanik ere euskal kulturgintzaren ateak irekita dituen euskal filologiako ikasle, ipuin-idazle nobel eta beka bat eskuratu berri duen emakumea bera. Gaston Berrizarren biografia egitea izango da diru-laguntzaren beste zatia eskuratzeko bidea. Baina bidea labirinto bilakatuko da orriak aurrera doazen heinean eta beka ikerketa ofizialetik at bestelako bidezidor arriskutsuak ere aurkituko ditu protagonistak. Bidegurutze honen erdian, Julene inguratzen duten pertsonaiek: (Zaldunbide idazle frakasatua, Agirre editore harroa, Marta adiskide zuria...) egoera, izatez ambigua, are gehiago korapilatuko dute.

Dirudienez gai arriskutsua planteatzen du Ur Apalategik eta gaia izan da argitaldari *estandarrek* argitaratu nahi ez izanaren arrazoia. Orain arte gehienbat saiakera edo ikerketa tankerako lanak eskaini dituen Utriusque Vasconiae argitaletxeak plazaratu du azkenik *Gure Gauzak S.A.* nobela. Eta nola gehienetan errealitateak literatura irensten duen, kasu honetan literatura da errealitateaz elikatu dena, idazleak berak aitortu bezala hainbat gertakarik liburua bera aldatzeko eta aberasteko balio izan baitute.

Iban Zalduak liburu honi buruz egindako ikuspuntuak nobelaren garrantzia eta muina laburbiltzen ditu. “Irakurketa-plano multipleak” eskaintzea da gehien azpimarratzen

duen ezaugarria eta plano hauek hiru plano nagusitan biltzen ditu: Batetik thriller eta intrigazko nobelaren berezitasun guztiak jorratzearen ahalegina, bestetik egungo euskal kultur eta literatur sistemaren satira gupidagabea egitea eta azkenik, idazle belaunaldiaren auzia planteatzea (*Autonomiaren belaunaldia* mugari hartuz aurreko belaunaldiaren berrirakurketa eta ondorengoaren, merkatuak agintzen duen belaunaldi berriaren zailtasunak planteatuz).

Baliteke nobela definitzeko unean idazleak berak ere beltza eta satirikoa adjetiboak erabiltzea baina ez da ahaztu behar nobela honek parodiatik ere dexente duela; ironia eta umorea baitira hainbat gertaera eta korapilo askatzeko giltzak.

Bestalde, nobelaren alderdi ahul bat aipatzekotan, agian elkarrizketa sakonak bat-batean txertatzeko joera litzateke kritikagarri. Zenbaitetan egoera arinena ere elkarrizketa sakon eta interesgarri batek inguratzen du eta egoera elkarrizketak estaltzen. Hala ere, baliteke nobela beltzaren eta thrillerraren hariak lotzeko baliabide bat besterik ez izatea, intriga elkarrizketetatik hedatzen baita *Gure Gauzak S.A.* liburuan.

Beti ziliborrari begira gauden euskal literaturgintza eta kulturgintza aintzat harturik nobela mamitsua eskaintzen du Ur Apalategik: hasierako xedeetatik urrundu den *Gure Gauzak S.A.* argitaletxea, pertsonaia batek dioen moduan, orain *Gure Kausa S.L.* fundazio arrakastatsua bilakatzeraino; bekadun idazle nobelaren larritasunak; izkribu imajinario eta apokrifoen aztarnak... *Gure Kaosa* islatzeko parodia beltz aberatsa beraz.

*Mikel Ayerbe*

## ORHOIT GUTAZ


**Pedro Alberdi • Pamiela, 2003**

**G**auza kurioa da saiakera honekin gertatu zaidana: Liburua irakurtzeari ekin eta hasiera batean jomuga zirudiena, aldatuz joan zen orrialdeak aurrera joan ahala. Irakurketa aurreratua zegoelarik ere, ez nuen oso argi eduki benetan zeri eman nahi zion garrantzia Pedro Alberdik. Izan ere, hasiera batean saiakeraren funtsa zirudiena, garrantzia galtzen zihuan kontatzen diren beste hainbat pasadizo, gertaera eta pertsonaien ondoan; beste modu batean esanda, Alberdik aitzaki bat behar zuela zirudien beste hainbat zehaztasuni nonbaitetik heltzeko, benetako saiakerari ekiteko, alegia, garai bateko gizartearen eta bertako protagonisten gaineko pintzelada batzuk erakusteko. Eta ederki atera zaio.

*Obabakoak* liburuko lehen ipuinean, Camilo Lizardi erretoreak idatzitako gutuna nori zuzendua ote zen aztertzen saiatu da Pedro Alberdi. Ipuin gogoangarri hartan gutun-hartzailearen berririk ematen ez den arren, Domingo Aguirreren izena darabil Alberdik. Hartzailea nor litekeen aukeraturata, garai hartako beste hainbat pertsonekin zuen erlazioa uztartuz edo/eta erlazorik izan gabe ere, garai hartako beste hainbat pertsonai dakartza liburura, joan den mende hasieran euskal munduan sortutako hainbat eta hainbat izen propioekin topo eginez. Aipaturiko Txomin Agirrerekin batera, idazleak, bertsolariak, politikariak, pintoreak, sindikalistak eta abar luze bati buruz dihardu, (R. M<sup>a</sup> de Azkue, Miguel Unamuno, Txirrita, Carmelo de Echegaray, Pio Baroja, Sabino Arana, Nikolasa Atxikallende, Jose Madinabeitia, Uztapide, Toribio Etxebarria, Pablo Iglesias, Facundo Perezagua, Ramon de la Sota, Angiolillo, Canovas del Castillo, Ignacio Zuloaga, Santiago Meabe, *Putzu*, Enrique Areilza, Valentin Dethomas, Vicente Blasco Ibañez, Henri Toulouse-Lautrec, *Iñurritza*, Gregorio de Mugica, Vicente de Arana, Julio de Urquijo, Facundo Perezagua ...)

Jende guzti hau liburura ekarriz eta bakoitzaren egoera, egindako lanak, jokaera politiko edo gertaerak aipatuz XIX. mende bukaerako euskal gizartea deskribatzen du. II. gerra karlista bukatu berria, foruak galduta, sozialista eta errepublikazaleak lehen lanuzteak eta mobilizazioak eginez eta Aranaren nazionalismoaren lehen kimuak agertzen doazelarik, aipaturiko pertsonai bakoitza nonbaiten lerrokatuko da, guztien artean hari batzuk botaz, eta gainetik ez bada ere, garai haiek zer izan zitezkeen agerian utziz.

Historia liburuetan garai hauen berri izango da seguraski, eta jende inportantearen biografietan ere, beraien jokaera politikoak ere deskribatuak izango dira, baina oraingo honetan Pedro Alberdik bere erara biak lotu ditu, historiako gertakariak eta biografietako pertsonaiak, guztia hartzailek gabeko gutun batetik abiatuta. Izan zirela ahantz ez dezagun.



*Pedro Alberdik bere erara biak lotu ditu, historiako gertakariak eta biografietako pertsonaiak, guztia hartzailek gabeko gutun batetik abiatuta.*

«Alberdik  
aitzaki bat  
behar zuela zirudien  
beste hainbat zehaztasuni  
nonbaitetik heltzeko,  
benetako saiakerari  
ekiteko, alegia,  
garai bateko gizartearen  
eta bertako protagonisten  
gaineko pintzelada  
batzuk erakusteko»

# KOLOSALA IZANGO DA

Joseba Sarrionandia • Txalaparta, 2002

“**H**oberena izango litzateke autoreek babestu beharrik ez izatea bere obra, liburuak jaiotzetik oinez jakitea, baina gizabidea bestelakoa da; gurasoek gurrupiltxoan eraman behar dituzte umeak urteetan. Nik lagunen eskuan utzi eta abandonatzeko joera dut umeak, igual erreklamatu didate egunen batean ez nituela nahiko esplikatu. Baina umeak esplikatzeko hastea ere! Begiak apropos egin dizkiodala kolore berdekoak, eta behatzak honakoak edo halakoak dituela ez dakit zergatik!”

Horrela dio gaur bertan egunkarian irakurri dudana elkarrizketan, Joseba Sarrionandiak.

*Kolosala izango da* da guregana helarazi digun azken lana, Durango-ko azokan argitaratu zena hain zuzen. *Kolosala izango da, Lagun Izoztua* bezala portu berean ainguratu da, Kalaportun. Alde batetarantz Ondarroa, besterantz Mutriku. Hortxe, tarte horretan, Kalaportun aurkitu du idazleak berak dioen bezala planoak eta kronikak egiteko libertatea.

Gerra zibilak jo du orainoan Kalaportu eta 11 urteko mutikoa ere bertan harrapatu du, beste guztiak harrapatu dituen lez. Bere begietatik kontatutako bizitza da *Kolosala izango da*, kolosalak ezik beste guztiak harrapatu duen Kalaportuko bizitzan.

“...akorduan dut uztailearen hemeretzia markatu nuela zirkulu barruan 1936ko kalendarioan... hala hasi zen gerra egun haietan. Afrikako ejertzitza gobernuaren kontra errebelatu zela entzuten zen philips iratiaren partean”. Errepublikak proklamatu, huteskundeak fronte popularrak irabazita. Hortxe harrapatu ditugu mu-



tilaren begiak. Aita karlista. Amak etxeokoa zaintzen badu lan nahikoa. Josemari bere laguna, Juamanuel etsaia. Uztailearen hemeretzia markatu du zirkulu barruan, aitak aldegin duen eguna. Danboliteroak pregoiaren kopia kantatzen du udaletxe aurrean. “...queda declarado el Estado de Guerra en todo el territorio de la comandancia y en consecuencia quedan sometidos a jurisdicción de guerra y se tramitarán en su caso por procedimiento sumarísimo todos los hechos delictivos de origen o fin político”. Felix alkatea hor nonbait dabil bere kristal akuatikoekin, egoera larriak lasai hartzeko esanez, ahal duen guztietan txibierroak ardo zuriarekin jaten. Baina Eibarren, Elgoibarren, Durangon eta halako lekuetan Errepublikaren aldekoek hartua dute agintea. Eta Kalaportu ere laister hartu dute. Guardia zibilen kuartela hustu eta preso hartu dituzte. Zerrenda bat egin dute, eskuindar eta karlistena, eta zerrenda-ko izen ahalik eta gehienak ere preso hartu dituzte. Libre utzi dituzte miliziano egin diren presoak. Udatiar eskuindarrak aldeginak dira. Abadea noraezean geratu da. “Tiragomak ez du ondo luzituko benetako gerran...Eta guri ez digute benetako armarik emango ala? esaten genuen guk, gure tiragomak eta jostatzeko armak baino zerbait gehiago nahi genuelako guk ere gerrarako”.

Bonbardaketa. Kontraerasoa.

Hustu egin dira kaleak. Gorri separatistek alde egin dute. Buelatu dira karlistak. Eta falangistak. Ze-

rrenda bat egin dute falangistek: anarkista, marxista, sozialista, aber-tzaleena. Eta preso hartu dituzte. Libre utzi dituzte falangista egin diren presoak. Felix alkatea txibierro frijituak jateko asmoa balu bezala joan da. Hamar mandamenduak berrezarri dira. Abadeak berezko harrotasuna erakutsi du. Aita itzuli da. Amak etxean jarraitzen du. Josemari bere laguna, Juamanuel etsaia. Baina denbora ez da alferrik pasatu. Amaren isila. Aitaren gogo joana. Josemariren ihesnahia. Hildakoak ugaritu egin dira eta pistola-jolasen aurrean mutilaren begi deskontzertatuak baino ez dira geratu. Denbora ez da alferrik pasatu. Egun apurtuak utzi ditu bazterretan. “Ez genekien gerra hain makurra izango zenik, jende guztiaren etxera sartuko zenik, eskailerak igo, atea jo, eta barrura sartuko zela, eta aterik jo gabe ere sartuko zela. Horrela hondatu ziren gure bizitza txikiak”.

Sarrionandiari eginiko elkarrizketara bueltatuz, liburu honekin gerra giroa ala mutiko protagonistaren izaera zuen helburu galdetu dio kazetariak. “Jendea ardua zait, eta harrigarriak iruditzen zaizkit jendearen portaera batzuk. Gerran, gainera, multiplikatua egiten dira portaera larriak”.

Maitasuna, gorrotoa, beldurra, samina, ametsak. Dena mila bider multiplikatua. Iraganik gabeko gerran. Galtzaileen gerran. Bizitza pusketak dira lagun, liburu honetan aurkituko dituzunak. Heriotzetik hurbil dabilzan bizi pusketak. Zuk zerorrek ezagutzea onena bizi-bizirik den umea.

Ainara Belaustegi

## DESASTRE-REN ERREPUBLIKA

“no hay sueño sin soñar” C. Desastre

**D**esastre-ren Errepublika ez da desastrearen errepublika; paradisuak eta infernuak topo egiten duten espazio honetan musikak, bidaiek, poemek, kaleek, irratsaioek, jolasek, besarkadek, collageek, zaratek eta ilusioek gainezka egiten dute kaosa iradokiz. Baina kaosa bizitzan aurrera egiteko aitzakia bat besterik ez da izango, bidaiaren hasieran hegoak astintzeko modu bat.

Zalaparta honen erdian kokatzen da Carlos Desastre, Malagatik abiatu eta nomada bihurturik bidaiatzen ibili ostean, egun Azkoitiko Mataderoaren inguruan mugitzen den koblakari urduria. Kamaleoiei gertatzen zaien bezala, Carlos Desastreri ere izenak asmatzea eta aldatzeari beharrezkoa zaio aurrera egiteko, eta horren adibide garbiena musikari besarkatuta egin duen ibilbidean aurkitu daiteke.

Lehenengo urratsak **713avo Amor** taldearekin eman zituen; zazpi urte iraun zuen taldeak, 1988tik 1994ra hain zuzen. “Rumba Ruido Rock” izenaz baitaiatu zuten euren musika eta horren adibide dira *A veces el dolor* (1993ko azarokoa eta 2003an berrargitaratua) eta *Horrores varios de la estupidez* (1993ko abendukoa) diskoak. Bertan abesti-narrazioen interpretazio hunkigarriak aurki daitezke, guztiak angustiaz eta amodioz kargatuak, melodia xume eta garrasi hauskorren nahasketa, errebeldia eta esperimentazioa... eta hau guztia esatea motz gelditzea litzateke. Birziklatzea eta eraberritzea hain erroturik dituen Carlos Desastrek badaki hainbeste eta agian horregatik jarraitzen du talde honen lanak berreskuratzen eta berargitarapen bikainak plazaratzen, disko-liburu bikoitz baten proiektuen ere iragarri duenez.

1995 urte ingurua, **713avo Amor**-eko bi taldekide baten dituen egitasmoarena dugu: **después de nunca**. Emilio Salvatierra (bateria eta perkusioa) eta Carlos Desastre (ahotsa, gitarra elektrikoa, irratia, zaratak) kolaborazioei atea irekita uzten dizkieten bikote bezala aritu eta taldearen izen bereko disko bat plazaratzea lortzen zuten 2000. urtean hainbat maketa grabatu ostean. Bide, bizipen eta emozio berriak jorratzeko beharretik sorturiko taldea izanik, ez da harrizkoa egia eta gezurraren eta errealtatearen eta fikzioaren mugak hausteko ahalegina nabaritzea beraien lanean.

Urte berean zuzenekoak ematen hasi ziren Tim O’nellin eta DJ Amsiaren kolaborazioez lagunduta eta kontzertuetan topo egin zuten beste taldeekin emaitza ezberdinak emango dituzten hartu-emanak landuz (hala nola, Autoa, Akauzazte, Dut, Cielito Lindo, Lisabö... taldeekin).



2003. urtean argitaratu da *después de nunca* “Revisiones”, talde hauen harremanaren ondorioz sorturiko lana. Modu honetan, taldearekin zerikusia izan duten hamar bat taldek *después de nunca*-ren abestiek interpretatu eta

bakoitzak bere estiloari helduz, abesti hauei buruzko ikuspuntu propioa eskaini dute. Puzzle lan hau taldearen izpiritura ezin hobeki egokitzen den emaitza da, birsorkuntza berriro jaio eta beste behin, bederen, sortzeko modu duina dela ziurtatuz.

Egun, formazio eraberrituarekin datozkigu *después de nunca*-koak: Emilio Salvatierrak taldea utzi eta orain Carlosen aldamenean Xabigsize (bateria) eta Oier Al(e)man (baxu elektrikoa) kokatu dira. Errepertorio guztiz berriak prestatzeari ekin ondoren, jadanik hasi dira zuzenekoak ematen eta hurrengo grabazioaren prestaketa ere esku artean dute.

Baina Desastre-ren Errepublikaren muina ulertzeko ezinbestekoa bilakatzen da **El Corsal Desastre** proiektuaz mintzatzea, Carlos Desastrek bakarlanean gidatzen duen egitasmoaz. Kanean jaio eta eratzten diren errezitalek beren bidea egingo dute musika, hitzak, hotsak, negarrak, algarak eta melodiak uztartuz eta “Ruido Lírico” (edo zarata liriko) definizioa sortuz.

Lehendabizi *Canciones de amor bajo la lluvia* minicd-a plazaratu du eta bertan *Corsal Desastre* musika eta zentzuen esplorazioan gidatzen gaituen irrati esatari bihurtzen da. Harrigarria da musikak eta melodiak zarata eta soinu ezberdinekin (euri, tren, txori, kanpai... hotsekin adibidez) lortzen duten armonia.

2001ean *Radio Ensueño* argitaratu zen: poesia, egunkari, ipuin, kanta eta musikaz beteriko libridoa, liburu-cd formatoan. Irakurketa, entzute eta ikuspuntu anitzetara irekita dagoen lana litzateke *Radio Ensueño* eta lan honetan ere interferentziek, irratsaioek eta bidaiek garrantzia itzela bereganatu dute. Carlos Desastreren lan gehienetan bezala, kolaborazioek ere badute tarterik proiektu honetan: hala nola, Akauzazte eta Dj Amsia musikari dagokionez;







letra eta collage lanetan Nima Lezopen ukituak nabari daitezke.

Baina sorkuntza arloetan gertatzen den bezala, sortzen jarraitzeko antolaketa sare eta kateak garrantzitsuak dira, eta horretarako sortu berri da **Compañía de sueños ilimitada**; merkatu-sarean erori gabe eta kate motzetatik

urrun sortzen jarraitzeko espazio xume hori. Compañía-koen hitzetan “musika argitaratu eta grabazio berriak mugi daitezen arnasa ibiltaraia eskaintzea” dute helburu eta musikari, argazkilar, marrazkilar eta era guztietako eskulangile multzoak osatuko luke argitaletxe berezi hau, “guztiak ere diletante hutsak, melomano beteak”.

Ikusi dugunez, Desastre-ren Errepublikan kaosa eta



ordena eskutik helduta doaz aurrera, musika eta artea ulertzeko modu ezberdinen babesean. Bidaia aspaldi hasi baitzen eta jadanik ez baikara lehengoak, baina oraindik ere ez gara gerokoak gogoratuz (“no tengo futuro/ sólo presente por-venir”). Oraindik jolastu, musika egin eta entzun, hitzak errepikatu, abestu... egin ditzakegulako eta bidean atzera egin ere bai, edo zergatik ez, bidaira batu. Desastre-ren Errepublikan lekua soberan baitago, eta guzti hau sinetsi ez duenak bisita dezala [www.ailimitada.com](http://www.ailimitada.com) helbidea eta maleta egiten hastea beste irtenbiderik ez duela ohartuko da.

*Mikel Ayerbe*

# Ez harpidetu

*literatura interesatzen ez bazaizu*

## *Hegats* • LITERATUR ALDIZKARIA

### Harpide-txartela:

Urteko harpidetza: 12 € (urtean 2 ale)

Izen-deiturak: .....

Banku edo Kutxa: .....

Helbidea: .....

Kontu-zkia (20 digito): .....

Heria: ..... P.K.: .....

Tel: .....



**Euskal Idazleen Elkarte**

Zurriola Hiribidea, 14-1. ezk • 20002 DONOSTIA • Tel.: 943 27.69.99 • Faxa: 943 27.72.88



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

- ✓ **Zure egile eskubideak defendatzeko!**
- ✓ **Zure lanaren proiektzio soziala bermatzeko!**
- ✓ **Zure prestakuntza hobetzeko!**
- ✓ **Puntaren puntako gaien inguruko biltzarretan parte hartu ahal izateko!**
- ✓ **Beste idazleekin harremanetan jartzeko!**

# Izan zaitez EIEko bazkide!

## Bazkide-fitxa:

Urteko kuota: 45 €

Izen-deiturak: ..... Banku edo Kutxa: .....  
Helbidea: ..... Kontu-zkia (20 digito): .....  
Herria: ..... P.K.: .....  
Tel.: .....

Erantsi datu hauei, mesedez, zure CV eta argazkia.

**Euskal Idazleen Elkarte**

Zurriola Hiribidea, 14-1. ezk • 20002 DONOSTIA • Tel.: 943 27.69.99 • Faxe: 943 27.72.88



# Internet bidezko Ikastaro eta Masterrak

Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak antolatutak  
beste Unibertsitate eta Elkarteren laguntzarekin

## Matrikulazio Irekia

### 2004-2005 Edizioa

**HIZNET**, Hizkuntza Plangintza

**JAKINET**, Eusko Ikasgaietan Ikastaroa

**CISCE**, Europar Konstituzioari buruzko  
elkarreraginezko Goi Ikastaroa

**TURNET**, Landa Inguruneko  
Turismoaren eta Enpresa eta Proiektuen  
Kudeaketa Ikastaroa

**DH**, Giza Eskubideetan Ikastaroa

**ARSE**, Artea eta Eskritura Sakratuak  
Ikastaroa

**MIDA**, Ingurugiro Zuzenbidean

**MICI**, Nazioarteko Merkataritza  
Zuzenbidean Masterra

[www.asmoz.org](http://www.asmoz.org)

Tfnoa.: 943 21 23 69

# IDAZLE ESKOLA



## • Helburua

Euskaraz ongi idatzi eta ongi ulertua izateko trebatzea. Bi idazketa mota landuko dira: *idazketa literarioa eta idazketa profesionala*.

## • Hartzaileak

Lizentziatuak edo diplomatuak. Baita lan-baldintzak medio idazketa lanean aritu direnak.

## • Iraupena

300 ordu bi ikasturtean. Lehenengo ikasturtean, 150 ordu (120 presentzialak eta 30 telematikoak). Bigarren ikasturtean, 150 ordu (100 presentzialak eta 50 telematikoak). Ikastorduak larunbatetan izango dira, goizeko 9etatik 13:30etara, Bergarako UNEDeko Ikastetxe Elkartuan.

## • Ikasgaiak

### 1. IKASTURTEA (orokorra)

1. IDAZKETA
2. IMITAZIOA, EGOKITZAPENA ETA ITZULPENA SORMENAREN BIDEAN
3. ARGUDIOGINTZA

### 2. IKASTURTEA (espezializazioa)

Espezializazio moduloak:

- 2.1. Idazketa literarioa
- 2.2. Lan-arloko idazketa:
  - Dibulgazioa eta idazketa
  - Ahoz irakurtzeko idazketa
  - Administrazio mailako idazketa

## • Irakasleak:

1. **MAILA:** Tere Irastortza, Jon Alonso, Jexux Eizagirre.
2. **MAILA:** Unai Elorriaga, Kepa Altonaga, Jerardo Elorza, J. M. Elexpuru, Tere Irastortza, Jon Alonso, Jexux Eizagirre, A. Mujika...

## • Ebaluazioa

Jarraitua izango da eta urtean zehar egindako praktketan oinarritua.

## • Diploma

**Graduondokoa:** Bergarako UNEDeko Ikastetxe Elkartuak tutelatua.

**Diploma:** EIE, Eusko Ikaskuntza eta UNED-ek eskainia.

## • Antolatzaileak

Euskal Idazleen Elkarte (EIE)  
Bergarako UNED Ikastetxe Elkartua  
Eusko Ikaskuntza - Asmoz Fundazioa

## • Zuzendaria

Tere Irastortza ([www.idazleak.org/idazleak.htm](http://www.idazleak.org/idazleak.htm))

## • Informazioa

[www.idazleak.org](http://www.idazleak.org)  
[www.asmoz.org/ieskola](http://www.asmoz.org/ieskola)

## • Idazkaritza

Presentziala (EIE)  
Tel: +34-943.27.69.99  
[eie@eie.euskalnet.net](mailto:eie@eie.euskalnet.net)

Telematiko (Asmoz Fundazioa)  
Tel: +34-943.21.23.69  
[ARSE@asmoz.org](mailto:ARSE@asmoz.org)

## • Matrikulazioa

**Izen-ematea:** 2004ko irailaren 1etik 30era  
**Matrikula:** 2004ko urriaren 1etik 10era  
**Prezioa:** 1.200 € (ikasturteko)

## • Datu pertsonalak

Izena: \_\_\_\_\_

Abizenak: \_\_\_\_\_

NAN: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Herria: \_\_\_\_\_ P.K.: \_\_\_\_\_ Probintzia: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

E-posta: \_\_\_\_\_

## • Hezkuntza

Unibertsitate titulazioa: \_\_\_\_\_

Unibertsitatea: \_\_\_\_\_

• Lanbidea: \_\_\_\_\_

• 2. ikasturterako aukeratu nahi duzun espezialitatea:

- Idazketa literarioa
- Administrazioa
- Ahoz irakurtzeko idazketa
- Dibulgazioa
- Besterik

Datu hauetaz gain, **bidal iezaguzu Curriculum Vitae labur bat** (2 orri gehienez) honako helbide honetara:

**Euskal Idazleen Elkarte**  
**Idazle Eskola**  
**Zurriola hiribidea, 14-1.ezk • 20002 DONOSTIA**  
[eie@eie.euskalnet.net](mailto:eie@eie.euskalnet.net)